

EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA (Donostiako atala)

GRADU AMAIERAKO LANA

2019/2020 ikasturtea

**GIZARTE ERANTZUKIZUNA ETA GARAPEN JASANGARRIA:
KORRUPZIOAREN KONTROLERAKO ENPRESEK EZARRITA DITUZTEN
POLITIKEN AZTERKETA**

**Irakasleak: Mainer Aldaz eta Igor Alvarez
Egilea: Anne Egües**

Aurkibidea

Taulen aurkibidea	4
Grafikoen aurkibidea	5
Irudien aurkibidea	5
Sarrera	6
1.gai.Gizarte Erantzukizun Korporatiboa	8
1.1. Sarrera	8
1.2.Gizarte Erantzukizun Korporatiboa: Kontzeptua eta Definizioak	8
1.3. Gizarte Erantzukizun Korporatiboa: oinarriko printzipioak eta aplikatzeko eremuak	12
1.4. Etika eta baloreak: enpresa gizartean integratzeko modua	14
1.5. Zuzendaritza- eta kudeaketa-sistema: estrategia soziala	16
2. gaia. Jasangarritasun txostenak: ikuspegia aldatzeko era	18
2.1. Sarrera	18
2.2. Jasangarritasunari buruzko informazioaren bilakaera	18
2.2.1.Balantze soziala	18
2.2.2Transparentzia: jasangarritasun txostenen eredia	20
2.2.3.“Tripple bottom line” ikuspegia	23
2.3.Global Reporting Initiative (GRI)	27
2.3.1. Lehen hastapenak	27
2.3.2. Espainian izandako bilakaera eta hedapen prozesua	29
2.4. Global Reporting Initiative: jasangarritasun txostenaren edukia	32
2.5 . Global Reporting Initiative: indikatzaileak	33
2.5.1. Ingurumen arloa aztertzeko indikatzaileak	33
2.5.2. Arlo soziala aztertzeko indikatzaileak	34
2.5.3. Arlo ekonomikoa aztertzeko indikatzaileak	36
2.5.3.1. Korrupzioari bideratutako indikatzaileen azterketa	38
3. Gaia: Korrupzioaren kontrolerako enpresek ezarrita dituzten politiken azterketa	42
1.1 Sarrera	42
1.2. Analisia	43
1.2.1 Automozio- sektorearen azterketa: 1. ZATIA	44
1.2.2 Automozio-sektorearen azterketa: 2. ZATIA	51

1.2.3. Automozio sektorearen azterketa: 3. ZATIA.....	65
1.2.3.1. Informazio- maila nulua erakutsi duten enpresak, 0 puntu	66
1.2.3.2 Informazio- maila, zeharka eskaini duten enpresak, 1 puntu	66
1.2.3.3 Informazio- maila osatuagoa eskaini duten enpresak, 2 puntu.....	69
1.2.3.4 Gestamp enpresaren azterketa	70
4.Gaia. Ondorioak	84
Bibliografia.....	89

Taulen aurkibidea

Taula 1: Gizarte eta ingurumen informazioa komunikatzeko mekanismoak	24
Taula 2: ETEak 2008-2017 urteetan argitaratutako jasangarritasun txostenak.....	30
Taula 3: Jasangarritasun txostenen argitaratze-garapen prozesua.....	31
Taula 4: Ingurumenari bideratutako indikatzaileak.....	34
Taula 5: Arlo sozialera bideratutako indikatzaileak	35
Taula 6: Arlo ekonomikora bideratutako indikatzaileak	36
Taula 7: GRI eredia jarraituz jasangarritasun txostenak argitaratu dituzten espainiar enpresak	44
Taula 8: GRI eredia jarraituz jasangarritasun txostenak argitaratu dituzten alemaniar enpresak	45
Taula 9: GRI eredia jarraituz jasangarritasun txostenak argitaratu dituzten frantziar enpresak.....	46
Taula 10: GRI eredia jarraituz jasangarritasun txostenak argitaratu dituzten italiar enpresak	47
Taula 11: GRI eredia jarraituz jasangarritasun txostenak argitaratu dituzten erresuma batuar enpresak.....	48
Taula 12: GRI eredia jarraituz jasangarritasun txostenak argitaratu dituzten poloniar enpresak.....	49
Taula 13: GRI eredia jarraituz jasangarritasun txostenak argitaratu dituzten portugaldar enpresak	49
Taula 14: GRI eredia jarraituz jasangarritasun txostenak argitaratu dituzten txekiar enpresak	50
Taula 15: GRI eredia jarraituz jasangarritasun txostenak argitaratu dituzten suediar enpresak.....	50
Taula 16: espainiar enpresak GRI indikatzaileetan emandako informazioa	52
Taula 17: alemaniar enpresak GRI indikatzaileetan emandako informazioa	54
Taula 18: frantziar enpresak GRI indikatzaileetan emandako informazioa	58
Taula 19: italiar enpresak GRI indikatzaileetan emandako informazioa	59
Taula 20: erresuma batuar enpresak GRI indikatzaileetan emandako informazioa	61
Taula 21: poloniar enpresak GRI indikatzaileetan emandako informazioa	61
Taula 22: portugaldar enpresak GRI indikatzaileetan emandako informazioa	62
Taula 23: txekiar errepublikar enpresak GRI indikatzaileetan emandako informazioa ..	62
Taula 24: suediar enpresak GRI indikatzaileetan emandako informazioa	63
Taula 25: Informazio- maila nulua erakutsi duten enpresak	66
Taula 26: informazio maila desegokia erakutsi duten enpresak.....	67
Taula 27: Informazio maila errepikakorra erakutsi duten enpresak	68
Taula 28: Informazio konfidentziala erakutsi duen enpresa.....	69
Taula 29: Informazio maila osatua erakutsi duten enpresak	69
Taula 30: Arriskuen kudeaketarako Gestamp taldearen ahuleziak	70
Taula 31: GRI 205-1 informazioaren azalpena	72
Taula 32: Langileen banaketa, herrialdearen eta generoaren arabera	73
Taula 33: GRI 205-2 informazioaren azalpena	74

Taula 34: Gestamp enpresak 2018. urtean jasotako komunikazio edo abisuak	75
Taula 35: Komunikazioak, gune eta motaren sailkapena	76
Taula 36: GRI 205-3 informazioaren azalpena	76
Taula 37: Identifikatutako lehentasunezko gaiak	77
Taula 38: Gai materialen sailkapena garrantziaren arabera.....	78
Taula 39: GRI 103-1 informazioaren azalpena	79
Taula 40: Entitateak ezarritako mekanismo ezberdinak.....	80
Taula 41: GRI 103-2 informazioaren azalpena	82
Taula 42: GRI 103-3 informazioaren azalpena	83

Grafikoen aurkibidea

Grafikoa 1: Mundu mailan argitaratutako txostenak.....	29
Grafikoa 2: 2008-2019 bitartean argitaratutako jasangarritasun txostenak.....	30
Grafikoa 3: 2008-2019 bitartean argitaratutako jasangarritasun txostenak.....	30
Grafikoa 4: ETEak 2008-2017 urteetan argitaratutako jasangarritasun txostenak.....	30
Grafikoa 5: Jasangarritasun txostenen argitaratze-garapen prozesua.....	31
Grafikoa 6: GRI txostena modu okerrean argitaratutako enpresa kopuruak.....	51

Irudien aurkibidea

Irudia 1: Enpresek ezarri beharreko helburuak.....	25
Irudia 2: Materialtasun matrizea interes taldeen eta enpresa-negoziaren arabera.....	79

Sarrera

Gizarte erantzukizun korporatiboa denboraren poderioz aldatzen joan den kontzeptua izan da. Modu batean edo bestean, gizarte erantzukizuna gizartearen oihartzuna jasotzeko sortu zen, hau da, enpresek beraien enpresa- erabaki eta jarduerekin sortzen ari ziren kaltea bere gain har zezaten hain zuzen ere, gizarteak mundu jasangarriago bat aldarrikatzen baitzuen.

Hau izango da gradu amaierako lan honen mamia, gizarte erantzukizun korporatiboa, nola eragiten duen enpresengan eta nola informatzen den honi buruz GRI jasangarritasun txostenaren bitartez. Ondoren, zati praktikoan ikusiko den bezala, enpresak korrupzioaren kontrolerako ea zer nolako politikak dituzten aztertuko dut, honi buruzko informazio mailaren arabera kritika eginez. Hori izango litzateke nire helburua lan honekiko.

Gaur egun, Jasangarritasun txostenak egitea erakunde baten garapen arduratsu eta jasangarriaren aldeko apustua jakinarazteko tresnarik eraginkorrenetako bat da; arreta berezia jarri behar diogu Gizarte erantzukizun korporatiboak enpresetan eta gainerako erakundeetan duen “paperari”, GEK-a komunikatzeaz gain, kudeatu egin behar delako; tresna estrategikotzat hartu dezakete erakundeek, bere jarduerak sortzen dituen eraginak (positiboak zein negatiboak) ezagutzeaz gain, eragin horien kudeaketa hobetzeko aukera emanez, eta noski, interes taldeekiko harremanak hobetuz. Alderdi honi buruzko informazioa emateko modu asko aurkitu ditzakegu, baina kasu honetan, Global Reporting Initiative erakundeak eskaintzen dituen baliabideetan jarri dut arreta nire lana aurrera ateratzeko.

Lan hau egitera bultzatutako arrazoiak, hasieran batean, nire tutoreengatik eratorriak izan ziren, beraiek eman zidaten ideia, ez bait nuen oso argi zeri buruz egin nahi nuen gradu amaierako lana. Era berean, behin gaia esleituta, eta lanaren ezaugarriak jakinda, gogoko hartu nuen honi buruzko ikerketa, eta bisio berri bat ireki zait bai gizarte erantzukizunari, informatzeko moduari, eta noski, korrupzio politikei buruz ere. Harritu egin nau konturatzea nola moldatzen duten informazioa enpresek, kanpora begira informazio kantitate ugari eskaintzen dutela ikusarazteko. Beraz, ez naiz damutzen gai honen inguruan ikerketa egiteaz.

Antzemango den bezala, gradu amaierako lan hau bi zatitan zatitu dut. Alde batetik, atal teorikoa izango litzatekeena aurkituko dugu, eta bertan Gizarte Erantzukizun Korporatiboa, Jasangarritasun txostenak edo eta Global Reporting Initiative-aren inguruan hitz egiten dut, kontzeptu hauek inguratzen dutena kontutan hartuz. Atal hau dokumentu, artikulu, eta notizia ezberdinetan bildutako informazioarekin osatua izan da, jatorri bibliografiko baten eskutik, alegia. Informazio- iturri osatuena “Google academics” plataformatik eratorria izan da, oso lagungarria suertatuz mota eta ideia guztietako informazioa eskuratzeko. Hari beretik, adierazi beharra daukat atal teorikoko GRI indikatzaileen atala, GRI-k bere web gunean eskaintzen dituen dokumentu ezberdinetatik hartua izan dela informazioa.

Atal praktikoari dagokionez, bilaketa prozesua konplexuagoa eta zabalagoa izan da, Europar Batasuna osatzen duten herrialdeetan eta automozio sektorean oinarritzen diren enpresa ezberdinak topatu behar izan baititut. Bertan, oso lagungarri izan zait GRI-k bere web orrian duen bilatzailea, baina ondoren jasangarritasun txosten bakoitza irakurtzean, asko, jatorrizko herrialdeko hizkuntzetan idatziak zeuden: polonieraz, italieraz,

txekieraz...Horregatik, oso lagungarri suertatu zaiten “DeepL” itzultzailea erabili dut. Bestalde, behin enpresa guztietako txostenen informazioa gazteleraz edukita, GRI-k eskatzen duenarekin eta txostenak ematen duenaren arteko informazioa baloratu dut.

Atal teorikoarekin hasiz, lehenengo multzoan Gizarte Erantzukizun Korporatiboari buruz jarduten dut, eboluzio historikoa azalduz, kontzeptuaren nondik norakoak eta gaur egun GEK-ari buruzko definizio ezberdinak azalduz. Horrekin batuz, GEK-a aplikatzeko oinarriak eta eremuak edo eta etika bezalako filosofia enpresan integratzearen garrantzia aipatzen ditut. Hala, bukatzeko GEK-a enpresaren estrategia sozial bezala kokatzen dut, zuzendaritza korporatiboko ikuspegi batetik. Atal teoriko honen bigarren zatia, bi guneetan banatuta dagoela ikus daiteke; lehenengoa GEK-ari buruzko informazioa emateko jasangarritasun txostenak zer diren eta zer nolako eboluzioa izan duten azaltzen dut, honek, gaur egun egoeraren arabera zer nolako aplikazioa duten azaleratzen, eta bigarren gunean, jasangarritasun txosten horietako batean enfokatzen naiz, GRI txostenak, alegia. Behin, GRI-ari buruzko presentazioa eginda, nire atal praktikokoaren muina izango denaren indikatzaileekin bukatzen dut atal teoriko hau.

Beraz, horrekin atal teorikoa amaitutzat eman eta atal praktikoa enfokatuko nintzateke. Adierazi bezala, nire helburua enpresak ezarritako korrupzio politikak aztertzea da, eta ea nolako informazioa ematen duten analizatzea, GRI txostenaren bitartez. Horretarako, automozio- sektorean oinarritutako enpresak hartu, eta nire beharren arabera lagina txikitzen joan naiz, atal praktikoa hiru zatitan banatuz, eta ondoren azken zatian geratu zaizkidan enprekin ranking bat burutzen.

Bukatzeko, niretzat korrupzioen politiken inguruan jasangarritasun txostenean hobekien informatzen duen enpresa zein den azaldu, eta eskaini duen informazioa kontutan hartuz, indikatzaile bakoitzean moldatu eta enpresa hau aukeratzearen arrazoiak zenbatu ditut, GRI-k bere gidalerroan eskatzen duenarekin bat egiten duen edo ez aztertzen, banan-banan. Gradu amaierako lan hau, dokumentuan zehar aurkitu ditudan ondorioekin bukatzen da, zati bakoitzean aurkitu ditudan kritika ezberdinekin amaitzen.

1.gaiia.Gizarte Erantzukizun Korporatiboa

1.1. Sarrera

Azken berrogeita hamar urteetako literatura akademikoak eztabaida bizia sortu du enpresaren eta gizartearen arteko harremanak kudeatzeko orduan. Gizarte Erantzukizun Korporatiboa ohikoa izaten hasi da enpresen artean. GEK-a definizio bezala oraindik ere oso anbigua da, izugarritzko eztabaida sortzen du instituzionalki. (Moneva, 2005).

“Worldcoo co-funding corporation”-ek egindako kontsultaren arabera, 35 urtetik beherako gazteak kontzienteagoak eta zorrotzagoak dira merkatuko marka ezberdinek izaten duten portaerarekin. Kontsumitzaile belaunaldi berriaren pentsatzeko modua askoz kritikoagoa da, markek jarraitzen duten jokabide etikoa gero eta gehiago baloratzen dute, ingurumenarekiko eta langileekiko jokabide arduratsua eskatzen. (“La responsabilidad social empresarial está cada vez más en la consciencia de los ciudadanos”, 2016).

Hala eta guztiz ere, ziur al gaude benetan duen garrantzia ematen diogula Gizarte Erantzukizun Korporatiboari? Herrialde bakoitzak bere politikak aplikatzeko gaitasuna eduki behar du, eta herrialde bakoitzeko politikariak politika horiek aplikatzeko baimena, gogoia eta kemenia eduki behar dute, beste nolako “interes pertsonalak” baztertzen. Hala ere, GEK-aren erantzukizun guztia ez dute gobernu, politikari edo enpresek; guk, gizarte bezala zer esan handia dugu, autokritika garaia da.

1.2.Gizarte Erantzukizun Korporatiboa: Kontzeptua eta Definizioak

- **Kontzeptua**

Gizarte Erantzukizun Korporatiboak (esan bezala) ez du definizio bakarra, hainbat eztabaida sorrarazten ditu. Hainbat organizazio dira kontzeptu honetan lan eta ikerketa lanak burutu dituztenak, esparru hau legitimitate, moralitate eta etikarekin lotzen. Baina, zer da Gizarte Erantzukizun Korporatiboa?

1987.urtean, Brundtland txostena argitaratu zen, garapen jasangarria ezagutzera eraman zuen dokumentua, bertan, industriaren garrantzia azpimarratu zen eta GEK-a garrantzi honen hazkundearen eragile gisa bezala ezarri zen, bai garatutako ekonomiarentzat, bai garatze-bidean zeudenentzat. Honek, industria-garapen jasangarria lortzeko estrategiei buruzko esparrua ireki zuen, lankidetzaren garrantzia azpimarratuz, erregularizazio, merkatu- instrumentu eta aldaketa teknologikoak lortzeko, garapen bidean zeuden herrialdeekin kolaborazioa azpimarratuz. (WCED, 1987). Honen ostean, 1992.urteko Rioko Konferentziak eta “Changing the Course” liburuaren argitalpenak enpresa ugarietan nolabaiteko inpaktua eduki zuen. (Romero, 2009).

Gizarte erantzukizun korporatiboa helburu bezala lortzeko, enpresa eta industriak autorregulazioa areagotu behar dute, kodigo, lege, edo eta ekimen egokiak planteatuz, enpresa- plangintzako elementu guztiak integratzeko eta erabakiak hartzeko prozedura egokiak bilatu, eta garrantzitsuena, langileekin elkarlanean aritu. (Romero, 2009).

Bestalde, hori ez zen GEK-aren ikuspuntua orain dela hamarkada batzuk atzera, zehatzago esanda 1962.urtean; ekonomialari estatubatuarra izan zen Milton Friedman-en ideia oso kritikatu izan da denboran zehar, bi ideia zehatz argitaratu zituen gai honen inguruan. Bere hitzetan, “Gizarte Erakuntzkizun Korporatiboari buruz hitz egiteko merkatu monopolistan murgilduta egotea beharrezkoa da, bestela merkatuaren funtzionamendua aldatuko lukeelako”(p. 3131); 1970ean berriz, enpresa garrantzitsuen zela adierazi zuen, oinarrizko helburua mozkinak maximizatzea izaten, morala eta etika negozioetatik kanpo utziz. (Acosta, Domínguez, eta Ligeró 2007).

Testuinguru honetan, ekonomialari asko izan ziren ideia honen aurka agertu zirenak. Donaldson-en (1982) ustez, mozkinak lortzeko prozesua beste hainbat helburuei txertatuta egon beharko luke; hala nola, helburu moralak, erabakiak hartzeko unean positiboki eragingo bait zitzairen enpresa-erabakiei, buruarekin baina baita ere justiziaz eta zentzuz jokatzeko. Bide berdinetik, Carroll-ek (1998) adierazi zuen GEK-a garatzeko, enpresak gizartearekiko bere gain hartu beharreko lau erantzukizun ezinbesteko bete behar zituela: (Acosta, Domínguez, eta Ligeró 2007)

1. Ekonomikoa: Funtzio tradizionala, produktu edo zerbitzuak eskaini, irabazi bat lortzeko.
2. Legala: Legalitatearen barruan eginiko aktibitate- ekonomikoa.
3. Etikoa: Legean idatzita ez dauden, baina printzipioetan eta bidezkoa denean oinarrituta egotea.
4. “Diskrezioanala”: Enpresak bere jardueratik kanpoko praktikak bideratu behar ditu, gizartearentzat onuragarriak direnak: obra sozialak, hezkuntza programak...

1999.urtean ugariak ziren GEK-aren inguruan burutzen ziren iniziatibak, batez ere ingurumenaren ildotik jarraituak, baina GEK-aren mugimendu guztiaren “boom”-a Munduko Itunarekin hasi zen, urte berdineko urtarrilaren 31ean. Mugimendu hau enpresen erantzukizuna giza eskubide, lan baldintza eta ingurumen arloetan ezartzeko egin izan zen. Itun honek enpresa, langile asoziazio instituzional, eta gobernu kanpoko erakundeak, NBEko erakundeekin elkarlana sustatzeko eta guztiontzako lekua izango duen merkatu jasangarriagoa sortzeko egin izan zen. 2004. urtean GEK-a osatuko zuen hamargarren printzipioa gehitu zen, ustelkeriaren kontrakoa. Behin Ituna abian egonda, hainbat tresna, analisi eta instrumentu indarrera eramane ziren aurrera enpresak bere transparentzia eta konpromezua agerian uzteko, horietako tresna bat, GRI txostena izango zen, lanean zehar azalduko zaigun kontzeptua. (Pinillos, eta Fernández, 2011).

Analisi eta tresna horien azterketatik ideia bat izan zen ondorioztatua: garaiko globalizazio prozesua izan zela GEK-ari lotutako mugimenduaren abiarazlea, bi arazoirengatik hain zuzen ere; enpresen aldetik, globalizazioak kontestu global indartsu batean kokatu zituen multinazional handiak, hau da, enpresak “joko-arau edo moral” bikoitzarekin jarduten zuten: alde batetik, balio erantsiko jarduerak (I+G, diseinua, talentuaren kudeaketa, etab.) mantentzen zituzten mendebaldeko herrialdeetan (gizarte-arloan, lan-arloan eta ingurumen-arloan maila handiko legegintza-estandarrek zituzten);

bestetik, garapen-bidean zeuden herrialdeetan deslokalizatzen ziren, legeria “arinagoa” zela eta, produkzio jarduerak burutzeko (manufaktura, muntaketa...). Modu honetan, multinazionalak herrialde bakoitzera moldatzen ziren, bakoitzean aplikatutako legeria eta kultura barruan, legez kanpoko ezer ez egiten, ustez, baina bai moralaren legeak eta justua denarengan erreparatu gabe. Hor sortu zen GEK-aren premia. Gizartearen aldetik, globalizazioak ONG ezberdinen behin betiko ezarpena azkartu zuen. Horrela sortu zen Munduko Gizarte Foroa (FSM), lehen aldiz Porto Alegren bildu zena 2001eko urtarrilaren 25etik 30era, globalizazio-prozesuan "Justizia sozial" handiena aldarrikatzen, ONG ezberdinen batasuna sortuko zuena. Beraz, ez da harritzekoa azken urteetan izandako kontzientziazio handia enpresek gizartean duten portaera edo “paperari” buruz (Fernandez eta Larrinaga, 2005), enpresen jarrera arduragabekeriak sortu dituen ingurumen hondamendiak gizartearentzat kostu altua suposatu baitute, eta gehienetan “legehutsuneak”, edo eta gobernuen utzikeriagatik. Gaur egun enpresa bat eramateko moduak desberdinak dira: estrategia eta organizazio aldaketak, komunikazio- politika berriak, aldaketak gestio praktiketan... Zenbaitetan zalantzan jarri izan da ea enpresak politika sozialak garatzen dituzten onura sozialagatik eta zergak desgrabatzeagatik edo eta publizitatea eta aitortpena lortzeagatik. (Pinillos, eta Fernández, 2011).

Hori dela eta, gaur egun enpresa batek exijitzen dituen aldaketak burutzeko, enpresa-eredu zaharraren aldaketa beharrezkoa egiten da, aldaketa sozial, ekonomiko eta politikoak aurrera eramateko. Análisi ekonomiko eta management teoriaren haritik, bi enpresa-eredu ezagutzen dira: (Alvarez Etxeberria, 2009).

a) Eredu finantzario edo akzioduna: eredu hau akzionista-exekutibo erlazioan oinarritzen da, ilustrazio garaiko indibidualismo posesibo batetik eta J. Locke ingeles eta D. Hume eskoziarraren jabetza-eskubidearen filosofia pentsamendutik eratorria dago. (Rodríguez, 2008 aipatua Alvarez Etxeberria, 2009). Pentsamendu honen arabera, konpainia batek gizarte osoari egin diezaiokeen ekarpenik onena akziodunentzat balioa sortzean datza. (Friedman, 1962; Mecking eta Jensen, 1983 aipatua Alvarez Etxeberria, 2009).

b) Eredu pluralista edo “stakeholder” eredu: eredu mota hau ilustrazio frantsesera hurbiltzen da, justizia banatzailea, benetako berdintasuna eta borondate orokorra azpimarratzen ditu, nolabait ere ilustrazio alemaniarrarekin eta haren idealismoarekin, ikuspegi organikoarekin eta identitate kolektiboarekiko kezkarrekin konbinatuz (Rodríguez, 2008 aipatua Alvarez Etxeberria, 2009). Eredu honetan, enpresa partaide edo “stakeholders” desberdinen interesen arteko lotura gisa neurtzen da, (errentagarritasuna, balio-sorrera, lan-baldintzak, ingurumenarekiko errespetua, portaera etikoa, komunikazio irekia ...), eta akziodunen eta zuzendarien arteko harremana ez da garrantzitsua den bakarra.; helburua eragile guztientzat aberastasuna sortzea da, eta aberastasun hori ez da soilik finantzarioa eta akziodunentzat. (Alvarez Etxeberria, 2009).

Enpresak garapen-eredu berrian inplikatur joan dira, enpresa-estrategiak aldatuz eta epe laburrera irabaziak maximizatzeko helburua baztertuz. Enpresak ekonomia sortzen dute,

baina ingurumena babestu eta gizarte-erantzukizuna sustatu behar dute, kontsumitzaileen interesak kontutan hartzen (Romero, 2009).

- Definizioak

GEK-aren kontzeptua ez da erraza, definizio zail eta ez bakarreko kontzeptu baten aurrean gaude. 1953an Bowenek GEK-aren lehen erreferentzia formala egin zuenetik gaur arte, definizio asko aipatu dira. “World Business Council for Sustainable Development” (WBCSD) erakundeko presidente Bjorn Stigsonen aitortzen du "ez dagoela Gizarte Erantzukizunaren esanahiaren definizio bakar bat, oro har gizarte bakoitzaren kultura, erlijio edo tradizioaren arabera baita, kasu eta behar bakoitzerako bat diseinatuz"(p. d.f).

Hori dela, eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboari buruz gaur egun hainbat organizazio ezberdinek burututako definizioen nondik norakoak aztertuko ditugu:

→ AECA-k (Asociación Española de Contabilidad y Administración de Empresas) hiru definizio ezberdin sortu ditu (2004):

1º “Gizarte Erantzukizun Korporatiboa enpresek borondatez eginiko konpromezu solidarioa da, gizartearen ongizatea eta ingurumenaren zaintzara bideratua, konpromezu sozial baten eskutik, enpresek bere erresponsabilitatea eta hauek elkarri eragiten diren interes taldeen beharrak bermatuz”.

2º “Gizarte Erantzukizun Korporatiboak bere egitekoa interes taldeen beharretan zentratzen du, estrategia ezberdinak erabiliaz, non hauen emaitzak edo ondorioak neurtuak, egiaztagarriak eta ongi komunikatuak”.

3º “Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren kontzeptua legezko arategia betetzea baino urrutiago eta emaitzen azterketa ekonomikoak epe laburrerako betetzetik haratago doa. Planteamendu hau, strategiari bideratua izango litzateke, enpresaren organizazioan oinarritua, balorea sortuz epe luzera, eta abantaila konpetitiboak lortzeko helburua sustatuz”.

Laburbilduz, AECA-arentzat Gizarte Erantzukizun Korporatiboa enpresek gizartea garatzeko eta ingurumena zaintzeko duten borondatezko konpromisoa da, pertsonetik eta gizartea osatzen dutenekiko jokabide arduratsua izaten. Asoziazioaren hitzetan helburua “berrikuntzara eta enpresen inpaktua hobetzera bideratutako zuzendaritza eta kudeaketa-elementuak integratzea da”. (De Contabilidad eta De Empresas, 2004)

→ Europar Komisioa: “Promoting a European Framework for Corporate Responsibility” liburu berdeko orrialdeetatik aterata (2011):

1º “Gizarte Erantzukizun Korporatiboa enpresak gizartean egindako eraginaren araberakoa da, interes taldeekin elkarlanean arituz, aspektu ekonomikoak, ingurumenekoak, eta etikoak barneratzeko”.

Europar Komisioak, enpresek borondatez integratu beharreko premiaz aparte, enpresa-jarduerak sorrarazitako efektuak interes talde ezberdinetatik bideratzea bilatzen dute, horrela elkarlanean arituz, akzionistentzako balioa maximizatzeko, kaltegarria suertatzen dena identifikatu, eta aurreikusteko. (Comisión Europea, 2011)

→ ISO 26000 arauaren arabera (2010):

1º “Gizarte Erantzukizun Korporatiboa erakunde edo organizazioek beren erabakietan gizarte eta ingurumen-gogoetak txertatzeko eta beren erabakiek eta jarduerak gizartean eta ingurumenean dituzten eraginaren berri emateko borondatea da”.

Araudi honen eskutik, estatuak, enpresa ezberdinak eta gizarte zibilak, talde lanean aritu behar gara, eboluzionatzeko beharrezkoak diren tresnak erabiliaz, ekonomia lehiakor bat lortzeko asmotan, non hau, aldi berean errespetutsua, inklusiboa eta ingurumenarekin errespetuzkoa izan behar duen. (Serrano, 2012).

→ Economistas sin fronteras-en arabera:

1º “Gizarte Erantzukizun Korporatiboa enpresek negozioak bideratzeko duten modua da, jarduerak beraien bezero, akzionista, komunitate lokala, eta gizartea guztiarengan duen eragina aztertzeko modu bat. Honek, leislazioaren betebeharra ziurtatzen du, sozialki, laboralki eta ingurumentalki, baita enpresak bere langileen, jarduten duen erkidegoen eta gizarte osoaren bizi-kalitatea hobetzeko egin nahi duen borondatezko beste edozein ekintza ere”.

2º “Gizarte Erantzukizun Korporatiboa enpresaren balio-kate osoari aplikatu behar zaio, non enpresak jarduten duen lurraldearen subiranotasuna, garapen-legeak, politikak eta kultura errespetatu behar ditu, ezinbestekoa suertatzen nazioarteko arau-esparrua sendotzea. Halaber, beharrezkotzat jotzen dugu gardentasunaren aldeko erregulazioa, gizarteak inpaktu horiei buruzko informazio egiazkoa eta homogenea izan dezan”.

Gizarte Erantzukizun Korporatiboa enpresa-eredu bat bezala aurreikusten du, honekin gizartean duen eragina ikusten analisi baten bitartez, beti ere, lege oinarri hartuz, gizarteak datu guztiak ezagutuz, eta transparentzia oinarritzko puntua izaten. (Moreno, 2014)

1.3. Gizarte Erantzukizun Korporatiboa: oinarritzko printzipioak eta aplikatzeko eremuak

- Oinarritzko printzipioak

Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren helburua oinarri hartuta, erantzukizun korporatiboaz hitz egiteko orain arte erabili diren finantza-informazioak gabezia handiak erakutsi ditu enpresa-kudeaketa irudikatzeko. Horren ondorioz, finantza-informazioaren printzipioek ikuspegi berriak behar dituzte, enpresen inpaktua txertatzera eta hobetzera bideratuta. Horregatik, AECA-k Gizarte Erantzukizunaren oinarritzko sei printzipio definitzen ditu. ("Introducción a la responsabilidad social corporativa", 2014).

1. Transparentzia (gardentasuna): Garrantzitsuena, enpresa baten isla. Enpresa bat gardena izateko, enpresa- jarduera guztiari buruzko informazioa emateko irismena eduki behar du, inolako salbuespenik gabe.
2. Materialtasuna: Organizazioak kontuan izan behar ditu GEK-ari eragiten dioten erabakiak hartzeko interesa duten alderdien beharrak eta premiak, hala sorrazitako inpaktu edo eta aktibitate ezberdinak.
3. Egiaztagarritasuna: Beharrezkoa da kanpoko adituek enpresaren jarduera objetiboki konprobatzea.
4. Ikuspegi zabala: Enpresaren helburuak ahalik eta gehien gizarte erantzukizuna betetzea bideratuak izan behar dute.
5. Etengabeko hobekuntza: Kudeaketa jarraitua izatea gizarte erantzukizun korporatiboa jarraitzeko irizpide gisa.
6. Erakundearen izaera soziala: Norbanako bakoitzak erakunde batean oinarrituta, gizartearekin duen balioa eta eginkizuna nabarmentzea.

- Aplikatzeko eremuak

GEK-ak hainbat funtzio hartzen ditu bere gain, askotan, termino honetaz hitz egitean beti gauza berdina etortzen zaigu burura, ingurumena babestea, baina ez da bakarra. Gizarte erantzukizunaren barnean hainbat kontzeptu babestu beharreko hainbat esparru kontutan hartzen dira: ("Introducción a la responsabilidad social corporativa", 2014)

1. Giza Eskubideak:

Enpresak, jarduera bat burutzen duten momentutik, onartutako araudia, eskubide eta askatasun printzipioak bermatu behar ditu. Horregatik:

- Jarduera- enpresariala burutzen den herrialdeetan, araudia betearazi behar du.
- Herrialde batean kokatu baino lehenago, zer nolako efektuak edukiko dituen materia honetan, eta benetan beteko diren aztertu beharko du.
- Enpresa guztiak Nazio Batuen araudia betetzea eta bere eragiketetan eta erabakiak hartzean behar bezalako diligentziaz hartzen direla ziurtaraztea.

2. Lan-eskubideak

Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) langileei zuzendutako lau oinarri printzipal azpimarratzen ditu: elkartzeko askatasuna, lan gogorraren (forzoso) debekua, haur- lanen debekua eta diskriminaziorik eza. Bestalde, ELGaren gidalerroetan, langileen prestakuntza, kexen kudeaketa eta negoziazio kolektiboari buruzko alderdi garrantzitsuak jasotzen dira.

3. Ingurumena

Nazio Batuek garapen jasangarria helburu unibertsal gisa onartzen dute. Ingurumena zaintzeari buruzko printzipio orokor batzuk jasotzen dira bai Europar Batasuna Eratzeko

Tratatuan bai 1992ko Rioko Adierazpenean, hala nola zuhurtasun- eta prebentzio-printzipioei buruzkoak, ingurumenaren aurkako atentatuak zuzentzeko printzipioari buruzkoak.

4. Kontsumitzailearen babesa

Nazio Batuen erakundea, oinarrizko zortzi printzipioetan oinarritzen da kontsumitzailea babesteko: oinarrizko ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko eskubidea, segurtasunerako eskubidea, osasunerako eskubidea, informaziorako eskubidea, aukeratzeko eskubidea, entzunak izateko eta erreklamatzeko eskubidea, kontsumitzaile gisa hezteko eskubidea eta jasangarritasunerako eskubidea. Ekoizpen eta kontsumo iraunkorra izateko kontsumitzailearen eskubidea, Rioko Adierazpenean, Brundtland Txostenean eta Europako Batasunean adierazita dago.

5. Osasuna

Osasunerako Eskubide Unibertsala Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunean jasota dago. Hortaz, enpresak bere langileen osasuna bermatzera derrigortuta daude, inolako diskriminaziorik gabe. Enpresak bere jarduera enpresariala inolako arriskurik gabe betetzeko gai izan behar dira, istripu edo eta jardueragatik eratorritako gaixotasunak aurreikusten.

6. Korrupzioaren aurkako praktikak:

“Transparencia Internacional” erakundeak bere webgunean dioen moduan Korrupzio edo ustelkeriari buruzko enpresen gizarte erantzukizuna OCDE hitzarmenean aurreikusita dago. Hitzarmen honek, delitu gisa ezartzen du enpresek funtzionario publikoak erostea, kontabilitatetik kanpoko transakzioak egitea, existitzen ez diren gastuak erregistratzea, behar bezala identifikatzen ez diren partidak egotea, eta dokumentu faltsuak erabiltzea... guztiz debekatuta dago. Horregatik, enpresak beharrezkoak diren neurriak hartzera derrigortuta daude, mota guztietako tresnak ustelkeriari aurre egiteko.

1.4. Etika eta baloreak: enpresa gizartean integratzeko modua

Etika eta honek duen influentzia enpresa munduan ulertzeko, Adam Smith liberalismo ekonomikoaren aitzindari izan zenaren denborara salto egin behar dugu. Honek, bere pentsamenduak kezka edo ardura moralean murgiltzen zituen, askatasuna eta zorientasuna lortzeko bide bakarra izaten. Bere ustetan, ikuspuntu teoriko batetik, enpresa bat pertsonen osatutako komunitate bat izango litzateke, helburu zehatz batzuk lortzeko erabilia, bertan giza baliabide, material eta ekonomikoak erabiliz zerbitzu edo produktu bat lortzeko, behar fisikoak estaltzeko. (Cortina, 2006).

Enpresak beraien identitatea bilatzea dute helburu, jarduera eta ohitura multzo onak eta enpresarentzat modu positiboan eragiten duenaz baliatzea. Ohitura on hauek “bertuteak” bezala ezagutzen dira mundu etikoan; lan egitea ez baita aukera bat, behar bat baizik, baina errespetuz eta zentzuz betebeharreko esparru bat. Bertute edo praktika horiek garatu

gabe, enpresak (soilik) helburu ekonomikoak lortuko lituzkete epe motzera, bere sendotasuna suntsitzen eta erakundearen batasuna ekarriz. (Muñoz-Martin, 2003).

Enpresa munduan, etikaren ikuspuntutik garrantzi gehien duten erantzukizunak bi dira: moralak eta sozialak. Lehenengoak, jardueri buruzko “kontuak” emateko betebeharra du (accountability), hau da, enpresak bere informazioarekin gero eta gardenagoak izatera behartuak daude. Bigarren kontzeptuarekin, enpresak instituzio sozial bezala agertzea bilatu behar da, sinesgarritasun eta legitimazio sozial bat zilegi izaten. Legitimitate hau beti lortuko du, gizarteak eskatzen dituen galderak erantzuteko gai baldin bada (responsibility), gizarteak berak ezartzen dizkion balioak eta portaerak onartzen. (Argandoña, 2007).

Gaur egun, Gizarte Erantzukizun Korporatiboa enpresa ulertzeko modu ezberdin bat izan litzateke, balioetan zentratua, enpresa- balorea sorrarazteko, kudeaketa integraleko sistema bat, alegia, enpresaren arlo funtzional guztiak biltzen dituena. Izan ere, Gizarte Erantzukizun Korporatiboak irtenbideak eskaintzen ditu, enpresa finantzario modelo zaharrak sorrarazten dituen arazoei aurre egiteko (Sosa, 2008).

Ikuspegi honekin enpresak interes legitimo guztiei erantzuten die (akziodunak, hornitzaileak, bezeroak, langileak, etab.), eta horien arteko oreka bilatzen du. Ikuspegi honek sorrarazi duen oreka horrek, enpresa-jarduera osatzen duten beste dimentsioak elkarraraztea egin du: erantzukizun ekonomikoa, produktiboa, komertziala, juridikoa, soziala eta ingurumenekoa. (Moreno, 2006; Rodriguez, 2007; Brower eta Mahajan, 2013 aipatua Muñoz-Martin, 2003).

Betalde, batzuetan eskandaluz betetako errealitate bat aurkitzen dugu, non GEK-a garatzeko erraminta “sofistikatuak” zituzten enpresa askok, "arduragabetzat" sailka zitezkeen portaeretan murgildurik egon dira, (zuzendari soldatak eskandalagarriak eta irregularki onartuak, gardentasunik gabe egindako inbertsioak, transparentzia gabe emandako maileguak...). eta beste batzuetan, delitu-ustelkeria hutseko jardueretan (kapitalak zuritzea, paradisu fiskaletan soldatak ordaintzea, politikariak erostea, informazio pribilegiatua erabiltzea (Muñoz-Martin, 2003).

Beraz, ez da harrizkoa testuinguru honetan iritziz publikoaren %61ak ez jakitea zer den GEK-a, “Forética” organizazioak 2011.urtean egindako informe baten arabera. Hala, komunikabideei dagokionez, %38k adierazten dute GEK-ak ez duela erlazorik errentagarritasunarekin, eta %28ak uste du ONG eta gizartean txiroei laguntzean oinarritzen dela. Herritarren aldetik, %23 dira ustez dakitenak zerbait GEK-ari buruz, eta horietatik %65ek aktibitate soziala, %11ak ingurumenekoa, %22 aspektu ekonomikoak lantze dituela uste dute. Enpresei dagokienez, %80ek aitortzen dute zaila dela modu kuantitatiboan zehaztea zenbateko onurak eta mozkinak sorrarazten dituen GEK-ak, gehiago obligazio bat bezala hartuz, non onura argirik ematen dituen edo ez dakitenak (%64). Bestetik, enpresen %51entzat GEK “irudi on” baten kontua dela diote, enpresa handi eta multinazionalak bideratua (Muñoz-Martin, 2003).

Gaur egun, enpresa ikuspegitik, obligazio morala, etikoa edo eta gizarte erantzukizuna, kasu askotan abantaila lehiakor bat bezala erabiltzen da merkatuan, beste jarduera enpresarialetatik desberdintzeko. Hori dela eta, enpresen aurrekontuen zati handi bat gizarte erantzukizun eta sozialki harremanak hobetzeko bideratuak dira. Gizarte Erantzukizun Korporatiboak hainbat abantaila sorrarazten dizkio entitateei; barne-mailan, eko-efizientiaren bidez kostuak murriztu, arriskuak gutxitu, berrikuntza ahalbideratu, interes-taldeen harremanak hobetu...; eta kanpo-mailan, inbertitzaileei inbertitzeko aukera ematen zaie, zerga-pizgarriak... (Acosta, Domínguez, eta Ligerio (2007)).

1.5. Zuzendaritza- eta kudeaketa-sistema: estrategia soziala

Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren kontzeptua erakunde barnean modu egokian ezartzeko, zuzendaritza eta kudeaketan ere egokitze prozesu bat beharrezkoa da. Horregatik, behin argi edukitzean zer den, zer nolako eragina edukiko duen eta zeintzuk diren GEK-a aplikatzeko limiteak, estrategia sozial bat burutzeko garaia da, teoria, praktikara eramaten.

Bide honetan, Moneva eta Lizcano-n (2003) azaltzen den moduan organizazioa bost arlo funtzionaletan zatitzen da: Gobernu korporatiboa, Zuzendaritza estrategikoa, Barne-Kudeaketa eta Kontrola, Informazioa eta Egiaptapena, Zertifikazioa eta bost arlo hauetan egin beharreko prozesuak erabakitzean, iritzi publikoen begietara iristeko beharrezkoak diren bi erraminten garapena: Inbertsio Sozialki Arduratsua, eta Komunikazioa eta Kanpo Aitorpena:

- *Gobernu korporatiboa:* Gobernu korporatiboa enpresa antolatzeko, zuzentzeko eta kontrolatzeko modua da. Gobernu korporatiboari aplikatutako Gizarte Erantzukizunak gizarte kudeaketa eta ingurumen-printzipioen presentzia dakar enpresa zuzendaritza eta kontrola gauzatzen den organoetan (Administrazio Kontseiluak). Azken finantza-eskandaluak arlo honetan oraindik ere sakonketa falta sumatu dela erakutsi dute. Izan ere, erregulazio eta lege arauak, interes zehatza inbertsoreetan soilik zehazten dute, eta enpresak hori baino gehiago dira; interes taldeen asebetetzea bilatu nahi da, botere-harreman orekatuak ezarri, akziodunarentzako balio ekonomikoaren sorrera enpresa-jardueraren konpromiso sozialarekin lotuz
- *Zuzendaritza estrategikoa:* Enpresa zuzendaritza estrategikoa, batzuetan kontrajarriak diren interes-taldeen beharrak asetzerantz bideratuta dago, faktore-berritzaileak eta bereizgarriak txertatzen, kudeaketa lehiarako abantaila iraunkorrak ematen dizkio enpresari. Ikuspuntu sozial batetik, bisioa eta misioa ezinbestekoa suertatzen da, ondoren estrategia- soziala izango zena programatu, txertatu eta kontrolatzeko.

- *Kudeaketa eta barne kontrola:* Arlo hau estrategia eta gestio sistemak ezartzeaz arduratuko da, aspektu ekonomiko, ingurumen eta sozialak kontutan hartzen, hau guztia interes taldeen beharrekin lotzen, espektatibekin bat eginez. Ingurumen arloko ISO 14001 eta sozialeko SA 8000 sistemak oso lagungarriak izan daitezke estrategia- soziala eraginkortasunez ezartzeko.
- *Informazio korporatiboa eta egiaztapena:* Erakundeak bere ekonomia, gizarte eta ingurumen-inpaktuari buruzko informazioa ematera derrigortuak daude. Informazioa emateko modua desberdina izan daiteke enpresa batetik bestera, horregatik informazio hori GEK-aren oinarritzko printzipioei erantzun behar die. Kanpoko aditu independenteek informazioa ebaluatzea komeni da fidagarritasun- eta konpromiso-maila handiagoak lortzeko, hala, finantza-auditoretzak urteko kontuen sinesgarritasuna ematen dute.
- *Zertifikazioa:* Zertifikazio- mailak betekizun eta zehaztapen batzuk zenbateraino betetzen diren berresten du. GEK-aren arloko ziurtagiriek helburu bikoitza dute; alde batetik, enpresaren kudeaketa-sistemak finkatzea, eta, bestetik, jokabide korporatibo jakin batzuk hirugarrenen aurrean bermatzen saiatzea. Enpresak interes-taldeekin duen harremanari dagokionez, ziurtagiri ugari daude, hala nola kalitatea (bezero-kontsumitzaileak), ingurumen-kudeaketa (ISO 14001, EMAS, etab.) edo enpleguaren osasuna eta segurtasun kudeaketaren (SA 8000) inguruan.
- *Inbertsio sozialki arduratsua (I.S.A):* Inbertsio sozialki arduratsua, GEK-arekin elkarlanean gehien aritzen den kontzeptua da. Inbertsio sozialki arduratsua, etika, gizarte eta ingurumenaren inguruan aurreikusten diren ardurak, finantza-kontsiderazioekin batera elkarlanean aritzean datza, inbertsio- erabakiak hartzerakoan. Sozialki arduratsua den organizazioa, errespetua eta errepetuzio ona sorrarazten du, interes talde, edo eta organizazioa inguratzen dutenen artean. Horietako ekintza batzuk dira: “Depósito solidario de La Caixa, Fondo Ético Morgan Stanley, BS Plan Ético y Solidario...”
- *Komunikazioa eta kanpo aitorpena:* Gizarte Erantzukizunaren ezagutza eta ezarpen-maila jardunbide onenei emandako zabalkunde publikoaren mende egongo da zuzenean. Behin gobernu korporatibo zuzenaren, gizarte-estrategia baten diseinuaren eta ezarpenaren, sozialki arduratsua den kudeaketako aldagaien neurketa eta kontrolaren, informazioa egiaztatzearen eta prozesuak iraunkortasun-estandarren arabera ziurtatzearen ondoren, ondo bideratutako komunikazio-politika bat ezarri behar da, lortutako lorpenak iritzi publikoari helarazteko. Horrela, AECA eta Espainiako Zentsore Juridikoen Institutuak egindako deialdien saria lortzeko aukera izaten, prestigioa, eta konfiantza sorrarazten iritzi publikoan.

Ondorioz, Gizarte-erantzukizun korporatiboa, ezer baino lehen, erakunde bat kanpora begira nola kudeatzen den moduari lotuta dagoela argi geratu da. Kontzeptu hau

eboluzionatzen joan da enpresak interes komertzial hutsa baino gehiago direla onartzen hasi garenetik, gizarteriaren betebeharrak baititu, eta aurrera eramateko gai izan behar du. Hortaz, kontzeptua bere osotasunean argi edukitzean, eta GEK-a ezartzeko neurriak hartuta, ikusgai izan behar du erakunde bat osatzen duten eragile guztiengan, eta hor sartzen da jasangarritasun txostenen zeregina. (Moneva eta Lizcano, 2003).

Erakundeei beren enpresa- jarduerak izan ditzakeen ondorioak kontuan hartzen laguntzen dute txostenak. Horrela, kontzienteagoak eta gardenagoak izaten aurre egin beharreko ingurumen- eta gizarte-arriskuei begira, bai eta agertzen zaizkien aukerak hautemateko ere. Hori dela eta, orain aipatu berri ditudan bost alor hauetatik, azkenekoan zentratuko naiz gehienbat, enpresak ezartzen dituen politikak inguruan komunikatzen duen horretan.

2. gaia. Jasangarritasun txostenak: ikuspegia aldatzeko era

2.1. Sarrera

Enpresa munduan murgiltzen diren dimentsio etiko eta sozialak gero eta arreta handiagoa pizten du gizabanakoen artean, akziodunen erantzukizun finantzarioez haratago doazen eta gizaterian sortzen diren beharrak kontuan hartzen dira. (Rodríguez eta Vianey, 2015).

Gizarteak eta munduak orokorrean, enpresa ikuspegia aldatu du aspektu sozial eta ingurumenari dagokionez, eta ikuspegi finantzario hutsa ebaluatzeari utzi dio. Ildo beretik, erakundeek bere estrategia zehazteko momentuan, jasangarritasun txostenean aurkitzen du bere etika eta transparentzia agerian uzteko modu bat. Jasangarritasuna, aurrerago hitz egingo dudana “triple bottom line” bezalako hiru dimentsioak kontuan hartuta: arlo ekonomikoa, ingurumen arloa, eta arlo soziala bezala ezagutzen da. (Rodríguez eta Ríos-Osorio, 2016).

Interes taldeekin, enpresak gizarte eta ingurumen-aldagaiak dituzten kudeaketa edo gestio-sistemak ezartzen hasi dira, eta, aldi berean, beren gizarte-konpromisoaren irismenaren berri ematen saiatzen dira. Informazio-mota hori bateratzeko beharrak bultzatuta, enpresak, jasangarritasun-memoriak egiteko gida argitaratzera bultzatuak izan dira. Gida horretan, ekonomia, gizarte eta ingurumen-arloko informazioa ezagutarazteko jarraibideak aurreikusten dira. (Gray et al., 1995 aipatua Archel, 2003).

2.2. Jasangarritasunari buruzko informazioaren bilakaera

2.2.1. Balantze soziala

Jasangarritasun informazioaren argitalpena ez da gaur egungoa soilik, modu banatu batean argitaratzen ziren aspektu sozial eta ingurumenari buruzko informazioak, oinarri sozialeko informazioa bezala ezagutzen zena. XX. mendeko 70. hamarkadan hasi zen kontzeptua garatzen balantze edo kontabilitate sozial izenarekin. (Moneva, 2005).

Balantze soziala enpresak eta honen oihartzuna analizatzeko balioa du, aspektu sozial eta etiko baten bidetik. Helburua informazioa bildu, sistematizatu eta ebaluatzean datza,

enpresa-jardueraren izaeraren arabera, datu kuantitatiboez osatzen, eta irismen publikokoa den dokumentu bat egiten. Analisi honek erakundeari buruzko arlo sozialen indar eta ahuleziak erakusten ditu. Gaur egun gizarte erantzukizun korporatiboa neurtzeko ditugun indikatzaileen antzeko adierazleak, balantze sozialaren bitartez bideratuak izan ziren 1996. urtetik aurrera Ipar Ameriketako Estatu Batuetan, erakunde ezberdinen irudi publikoa hobetzeko, alegia. Garai hartan, liberalek, ikasleek, kazetariak, kontsumitzaileak eta ekologistek osatutako koalizioak gogor kritikatzeko hasi ziren industrializazio politika desegokiak eta erakundeen aldetik baliabide naturalen ustiapenen gehiegikeria, hauek krisi sozialaren erantzule bihurtuz. (Jaramillo, 2007).

Europa mailan, antzeko praktikak bideratu ziren, baina beste izen batekin, kontabilitate sozial izenarekin. Espainian, Bilbao Bankuak (1978-1980) eta Industria Nazionaleko Institutuak balantze sozial eredu antzeko bat garatu zuten. Hala ere, eredu honek ez zuen ikaragarritzko arrakasta izan enpresen sektorean. (Moneva, 2005).

60. eta 70. hamarkadetan, balantze sozialari buruzko legeak, oso ondo hartuak izan ziren erakundeen eskutik, gehienbat enpresen betebeharrak eta debekuetan oinarritzen ziren. Bestalde, gaur egun beste modu bateko legea aurreikusten da, enpresak proaktiboagoak izatera eta haien praktikei buruz hausnartzera bideratzen dituenak. 1970eko hamarkada garairik aktiboena izan zen. Laurogeiko hamarkadan ez zen mugimendu honen bilakaerarik izan, neurri batean egoera ekonomikoaren eta enpresen interesei emandako lehentasunaren ondorioz. Negozio-komunitateak ez zuen ikusi balantze sozialean erantzukizun korporatiboa hobetzeko laguntzarik, baizik eta interes-taldeek enpresa "barnea" nola zen kalifikatzeko behar zuten informazioa izateko modua baizik. (Jaramillo, 2007)

90. hamarkadan, ingurumenari buruzko ikuskaritzak egiten hasi ziren, honen ondorioz, Europa mailan balantze sozialaren argitalpenak indarra hartu zuen enpresen artean (Jaramillo, 2007).

1992ko Rio de Janeiroko Lurraren Gailurrak joera hori aldatu zuen. Egoera honen aurrean, enpresak ingurumen-kudeaketarako arau batzuk praktikan jarri zituzten, ezagunena ISO 14000 araua izan zen. Hala ere, sistema horiek ingurumen txosten bereziak aurreikusten zituen. Garapen jasangarria kontzeptuak onura sozialenganako interesa handitu zuen. Horren ondorioz, 1993. urtean burutu zen analisisetako batean, gizarte-erantzukizunari edo iraunkortasunari buruzko txostenak argitaratzen zituzten enpresak gero eta gehiago ziren. KPMG-k egindako azterketen arabera, gero eta gehiago dira soilik ingurumen txostenak argitaratzeari utzi dutenak, iraunkortasun-txostenen alde egiteko. (Moneva, 2005).

Sektoreka, ingurumenarekiko sentsibilitate handiena zuten enpresak izan ziren txosten sozialak argitaratzen lehenak; hala, enpresa kimikoak, elektrikoak, petroliogasturikoen eta meatzaritzakoek lehenengo lau tokiak betetzen zituzten, hauek izan ziren lehenengoak

beraien urteko kontuetan ingurumenarekin erlazionatutako informazioa txertatzen. (Moneva eta Llena, 2000).

Herrialdeka aldiz, Erresuma Batuko eta Estatu Batuetako enpresek betetzen dituzte lehen bi tokiak, eta, ondoren, Japoniak. 1992-2004 urteetan, Espainia leku nahiko baxuan agertu zen (15.), ulergarria zen postu hau, GEK-ari buruzko txostenen argitalpena nahiko berria baitzen. Hala ere, jasangarritasunari buruzko informazioaren argitalpenak Espainian izan duen eboluzio azkarraren ondorioz, gaur egun lehenengo 10 herrialdeen artean kokatua geratzen da. (ACCA, 2004 aipatua Moneva, 2005).

2.2.2 Transparentzia: jasangarritasun txostenen eredua

Gizarteak enpresen gaineko presioa areagotu du, gero eta gehiagok behartzen dituzte enpresak irudi fidela eskaintzera, informazioaren transparentzia osoa izatea, alegia. Gaur egungo egoerak zerikusi handia du 80. eta 90. hamarkadetan pairatutako ingurumen hondamendi eta eskandalu finantzarioek. Eskakizun sozial horren ondorioz, enpresak informazio ez-finantzarioa hedatzera behartuak izan ziren. (Moneva eta Llena, 1996).

Kontzeptu eta eskakizun berri hauen agerpenarekin, erantzukizun sozialaren inguruan hainbat eztabaida bultzatuak izan dira (filantropia, merkatu kontsumista, modak...) eta horren guztiaren erdian transparentziaren kontzeptua ere azaltzen da, izan ere, informazioaren kalitatea bermatzeko eskatua; ez da nahikoa erantzukizun korporatiboa defendatzea, frogatzeko unea iritsi da. (Rodriguez, eta Vianey, 2015).

Horrenbestez, ez da nahikoa transparentzia-maila handiago bat eskatzea, jarduera guztiz gardena dela adieraztea eta transparentzia-lege bat egitea, garrantzitsuena transparentzia zer den jakitea da. Transparentziaren analisisa arlo gubernamental eta instituzional batean, askoz ere garatuago dago gaur egun, eta ohikoena herrialde bateko korrupzio- indizeekin lotzea da. Transparentziak enpresari arlo guztietan ematen dio lasaitasuna, ez bakarrik jasangarritasun txostenean irudi fidel bat erakusteko; transparentziak, enpresak korrupzio eta ustelkerietatik kanpo uzten ditu, modu askotako ustelkeriak baitaude, ez soilik euroetan neurtzen direnak. Arlo honetan, ondorengo lerroetan azaldutako ekostuziaren kontzeptua barneratzen da (Baraibar, 2013)

Zer esanik ez dago, transparentziak ematen diola organizazioari iritzi-publikoaren mirespena eta onarpena, eta hori da jasangarritasun txostenen gakoa, dena argi eta garbi uztea erantzukizun sozialari dagokionez. Aurreko atalean azaldu bezala, transparentzia gizarte erantzukizun korporatiboaren printzipioetako bat da, oinarrizkoena esango nuke, eta honen inguruan murgiltzen dira beste guztiak, enpresa batek ispilu bat bezala izan behar du, sekretuz gabea. Beraz, hontan oinarriz, transparentzia-printzipioa hiru elementutan zatitzen da: portaera sozialki arduratsuan, interes-taldeetan eta jardueren bateratze prozesuan. (Moneva, 2005).

1º- Sozialki arduratsua den jokabidea: erakundeak burututako jardueren iraunkortasunaren bidez neurtzen da, garapen ekonomikoa ez baita erreferentzia bakarra, ingurumenaren babesa eta gizarte-ongizate soziala erakundeen helburu gisa baitira.

Azken urteetan bi kontzeptu aurreikusi dira: eko-efizientzia eta eko-justizia.

- **Eko-efizientzia:**

Eko-efizientiaren ideia 1990. urtean aurkeztu zen, Schaltegger eta Sturm literatura akademikoaren eskutik, garapen iraunkorra lortzeko bidea izanik. 1992. urtean Garapen Iraunkorrerako Munduko Enpresa Kontseiluaren eskutik, (WBCSD) eko-efizientzia bere osotasunean garatzen hasi zen, helburua, epe luzera iragartzen ari ziren ingurumen-hondamendiari aurrea hartzea zen. Eko-efizientzia ondasun eta zerbitzu gehiago sortzean oinarritzen da, baliabide gutxiago erabiliz eta kutsadura gutxiago sortuz; produktibitatea handitzea eta kostuak gutxitzea posible dela baieztatzen, ingurumen garapenari positiboki eragiten (Bebbington, 2001; Lehman, 2002; Stone, 1995). Ingurumenaren garapen jasagarria eta negozio enpresarialen arteko ekitatea bilatzea da helburu. Hainbat modu ezberdintzen dira eko-efizientzia neurtzeko: Agenda 21, Kyoto Protokoloa, Montreal protokoloa, Basilea konbenioa... (DeSimone eta Popoff, 1997 aipatua Pache Durán, M.,2017).

- **Eko-justizia:**

Eko-justizia, zati berriena izango litzateke; enpresak kontziente dira zer nolako aukera daukaten pobrezia murrizteko edo giza eskubideen defentsa bezalako alderdiak sustatzeko. Zoritxarrez, hau, pasatako hainbat eskandaluetatik dator, eta nazioarteko eta Espainiako ehungintza-industriek zeresan handia izan du. Gaur egun, herrialde “aberatsetan”, errespetua, diskriminazioa, edo eta akoso sexualaren alderdia, “bisualizatuagoa” dago, gero eta gehiago gara honen kontra altxatzen garenak. Bestalde, herrialde txiroetan, milioika dira beldurraren ondorioz, praktika iraingarriak sufritzen dituztenak. Hau guztia, eko-justiziaren parte da, enpresa batek aspektu hauetaz ohartu eta munduan zehar dituen lantegi guztietan erreparatu behar du, toki guztietan justizia legeak ez direlako berdinak. Jarduera enpresarialarekin efizienteak izatea eskatzen den bezala, justizia parekideagoa izatea lortu beharko litzateke, denen ongizaterako.

2º “Stakeholders” edo interes-taldeak:

Interes-taldeek eskaerak eta espektatibak behar bezala identifikatzea, eta horiek enpresaren estrategian integratzea gizarte-posizionamendu arduratsua lortzeko tresnarik indartsuenetako bat da. Hortaz, organizazio batek sozialki eta modu arduratsuan jarduteagatik, zeharka bada ere bere interes taldeen beharrak eta kezkek enpresen operazio ekonomiko eta komertzialen parte bideratu behar dituzte. Horrela, burututako jarduera bakoitza gardena izaten denen begi bistarako. (Jaramillo, 2007). Kudeaketa-tresna eta eredu ugari daude interes-taldekiko harremana erakundean integratzeko, horietako bat GRI jasagarritasun txostena da, hurrengo puntuan azalduko dudana.

“Stakeholder”-en konpromezua, enpresako barne eta kanpoko eragileen artean elkarriketak mantendu, bi aldeek arteko harremana sustatu, kontsumitzaileen eskubideak errespetatu, kalitatezko produktuak eta zerbitzuak eskaini, egiazko informazio erabilgarria eman, langileei, lan-ingurune atsegina sustatu, bidezko ordainsari eta sarietarako sistema ezarri, komunikazio irekia mantendu, eta hornitzaile eta merkataritza-praktika gardenetan inplikatzeko da. (Jaramillo, 2007).

“Stakeholder”-ak enpresan zuzenean edo zeharka interes- legitimoa duten pertsona gisa definitzen dira, “paper” bereizgarri bat dute erakunde barruan erantzukizun soziala

garatzeko unean. Izan ere, GEK-a ezin da garatu interes-taldeek erakundearen jardura garatzeko edo eta negozio-eredua diseinatzeko zeregin nabarmenik ematen ez bazaie. (Revilla, eta Fernández, 2011).

Interes-taldeak edo “stakeholder”-ak definitzeko unean, enpresa- jardura zeregin zehatzerako mota ezberdinetakoak bereizten dira: (Revilla, eta Fernández, 2011)

- Gertutasunagatik: erakundearekin elkar-eragin hurbilak dituzten taldeak, barneko stakeholder-ak.
- Eraginagatik: erakundearen jardueraren garapenean eragina duten (edo izan dezaketen) interes-taldeak.
- Erantzukizunagatik: Legezko betebeharrak dituztenak.
- Mendekotasunagatik: Erakundearen jarduran espresuki oinarritzen diren interes-taldeak

Hainbat eragile edo interes- talde identifika daitezke, hala nola, barneko eta kanpoko “stakeholder”-ak. Barnekoak, akziodunak, jabeak eta langileak dira, hau da, enpresa osatzen dutenak; kanpokoak, ordea, bezeroak, hornitzaileak, lehiakideak... izango lirateke, laburbilduz, enpresak bere jardura aurrera egin dezan behar dituen eragile guztiak. “Stakeholder”-ak zeregin aktiboa eta funtsezkoa dute enpresaren barruan, antzinako enpresa-eredu zaharra ordezkatzeko dute, finantza-egoeraz soilik arduratzen zena. (Moneva, 2005).

3º Enpresaren barruko jardueren komunikazioa, edo jardueren bateratzea:

Komunikazio korporatiboaren mekanismo tradizionala finantza-informazioa izan da beti, eta horretan oinarrituta hartzen ziren erabakiak, baina urteak pasa ahala, informazio hori ez da nahikoa suertatu enpresa baten barruan ikusten ez diren arazoak konpontzeko edo aurreikusteko, instrumentu ez-eraginkor bihurtzen non aktibo, pasibo, sarrerak eta gastuak kontutan hartzen dituen soilik. (Moneva, 2005).

Testuinguru horretatik kanpo, jasangarritasunean oinarritutako kudeaketa sozial eta arduratsuan parte hartzen duten hainbat eragile bereizten dira:

Alde batetik, lehenago aipatutako gobernu korporatiboa ezartzeko beharra eta garapen ekonomikoa aurkitzen dugu. Informazio- finantzarioaren erregulazioa organizazioaren partiden edo organizazioaren ondarean murgiltzen dira. Ildo horretan, gobernu korporatiboa transparentzia kontzeptuaren aliatua da, enpresa estrategia sozial batera bideratu eta enpresako eragile guztiak kontuan hartzen baititu. Azken urteetan enpresa, finantza-erabakien arabera murgildu da, gaur egun gauza aldatu egin da, eta finantza informazioa erraz manipulatu baitaiteke. Krisi hori gainditzeko, gardentasuna areagotzea erabaki da, kodeen eta gobernu korporatiboaren bidez; horien artean informe COSO (finantza informazio fidagarria bermatzeko), Britania Handiako Cadbury informea (kode onei buruzko dokumentua), eta Espainian Olivencia 1998.urtean, eta Aldama 2003. urtean argitaratutakoak bereizten dira. (Moneva, eta Ortas, 2009).

Bigarren aldetik, ingurumenaren babeserako praktikak bereizten dira, non hauek ez daude informazio finantzarioak erregulatzen dituzten legeen barnean. Zenbaitetan, ingurumenari buruzko legeak mehatxuak bezala hartuak izan dira enpresen aldetik, horrela, posibleak jaitsiko zirelaren beldur. Ingurumeneko finantza-informazioaren

argitalpena arautzen duten kontabilitate-arauak nahiko berriak dira Espainian. Azken urteetan, enpresa-jarduerak ingurumenean eta gizartean izandako inpaktua murrizteko hainbat protokolo eman dira, hala nola, Kyoto protokoloa: honekin helburua, berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak %5,2 murriztea zen, pasatako 2008 eta 2012 bitartean, oinarri-urtea 1990 izaten. Hiru neurri berezi ziren. Lehenengoa: hitzarmena sinatu zuten herrialde guztiek ez zutela erantzukizun-maila berdina; bakoitzak iraganen eragindako kutsaduraren arabera konpromisua hartu behar zuen, emisioak murrizteko, protokoloaren 10. artikuluan ezarritako jarraibideekin bat egiten. Bigarren neurri bezala, klima-aldaketa moteltzeko, klima-aldaketara egokitzeko neurriak jasoko zituzten programa nazionalak eta, hala badagokio, eskualdekoak formulatu, aplikatu, argitaratu eta aldizka eguneratu behar zituzten. Hirugarren neurriaren ardura, garapen bidean zeuden eta dauden herrialdeei bultzada ekologikoa emateko baliabideak erraztu eta sustatzea zen. (Balairon, 2005).

2.2.3. “Tripple bottom line” ikuspegia

Jasangarritasuna hiru eremuetan oinarritzen den kontzeptua da: ekonomikoan, sozialean eta ingurumen arloan. Honek, triple bottom line kontzeptua beregain hartuko luke. Hiru arlo hauen garapenak, enpresa bat gestionatzeko modua aldatzen du, tradizioz, akziodunen onurarako balioa maximizatzerara bideratua dagona, eredu mikroekonomiko klasikoaren arabera. Informazio sozial eta ingurumenekoa emateko pausua, ekonomikoaz aparte, nahiko berria da, ez da izan XX. mende bukaera arte ohitura hau erakunde ezberdinetan ezarri izan den arte, memoria edo eta jasangarritasun txostenen ondorioz (Moneva, eta Ortas, 2009).

Triple bottom line ikuspegia erakundeek bere jarduerarekin garapen jasangarrian duten erantzukizunaren bisioa indartzen dute. Gizarteak erantzukizun bat eskatzen du, eta, horregatik, enpresak gai izan behar dute jarduera bakoitzeko konpromisoak eta lorpenak publikoki jakinarazteko eskatzen dituzten eragileei (Gray et al., 1996. kapitulua, 1 aipatua (Moneva, eta Ortas, 2009).

Horretarako, accountability printzipioan oinarritu behar gara, non honek “jakiteko eskubidea” bermatzen du, gizarteari eragin diezaioketen alderdiei dagokienez, hala nola natur ingurunea hondatzeari edo enpresaren injustizia sozialei dagokienez. “Jakiteko eskubide” hau, stakeholders-etan du eragina, organizazioaren interesak ordezkatzeko baitituzte. Erakunde baten accountability-ak ekintza baten berri emateko erantzukizuna eskatzen du, eta hemen sartzen da informazioaren jasangarritasun maila (Moneva, 2006).

Testuinguru horretan, profesionalak funtsezko zeregina dute bottom line honen neurketan eta informazioan. Alde horretatik, funtsezkoa da enpresak garapen jasangarriari egiten dion ekarpena islatzeko gai izango diren dibulgazio-tresnak garatzea. Konpainiak datu kuantitatiboak bakarrik argitaratzen zuten garaia amaitu da dagoeneko. Gero eta konpainia gehiagok argitaratzen dute informazio ez-finantzarioa memoria, txosten integratu edo bestelako txostenen bidez eta horrela banatzen da:

Taula 1: Gizarte eta ingurumen informazioa komunikatzeko mekanismoak

		Urteko txostena		Txosten bereizia
		Derrigorrezko informazioa	Borondateko informazioa	
Informazio finantzarioa		-Aktiboak, gastuak, balantzean dauden ingurumen arloko hornidurak eta kontingentziak, emaitzen banaketa eta Memoria	-Desglosea eta gastu, inbertsio, horidura eta kontingentzien azalpena - Erakundearen balio erantsia	- Balantze ekologikoa -Kostu ekologiko osoen kontabilitatea
Informazio ez finantzarioa	Kuantitatiboa	-Ingurumen inpaktuaren kuantifikazio -fisikoak - Langile Kopuruak	-Enpresaren ingurumen-inpaktuaren kuantifikazio fisikoa, grafikoekin, taulekin eta abarrekin lagunduta. - Lan-istripuen kuantifikazioa	Ingurumen-txostena: -Balantze ekologikoa. -Balantze soziala -Iraunkortasun-memoriak
	Kualitatiboa	- Ingurumen inpaktuaren edo ingurumen ekimenen deskribapena - Gizarte arriskuen kontrolaren deskribapena	-Ingurumen-inpaktuen eta ekimen zuzentzaileen deskribapena. -Laneko giroaren deskribapena.	-Produktuen deskribapen teknikoa, eraginak eta neurriak -Balantze soziala -Iraunkortasun-memoriak

Iturria: (Moneva, eta Ortas, 2009).

Informazio ez finantzarioa alde berriena da, hasiera batean informazio hau ematea borondatezkoa zen eta ondoren azalduko dudana lege berriaren argitalpenarekin, zenbait enpresei derrigorrezkoa suertatu zaie informazio honen berri ematea. Beraz, legeak aurreikusten duena laburbilduz, ondorengo baldintzak betetzen dituzten erakundeak, informazio honen berri eman behar dute.

- Informazio ez finantzarioa:

Abenduaren 29an, Merkataritza Kodeko 11/2018 Legea aldatzen zela argitaratu zuen BOEk, Kapital Sozietateen Legearen testu bateratua eta Kontu Auditoretzaren uztailaren 20ko 22/2015 Legea, informazio ez-finantzarioaren arloan. Bertan, enpresa batzuei aspektu ekonomikotik haratago doazen datuak emateko txosten bat egitea eskatu zuten. Orokorrean, enpresek ez dute soilik zenbat irabazten duten jakinarazi behar, baizik eta nola irabazten duten, alegia: (“Novedades sobre información no financiera y diversidad”, 2018)

- Informazio ez finantzarioa aurkezteko baldintzak
 - 500 langile baino gehiago
 - Interes publikoko erakundetzat hartzen direnak.

Bi ekitaldi jarraietan, hiru irizpide hauetatik bi gainditzen dituztenak:

- 1) Balantzearen aktiboa guztira: 20 milioi €
- 2) Negozio-zifraren zenbateko garbia: 40 milioi €
- 3) Ekitaldian, batez beste, 250 langile gutxienez

2021etik aurrera 250 langile baino gehiago dituzten enpresa guztiak derrigortasunaren barruan sartuko dira.

“Novedades sobre información no financiera y diversidad”, (2018) dokumentuan zehazten den moduan informazio ez finantzarioaren inguruan ondorengo aspektuak kontuan hartu beharko dira:

- Informazio ez finantzarioaren sailkapena:

Enpresa-ingurunearen deskribapena, antolaketa eta egitura, jarduten duen merkatuak, estrategiarekin lerrokatutako helburuak eta etorkizuneko bilakaeran eragina izan dezaketen faktore eta joera nagusiak jaso egin behar dira.

Irudia 1: Enpresek ezarri beharreko helburuak



Legeak ezarritako berrikuntza handietako bat, bost gai hauen prezisio eta sakonketa handiagoa izan da:

Indikatzaileak enpresa-jarduerara egokitu beharra daukate, eta materialtasuna, adierazgarritasun eta fidagarritasun irizpideak bete.

Informazioaren erabilgarritasuna errazteko, ezinbestekoa da indikatzaile estandarrak erabiltzea, informazio ez finantzarioarentzat zuzendua. Hauek Europar Komisioak baldintzatzen dituenak izan daitezke edo eta Global Reporting Initiative (GRI)-k eskainitakoak.



Iturria: “Novedades sobre información no financiera y diversidad”, 2018

- Informazio- ez finantzarioaren aurkezpena eta argitalpena:

Sozietateek bi aukerak dituzte informazio ez finantzarioa aurkezteko unean:

- Gestio txostenarekin informazio- ez finantzarioa txertatzea.
- Aparteko txosten bat egin, bertan informazio ez finantzarioa soilik ipiniko dena, bertan adierazi beharko da informazio hori, gestio- txostenaren parte dela.

Bi kasuetan, bai aparteko txostenean, eta bai kudeaketa-txostenean sartutako informazio ez-finantzarioaren egoerak, kudeaketa-txostenaren onarpen-, gordailu- eta argitalpen-irizpide berberak bete beharko ditu. Ondoren, sozietatearen administratzaileak behartuta daude urteko kontuak eta kudeaketa-txostena aurkeztera, gehienez ere hiru hilabeteko epean, sozietatearen ekitaldia ixten denetik zenbatzen hasita. Gainera, txosten hori eskuragarri jarri behar da konpainiaren webgunean, finantza-urtea amaitu ondorengo sei hilabeteen barruan, eta eskuragarri egon behar du bost urterako. Hala ere, kontutan eduki behar da, informazio ez finantzarioari buruzko txostena, eguneko ordenaz aparte bezala presentatu beharko da.

- Informazio- ez finantzarioa analizatzeko estandare ofizialak:

Enpresak internazionalki aukeratutako estandarrak erabili beharko dituzte informazioa prestatu eta argitaratzeko. Ondorengo indikatzaileak erabili beharko dituzte, informazioaren analisia burutzeko:

1. Global Reporting Initiative (GRI): Helburua enpresei laguntzea da ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren arloetan, hauetan eragina duten informazioa identifikatzen eta biltzen, bai eta horiek modu argian eta konparagarrian kudeatzen ere.
2. Nazio Batuen munduko ituna: Sindikatu, enpresa, eta organizazio ezberdinekin, Nazio Batuen Erakundearen helburua denak batera gizarte erantzukizun korporatiboan laguntzea da, inizatiba honen 10 printzipioekin onarpena ematen.
3. Integrated Reporting Framework (IR): Organizazioei inguruneari, negozio-ereduari, estrategiari, eta etorkizuneko ikuspegiei buruzko informazio integratua emateko aukera ematen die, finantza-alderdiak nahiz ez-finantzarioak kontuan hartuta.
4. Garapen Iraunkorreko Helburuak (ODS): Enpresa-mailan, 17 ODSeK esparru global bat eskaintzen dute erakundeek beren tokiko, eskualdeko eta munduko eragina ebalua dezaten. Erakundeei informazioa ematen lagundu eta, enpresa-estrategiaren barruan helburuak modu zabalagoan integratzeko aukera eskaintzen dute.

Horrenbestez, argi dago azken urteetan hainbat enpresa eta organizazio ezberdin, beraien jarduerari buruzko gero eta informazio gehiago argitaratzeko joera dutela, batik bat, jardueraren transparentzia hori gizarterentzat begi bistan uzteko. Hortxe dago aldaketarako pausua, hau da, neurri “berri” hau gure ongizatea bermatzeko egin dago, azken finean jarduera- enpresarialak sortzen dituen efektuak, positiboki eta negatiboki gure bizitzan oihartzuna baitakar. Gure eskubideen barruan dago zer arnasten, erosi edo eta sortzen dugun, gure jokamoldeek, bai handiek eta txikiek ondorio bat dakartelako. Beraz, ikus daitekeena da “materiala” kontzeptuak eman duen aldaketa, dena ez baitira zenbakiak eta paper batean idatzitako helburu ekonomikoak, giza eskubideak ezin baitira zenbakiak ez, horregatik beharrezkoa suertatzen da aldaketa etiko bat egitea enpresa-jarduera barnean, horregatik da beharrezkoa materiala dena baino urrutiago joatea, horregatik materialtasunetik, transparentziarako saltoa.

2.3.Global Reporting Initiative (GRI)

Munduak aldatu egin du enpresa- ikuspegia, ingurumena eta soziala denaren alderdiak kontutan hartzeko ahaleginak gero eta gehiago dira, non tradizioz finantzen ikuspegitik ebaluatu eta erabakitzen zen horretan. Egoera berri honetan, erakunde ezberdinek, gehienak nazioartean garrantzia dutenak, enpresei nola jardun erakusten ari zaie, nola lana egin eta nola informatu era integratu batean. Integrazio prozesu honek negozioarako funtsezkoak diren jarduerekin zerikusia duten gaiak zabaltzeko txostenak egitea suposatzen du. Prozesu honetan, jasangarritasun eta “Triple Bottom Line” kontzeptuak irmoki geratu dira gaur egungo gizartean. (Rodríguez, 2007).

Ingurumena babestearen aldeko munduko presioa handitu egin da, eta informazioaren kalitateak gero eta presio handiagoa eragiten du (batez ere finantza-krisi eta ustelkeria kasuek eragindakoa). Horren ondorioz, ia nabaria ez den aldaketa bat gertatu da: borondatezko praktikak, nahitaezkoak izatera pasatu dira. Gero eta gehiago dira ingurumen eta arlo sozialeko lege, dekretu eta arauak, hala nola, hauekin batera informe integratuak egiteko bideratuak. (Rodríguez, 2007)

2.3.1. Lehen hastapenak

Global Reporting Initiative web gunean ikus dezakegun moduan, Bostonen (AEB) eratuia izan zen 1997.urtean. Organizazio hau gobernuz kanpoko erakunde eta irabazi asmorik gabeko Tellus institutua, sozialki arduratsua diren ekonomien eskutik (CERES), eta Nazio Batuen ingurumeneko programaren eskutik (PNUMA) sortua izan zen. CERES enpresako zuzendari exekutibo ohia, Robert Massie doktorea, eta Allen White bitarteko zuzendari exekutiboa, aitzindariak izan ziren ingurumen-txostenak aurkezteko esparru bat ezartzen 90eko hamarkadaren hasieran, eta, ondorioz, 1997an Jasangarritasun Txostenak argitaratzeko ekimenaren proiektua bideratu zuten. Helburua enpresak CERES Printzipioak jarraituko zituztela ziurtatzea zen ingurumen-jokabide arduratsu baterako.

GRI gidaren lehen zirriborroa 1999. urtean argitaratu zen, 1997-1998 urteetako lantze- eta doikuntza-prozesu baten ondoren; eta, 2000. urtean argitaratu zen hasierako bertsioa. 1999.urtean GRI txostenaren lehen hastapenak eman zirenean, munduko konpainia nagusien %24 inguruk ingurumen-txostenak egiten zituzten. Nahiko datu ona zen garaiko egoerarentzat, 1996an % 17koa eta 1993an % 13koa besterik baitziren. Hogei bat konpainia hasi ziren estandar berriaren arabera lehen urratsak ematen. (Archel, 2003).

GRI-ak bere zuzendaritza Amsterdam-en ireki zuen ekonomia eta gizarte arloetako estandar osatuagoak argitaratuz (orain artekoak urriak), eta ofizialki PNUMA-ren erakunde laguntzaile gisa bilakatu zen. GRI-ak lau ofizina (eskualde) ditu munduan zehar: Australia, Brasil, Txina, India eta Estatu Batuak, non sare hau 600 organizazio baino gehiagok osatua dago, eta 30.000 pertsona inguruk osatzen dute sektore eta interes taldeen artean. Urrats hauek guztiz 2002. urtean garapen prozesu bat jasan zuten, gidaren bigarren atala sortuz, GRI G2, honekin, enpresa askok txostenen elaborazio prozesua

handituz. Gidaren bigarren belaunaldi hau, G2, Johannesburgoko Garapen Iraunkorrari buruzko Munduko Goi Bileran aurkeztua izan zen (Lamborghini, eta Sukoharsono, 2012).

GRI-aren eskaria etengabe hazten joan zen iraunkortasunari buruzko txostenak aurkezteko, eta hori gidalerroen hirugarren belaunaldia (G3) abiaraztea bultzatu zuen. Enpresa-munduko, gizarte zibileko eta mugimendu sindikaleko 3.000 adituk baino gehiagok parte hartu zuten G3ren garapenean. 2006ko urrian G3 bertsioa argitaratu zen, non eredu berri honetan “reporting”-printzipioak eta informazioaren kalitatearen printzipioak sartu ziren gaur egungo GEK-aren txostenak garatzeko. Estandare berri hauen helburua jasangarritasun txostenak nabarmenagoak, konparagarriagoak, egiaztagarriagoak eta organizazioaren jarduerara bideratuagoak egitea izan zen. (Blasco, eta Gallego, 2009).

Jasangarritasunari eta Gardentasunari buruzko lehen Munduko Konferentziak GRI-ren irismena indartu zuen. Konferentzia Amsterdamen egin zen, eta 65 herrialdetako 1150 parte-hartzaile erakarri zituen, enpresen, finantza merkatuen, gizarte zibilaren, langileen, gobernuaren, aseguru hornitzaileen eta udalerrien hainbat ordezkari biltzen. Parte-hartzaileen erdiak, Europatik edo Ipar Amerikatik etorritakoak ziren, eta 250, berriz, garapen bidean zeuden 37 herrialdetatik. G3 Munduko Konferentzia ondoren, GRI-k bere estrategia eta txostenak aurkezteko esparrua gero eta gehiago hedatzen hasi zen, aliantza boteretsuak sortuz. (Blasco, eta Gallego, 2009).

2011. urtean, GRI G3 bertsioaren gidalerroak eboluzio txiki bat jasan zuten eta GRI G3.1 argitaratu zen, tokiko komunitatean, giza eskubideetan eta generoa bezalako aspektuak txertatzen, hala, iraunkortasun-txostenaren edukia definitzeko modu eta kalitatea bermatzeari buruzko azalpen gehigarria barneratuz. Ildo beretik, bi urte beranduago, GRI bertsio berria argitaratu zen, oraingoan GRI G4 bezala ezagutzen zena; esparru askotako “kolaboratzaile” ezberdinek parte hartu zuten bertsio honen garapen prozesuan. Bertsio berri honen aldaketarik garrantzitsuena materialtasunaren analisiaren azterketa sartzea izan zen. (Bustami, Nasruddin, eta A’mmaari, 2013).

2014. urtean, lege-araudia aldatuko zuen bi ekintza garrantzitsu gertatu ziren. Alde batetik, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak informazio ez-finantzarioa eta aniztasunari buruzko informazioa hedatzeko 2014/95/EU zuzentaraua ezarri zuten; eta bestetik, “Global Sustainability Board (GSSB) sortu zen 2016ean, GRI araudiaren azken bertsioa izango litzatekeena, non hau, ez da G5 bezala definitzen. Azken eredu honen eskutik, zuzentarauak ezarritako aldaketak txertatzen dira, beti ere, informazioaren konparagarritasuna eta kalitatea bultzatzeko helburuarekin, gardentasuna areagotzeko, alegia. “GRI Standards” bertsioa 2018ko uztailaren 1ean indarrean sartu zen, eta horrela jasotzen du abenduaren 28ko 11/2018 Espainiako legeriak. (Semper, d.g.).


GRI-k ere bere bosgarren Mundu Konferentzia ospatu zuen 2016an. 73 herrialde ezberdinetako jasangarritasunaren ia 1200 lider eta profesional Amsterdamen bildu ziren ideia berriak sortzeko helburu komun batekin: enpresen dibulgazioaren aro berria sortzea.

Laburbilduz, GRI-a jasangarritasun txosten bat egitea da. Txosten edo memoria horretan, informazio ez-finantzarioak jasotzen dituen alderdi edo gai bakoitzaren (ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak) helburuak, politikak eta eraginaren kudeaketa zehatz-mehatz azaltzen da. Gaur egun, erakunde handiek eta interes publikokotzat jotako erakundeek bakarrik aurkeztu behar dute informazio ez-finantzarioaren egoera. ETE-ek borondatez egin dezakete (Semper, d.g.)

2.3.2. Espainian izandako bilakaera eta hedapen prozesua

Mundu mailan, GRI-aren oinarrietan erregistratutako jasangarritasun txostenak 10 urteren buruan 9 izatetik, 1.491 izatera pasa ziren, ondorengo grafikoan ikusten den bezala. Honek adierazten du enpresak gero eta joera handiagoa dutela Gizarte Erantzukizunaren arloan egiten dituen jardueren berri emateko, jasangarritasun-memorien eta GRI-ko gidaliburuek hartu duten garrantzia, laguntza-tresna izaten. (Ogando, eta Blanco, 2012).

Grafikoa 1: Mundu mailan argitaratutako txostenak




Iturria: (Ogando, eta Blanco, 2012)

Espainian GRI ereduaren arabera jasangarritasun-memoriak igorri dituzten enpresakopurua nabarmen handitu zen 2001-2007 aldian. Azpimarratzekoa da 2006ra arte, memoriak “in accordance” eredu jarraituz egiten zituzten enpresen proportzioa oso handia izan zela, hain zuzen ere, 2002an memorien %31ak “in accordance” ereduarekin argitaratzen ziren, eta 2003 eta 2004 urteetan, ehuneko hori %75era igo zen. Bestalde, G3 ereduaren sarrerarekin "in accordance" modalitatean egiten zituzten enpresen proportzioa jaitsi egin zen %5 inguru, 5 enpresak soilik jaulki zuten iraunkortasun-memoria "in accordance" modalitatean. Nahiz eta Espainiaren urratsa herrialde bezala berantiarra izan den jasangarritasun txostenei dagokienez, 2009.urtean lehen postuan ipintzea lortu zuen, beste munduko herrialdeekin konparatuz gero. (Alvarez, eta Garayar, 2003).

Motibazio asko eta askotarikoak izan dira Espainiako enpresak jasangarritasun txostenak argitaratzeko izan duen bilakaeran parte harturiko faktoreak. Ondorengo grafikoan 2008 eta 2016 urteetan GRI ereduarekin jasangarritasun txostenak argitaratzeko eboluzioa ikusten da.

Grafikoa 2: 2008-2019 bitartean argitaratutako jasangarritasun txostenak




Iturria: (GRI web orritik hartutako datuak aipatua Borup, eta Mayoral, 2018)

Espanian, gorakada horren arrazoietako bat, jasangarritasuna arautzeko lehen urrats handia enpresen Gizarte Erantzukizunaren Estatuko Kontseilua sortu zenean eman zen (CERSE). Enpresen gizarte-erantzukizuneko politikak eta praktikak sustatzeko eratu eta arautu zen. Gai honi buruzko lehenengo legea, 2008ko otsailaren 28ko 221/2008 Errege Dekretuan ezarria izan zen. Hala ere, bultzada garrantzitsuena 2011n iritsi zen, Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen ezarpenarekin. Lege honek enpresa publikoei zein pribatuei eragiten die. Bestalde, 2017ko azaroaren 24an, Europako Zuzentaraua ezarri zen Espainiako jasangarritasun txostenen aplikazioa arautzen zuen legeren gainera. (Borup, eta Mayoral, 2018).

Grafiko honetan, Espainian ETEak, jasangarritasun txostenak GRI ereduan argitaratzeko eboluzioa ikus daiteke. Kontuan hartuta zenbait kasutan ez dutela beharrezkotzat jasangarritasun memoriak argitaratzea, nabarmentzeko da ETEak indarrez egiten dutela gora, batez ere presentzia handia edukiz 2012. urtean, txosten kopuru gehienak argitaratuz. Bestalde, hurrengo urteetan jaitsiera nabarmen bat pairatzen da, ia laurogei txostenetik, berrogeita bat-era jaitsiz.

Grafikoa 4: ETEak 2008-2017 urteetan argitaratutako jasangarritasun txostenak



Taula 2: ETEak 2008-2017 urteetan argitaratutako jasangarritasun txostenak


Urtea	Nº	%
2008	18	4%
2009	35	7%
2010	50	10%
2011	61	13%
2012	79	16%
2013	61	13%
2014	55	11%
2015	44	9%
2016	41	8%
2017	41	8%
Guztira:	485	100%

Iturria: (GRI datu basetik hartutako datuak. Egileak egina)

Sektoreka aztertuz gero 2008-2017 urteetan zehar, jasangarritasun txostenak argitaratutako kopurua desberdina izan da sektorearen arabera, ikusten den bezala, finantza sektorea izan da ehuneko altuena izan duena denbora tarte horretan, gehienbat hauek, talde enpresarial internazionalizatuak dira: BBVA, Telefonica, Iberia, Inditex...

Taula 3: Jasangarritasun txostenen argitaratze- Garapen prozesua - *Grafikoa 5: Jasangarritasun txostenen argitaratze- garapen prozesua*

2008-2017		
Sektorea	Nº	%
Eraikuntza	10	10%
Irabazi asmorik gabekoa	8	8%
Finantzak	52	53%
Turismoa	5	5%
Energia	6	6%
Besteak	17	17%
Guztira	98	100%



Iturria: (GRI datu basetik ateratako datuak. Egileak egina)

Gaur egun gero eta enpresa gehiago dira jasangarritasun txostenak kanpoko norbaiten egiaztapena bilatzen dutenak. GRI-aren lehenengo pausuak abiapuntutzat hartuz, 2005-2006 urteak izan ezik, nahiko goraka handia izan zuen egiaztatze prozesu honek. Izan ere, ez da harritzekoa datu hau, GRI ereduaren bigarren fasetik hirugarren faserako urteak izan baitziren (Ogando, eta Blanco, 2012).

Azken urteetan, Espainian, enpresa txikiak dira beraien memoriak gutxien egiaztatzen dituztenak (%31), eta enpresa ertainak dira egiaztatze ehuneko handienak dituztenak (%48), enpresa handien gainera (%41). Herrialdeka aztertuz gero, Espainia gailurrean egongo litzateke beste herrialdeekin konparatuz gero; enpresen %53ak jasangarritasun txostenak hirugarren batek egiaztatzen ditu. Bigarren postuan Suedia egongo litzateke (%51), Italia (%46), Herbehereak (%38), eta Erresuma Batua (%35) hurrenez hurren. Bestetik, egiaztatze prozesu hori egiten ez dituzten herrialdeak, orokorrean, Ekialdeko Europan kokaturikoak izango lirateke. (Benau, García, eta Grima, 2012).

Kontuan hartu behar da, beraz, garrantzitsua bilakatu dela hirugarren batek txostenetan jasotako informazioa modu independentean berrestea, GRI-aren fidagarritasun printzipioarekin lotua egonik. Bestalde, aldaketa bat nabaria izan da egiaztatze prozesu honetan; hasiera batean, egiaztatze prozesu hori aholkulariei eskatzen zitzaien, baina 2003.urtean auditorearen figura agertu zenetik arlo honetan, azken hauen presentzia egiaztapenaren munduan hazten joan da, aholkularien gainera ipiniz. Gaur egun, aldea txikia da, nahiz eta auditoretzak proportzio handiagoa duten. Jasangarritasun txostenak kanpotik egiaztatzen dituzten enpresek hainbat auditoretza-enpresaren zerbitzuak erabiltzen dituzte; horien artean, KPMG eta Deloitte; eta aholkularitza-enpresen artean AENOR da nagusi. (Ogando, & Blanco, 2012).

2.4. Global Reporting Initiative: jasangarritasun txostenaren edukia

GRI “Standards” eredu berri hau, G4 bertsioaren eboluzioa izango litzateke, eredu malguago bat, helburu argiak, zehatzak eta hiztegi erraz batekin osatua. Horrela, helburua araudi berri hau edozein organizazioen eskura egotea da, tamaina, sektorea edo eta kokalekua kontutan hartu gabe.

GRI berri honen egiturari dagokionez, serie batzuen bitartez azaltzen da, bi modulu garrantzitsuetan ezberdintzen: Estandare Unibertsalak, eta Estandare Tematikoak. Estandare Unibertsalak (100 seriea), hiru ataletan banatzen dira: oinarriak atala (101), eduki orokorrak atala (102) eta kudeaketa ikuspegia atala (103). GRI 101-ek txostenak egiteko oinarriak jasotzen ditu. Bertan deskribatzen dira edukiaren eta kalitatearen printzipioak eta horiek egiteko beharrezkoak diren baldintzak. Ezinbestekoa da jasangarritasun memoria idatzi aurretik, organizazioek beraien txostenak GRI estandar eta zein aukeraren arabera (funtsezkoa edo zehatza) erabiliko duten erabakitzea. “Zehatza” aukeratuz gero, enpresak GRI 102 edukiaren barruko eduki guztia eskaintzera derrigortuta dago; eduki horietako batek informazio gabezia edukiz gero, omisio horren zergatia azaldu beharko du. Bestalde, “funtsezkoa” aukerak, erakundearen izaera, gai materialak, horien inpaktuak eta nola kudeatzen diren ulertzeko gutxieneko informazioa biltzen du. (Global Sustainability Standards Board, 2016a aipatua Semper, s.f).

Aipatutako bigarren dokumentuak, GRI 102 (Eduki Orokorrak), enpresaren profila, estrategia, interes-taldeen parte-hartzea, etika, gobernantza eta txostena egiteko prozesuak zehazten ditu. Guztira 56 edukik osatzen dute; horietatik 13 erakundearen profilari buruzkoak dira, 2 estrategiari buruzkoak, 2 etikari buruzkoak, 22 gobernantzari buruzkoak, 5 interes-taldearen parte-hartzeari buruzkoak eta, azkenik, 12 txostenak egiteko praktikei buruzkoak. GRI estandarren arabera egindako txosten guztiek, GRI edukien aurkibidea izan beharko du. Aurkibide hori zati zehatz batean aurkeztuko da, eta argitaratutako eduki guztien (txostenean edo argitaratutako beste material batzuetan) orrialdearen edo URLaren zenbakia jasoko du, bai eta, hala badagokio, ez-egitearen arrazoiak ere, beharrezko edukia ematerik ez badago. (Global Sustainability Standards Board, 2016c aipatua Semper, s.f).

Eta, azkenik, GRI 103-k (Kudeaketa Ikuspegia) enpresak nola eman behar duen informazioa ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-baliabideetan azaltzen du, bere jarduerak duen inpaktu hori azalduz, hau da, nola kudeatzen dituen inpaktu horiek. Hemen sartzen da materialtasunaren kontzeptua. GRI estandarren arabera txostena egiten duten enpresak behartuta daude beren kudeaketa-ikuspegiaren berri ematera. (Global Sustainability Standards Board, 2016b aipatua Semper, s.f).

Estandar tematikoei dagokionez, hauek 200, 300 eta 400 serie-etan oinarritzen dira. Enpresak dituen ekonomia, ingurumen- eta gizarte-gaiei buruzko informazio espezifikoak prestatzeko erabiltzen dira. Azpimarratu behar da erakundeak ez daudela behartuta estandar tematiko guztiekin lan egitera, baizik eta beren jarduerak modu materialean

eragiten dienekin bakarrik. Materialtasun-serie bakoitzak hainbat estandar ditu, eta horiek gai bakoitzerako eduki espezifikotan banatzen dira. Guztira 33 estandar daude, eta edukiak honela banatuta daude: 200 serieari (ekonomikoak) 6 estandar eta 13 eduki dagozkie; 300i (ingurumena) 8 estandar eta 30 eduki ditu; eta 400i (sozialak) 19 estandar eta 34 eduki (Semper, s.f).

Laburbilduz, GRI ereduaren burutzen diren txostenak, egitura hau izan behar du: (Semper, s.f)

1. 100 serieko estandare unibertsalen jarraipena egitea.
 - 101 serieak eskatzen dituen printzipioak eta eskakizunak betetzea Iraunkortasunari buruzko txostena idazteko.
 - Enpresaren, interes-taldearen, ordainketa politiken eta 102 serieko gainerako edukien deskribapena non eduki horiek nahitaezkoak izango diren memoria GRI arauen arabera egitea aukeratu duten enpresentzat, hautatutako metodoa (funtsezkoa edo zehatza) edozein dela ere.
2. Eragina edo inpaktu bat sortzen duten gai material guztiei buruz nahitaez informatzea.
3. 2. puntuko materialtasunaren kudeaketa azaltzea, bai eta kudeaketa-planetan egiten den edozein aldaketa ere.
4. Aurkibidea egitea (nahitaezkoa), azalduz non aurkitzen diren serie unibertsal eta tematikoko serieen edukien paragrafoak.
5. Auditore independente baten txostenaren egiaztatze prozesua- egitea.

2.5 . Global Reporting Initiative: indikatzaileak

Lehen esan bezala, GRI memoria bi zatitan banatzen da, alde batetik estandare unibertsalak eta bestetik tematikoak izango liratekeenak. Oraingo honetan, tematiko horiek azaltzea da helburua, hau da, ekonomiara (200), ingurumenera (300) eta sozialera (400) bideratutakoak soilik. Lanaren helburua korrupzioaren kontrolerako enpresek ezarritako politiken azterketa egitea denez, GRI txostenen barruan honen inguruan aurki ditzakegun indikatzaileen analisia bideratuko dut.

GRI-k bere web orrian argitaraturiko azkeneko bertsioan, korrupzioaren inguruko indikatzaileak arlo ekonomikoaren barruan txertatu zituen, non orain arte soziala denaren barruan aurkituko liratekeen. Hori dela eta, ingurumen, ekonomiko eta arlo sozialaren barruan zer motako indikatzaileak dauden azalduko ditut ondorengo lerroetan, taula batzuen bitartez, antolatu dut informazioa.

2.5.1. Ingurumen arloa aztertze indikatzaileak

GRI estandarren testuinguruan, ingurumenaren dimentsioa oso garrantzizkoa da, gehienbat, organizazioak zer nolako eragina duen kontrolatzeko. Indikatzaile hauekin, lurra, airea, uraren, eta ekosistemarenganako inpaktua analizatzen da.

Taula 4: Ingurumenari bideratutako indikatzaileak

Indikatzaileak: Tematika	Edukia
301 - Materialak	Eduki honek informazioa eskain dezake organizazioak erabiltzen dituen materialak eta hauen kudeaketak zer nolako inpaktua duen baliabide naturalengan.
302 - Energia	Eduki honek informazioa eman dezake erakunde batek energiarekin lotuta dituen inpaktuei buruz eta inpaktu horiek kudeatzeko moduari buruz, modu eraginkorrean erabiltzen diren ala ez aztertuz.
303 - Ura eta efluenta	Eduki hau erakundeak urarengan sortzen dituzten inpaktu esanguratsuak hobeto ulertzen eta komunikatzen eta kudeatzen laguntzeko diseinatu dira.
304 - Biodibertsitatea	Eduki honek erakunde batek biodibertsitatearekin lotuta dituen inpaktuei buruz eta horiek kudeatzeko moduari buruzko informazioa ematen du, ekosistema naturalen biziraupena bermatzeko.
305 - Emisioak	Eduki honek organizazio baten jardueraren ondorioz bai kanpo ikuspegi batetik eta baita barne ikuspegi batetik sorrarazten dituen ondorioen analisia burutzen du.
306 - Efluyenteak eta hondakinak	2018tik aurrera, GRI - 303 atalaren barnean kokatzen dira
307 - Ingurumena betetzea	Eduki honek ingurumena betetzearen gaia jorratzen du eta ingurumenaren arloko legerien eta araudien antolaketa bat betetzea barne hartzen du analisi bat egiten.
308 - Hornitzaileen ingurumen ebaluazioa	Eduki honek hornikuntza-katearen ingurumen-inpaktu negatiboak saihesteko eta murrizteko erakundeen ikuspegiari buruzko informazioa eman dezakete.

Iturria: [GRI standards](#). Egileak egina

2.5.2. Arlo soziala aztertzeko indikatzaileak

GRI estandarren testuinguruan, iraunkortasunaren dimentsio soziala lotuta dago erakunde batek jarduten duen gizarte-sistemetan duen eraginarekin; esan liteke erakunde baten alderdirik gizatiarrena izango litzatekeela.

Taula 5: Arlo sozialera bideratutako indikatzaileak

Indikatzaileak: Tematika	Edukia
401 - Lana	Eduki honek erakundeek lana edo enpleguak sortzeari buruz duten ikuspegia, bai eta ematen dituen lan-baldintzak ere jorratzen ditu.
402 - Langile eta enpresa arteko erlazioak	Eduki honek erakundeek langileekin eta haien ordezkariekin dituzten praktikak, eta eragiketa-aldaketen arteko komunikazioa lantzen du
403 - Osasuna eta segurtasuna lanean	Eduki honek jarduera ekonomikoa ateratzeko beharrezkoa baldintzak betetzen diren edo ez jorratzen du.
404 - Prestakuntza eta irakaskuntza	Eduki honek erakundeak enplegatuen prestakuntzari eta gaitasunen hobekuntzari buruz eta garapen profesionalaren ebaluazioei buruz duen ikuspegia barne hartzen du.
405 - Aniztasuna eta aukera berdintasuna	Eduki honek erakundearen ikuspegia lantzen du, laneko aniztasunari eta aukera-berdintasunari dagokienez.
406 - Diskriminazio eza	Eduki honek organizazioak, bere langile guztiei modu justu eta egokian tratatzeari buruzko estandarrak analizatzen ditu.
407 - Elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiboa	Eduki honek langilearen elkartzeko askatasuna jorratzen du, erakundearen baimena eduki gabe.
408 - Haur - lana	Eduki honek haur lanaren abolizioa eskatzen du, izaten helburua horrelako praktikak berrestea.
409 - Lan behartua	Eduki honek nahitaezko edo nahitaezko lanik ez izatea oinarrizko giza eskubidea dela bermatzen du.
410 - Segurtasuna bermatzeko praktikak	Eduki honek segurtasun-langileek hirugarrenetikiko duten jokabidean eta indarra gehiegi erabiltzeko edo giza eskubideen beste arau-hauste batzuk egiteko balizko arriskuan zentratzen da.
411 - Herri indigenen eskubideak	Estandar honen edukiak informazioa eman dezakete erakunde batek herri indigenen eskubideei dagokienez dituen eraginei buruz eta eragin horiek kudeatzeko moduari buruz.
412 - Giza eskubideen ebaluazioa	Eduki hau giza eskubideetan murgiltzen da, erakundeentzako jokabide arduratsuaren itxaropenak finkatzen dituen nazioarteko estandarra da.

413 Komunitate lokalak	-	Estandar honen edukiek informazioa ematen dute erakunde batek tokiko komunitateekiko dituen inpaktuei buruz eta inpaktu horiek kudeatzeko moduari buruz.
414 Hornitzaileen ebaluazio soziala	-	Eduki hau organizazioak bere jarduera, produktu eta zerbitzuen ondorioz hornitzaileekin duten harremanengan sortzen dituen inpaktuetan murgiltzen da.
415 - Politika publikoa		Eduki hau erakundeek politika publikoaren garapenean parte hartzea, lobbying-a eta alderdi politikoei, egindako ekarpen finantzarioak bezalako jardueren bidez jorratzeaz hitz egiten du.
416 - Bezeroen osasuna eta segurtasuna		Eduki hau, erakundeek produktu edo zerbitzu baten bizi-zikloan osasuna eta segurtasuna bermatzeko egiten dituzten ahalegin orokorrak eta bezeroen osasunari eta segurtasunari buruzko borondatezko araudi eta kodeak betetzea aurreikusten du.
417 - Marketina eta etiketa		Eduki honek produktuen eta zerbitzuen informazioa eta etiketatzea jorratzen ditu, bai eta marketineko komunikazioak ere
418 Bezeroaren pribatizatzea	-	Eduki honek bezeroaren pribatutasuna jorratzen du, bere identitatea salbu egoteko tresnak eskainiz.
419 - Betetze sozioekonomiko a		Eduki hau nazioarteko adierazpenak, konbentzioak eta itunak, eta nazioko, eskualdeko eta tokiko araudiak betetzez hitz egiten du.

Iturria: [GRI standards](#). Egileak egina

2.5.3. Arlo ekonomikoa aztertzeko indikatzaileak

GRI estandarren testuinguruan, jasagarritasunaren dimentsio ekonomikoa lotuta dago erakunde batek bere interes-taldean baldintza ekonomikoetan eta tokiko, nazioko eta munduko sistema ekonomikoetan dituen eraginekin. Hau ez da erakunde baten finantza-egoeran zentratzen. Serie ekonomikoan (200) sartutako estandarrek interes-taldean arteko kapital-fluxua eta erakunde batek gizartean dituen eragin ekonomiko nagusiak jorratzen dituzte.

Taula 6: Arlo ekonomikora bideratutako indikatzaileak

Indikatzaileak: Tematika	Edukia
201 - Jarduera ekonomikoa	Eduki honek jarduera ekonomikoaren gaia jorratzen du. Erakundeak sortutako eta banatutako balio ekonomikoa, zehaztutako mozkin-planarekin lotutako betebeharrak, edozein gobernutik jasotzen duen finantza-laguntza eta klima-aldaketaren ondoriozko finantza-ondorioak hartzen ditu barne.

202 - Merkatuko presentzia	Eduki hau sexuen arteko desberdintasunak garatzen ditu merkatuan, hala, baita ere organizazio barnean genero desberdintasunen ondorioz sor daitezkeen aldaketak aztertzen dira.
203 - Zeharkako eragin ekonomikoa	Erakunde batek azpiegitura eta zerbitzuetan egindako inbertsioek bere interes-taldeetan eta ekonomian duten eragina aztertzen du.
204 - Eskuratzeko praktikak	Eduki hau erosketak tokiko kokalekuan egitearen inguruan murgiltzen da, eskualdeko hornitzaileen alde eginez, zeharkako inbertsioak erakarriz, horrela, ekonomia lokal egonkorra sustatzeko helburuarekin.
205 - Ustelkeria aurkako praktikak	Eduki honek ustelkerian zentratutako arriskuaren ebaluazio bat egiten du.
206 - Lehia desleiala	Informazio hau lehia desleiala eta lehia askearen aurkako arautzeko nazioko edo nazioarteko legerietan xedatutakoaren arabera hasitako ekintza juridikoekin lotuta dago.
207 - Fiskalitatea	Eduki honen gaia honako hau da: erakunde baten ikuspegi fiskalak nola zehazten du honen betetze fiskal, enpresa-jarduerak eta itzaropen etikoak, sozialak eta garapen jasangarri maila.

Iturria: [GRI standards](#). Egileak egina

Azken hauetan ikus dezakegu 200 serial-aren azkeneko hiru indikatzaileak (205, 206, 207) organizazio baten korrupzioa saihesteko tresnen azterketa egiten duela, horietako bakoitza gai batean enfokatu.

Argi geratu zaigu GRI-a bi zatitan banatzen dela; alde batetik, eduki unibertsala izango litzatekeena (GRI 101, 102, 103) eta eduki tematikoa izango zena (GRI 200, 300, 400). Hauetako eduki bakoitzak, “eskakizunak”, “gomendioak” eta “jarraibideak” atalak baneratzen dituzte: “eskakizunak” atala beti egongo da, azken finean erakundeak eman behar duen informazioari buruz ari da; “jarraibideak” atalak, eskakizun horiek betetzeko, azaltzeko... moduak aurreikusten dira edo eta adibideren bat txertatzen da; “gomendioak” atalak aldiz, ez da beti aurkitzen, kasu batzuetan soilik, eta informazioa emateko aukera bat bezala agertzen da, ez du erakundea derrigortzen.

Nire lanaren muina gehienbat estandare tematiko horien azterketa egitea izango da, korrupzioari bideratutakoak hain zuzen ere, horregatik, ondorengo orrietan korrupzioa saihesteko indikatzaileen azalpena burutu dut, indikatzaile horietako bakoitzaren azpi adierazleak zer nolako irismena duten azalduz. Ondoren, kudeaketa ikuspegiaren nondik norakoak esplikatzen ditut, GRI 103-a hain zuzen ere. GRI indikatzaile guztientzat erabilgarria suertatzen da, kudeaketa ikuspegia indikatzaile mota bakoitzean nolakoa izan behar duen aztertzeko erabiltzen da. Hortaz, GRI hauetako bakoitza, eta dagokien

azpiatalak behar bezala azaltzeko, GRI-aren webgunean lortutako informazioaz baliatuz, “GRI Standards” gidak aurreikusten dituen baldintzak ondorengoak dira:

2.5.3.1. Korrupzioari bideratutako indikatzaileen azterketa

1. GRI – 205 → Ustelkeria aurkako praktikak

205 -1 Korrupzioarekin erlazionaturiko azterketak:

Eskakizunak. Erakundeek honako informazio- hau aurkeztu behar dute:

- a. Korrupzioarekin eta arriskuekin lotuta dauden ebaluatutako eragiketen kopurua eta ehunekoa.
- b. Korrupzioarekin eta arriskuaren ebaluazioaren bidez identifikatutako arrisku esanguratsuak.

Jarraibideak:

Eduki honek korrupzioa oinarri bezala edukiz, egon daitezkeen arriskuen ebaluazioa beregain hartzen du. Korrupzioari buruz hitz egitean, garrantzitsua da ipintzea zenbat ekoizpen lerro, biltegi edo beste jarduera batzuk dauden. Hala, zenbat fabrika eta eragiketa burutzen diren, arriskuaren eboluzio - maila aztertzeko, horietako bakoitzean. Erakundeari ustelkeriari aurre egiteko politikak eta prozedurak diseinatzen ere lagun diezaioke.

205-2 Korrupzioaren aurkako politikai eta prozedurei buruzko komunikazioa eta prestakuntza

Eskakizunak. Erakundeek honako informazio- hau aurkeztu behar dute:

- a. Korrupzioaren kontrako politikak jakinarazi zaizkien gobernu organoaren kide totala eta ehunekoa eta erakundearen korrupzioaren kontrako prozedurak, eskualdeka banatuta.
- b. Erakunde barruan ustelkeriaren aurkako politikak eta prozedurak jakinarazi zaizkien enplegatuen kopuru osoa eta ehunekoa, lan-kategoria eta eskualdeka banatuta.
- c. Erakundearen korrupzioaren aurkako politikak eta prozedurak jakinarazi zaizkien bazkide kopurua, negozio-bazkide motaren arabera eta eskualdeka banatuta. Erakundearen korrupzioaren aurkako politikak eta prozedurak beste pertsona edo erakunderen bati jakinarazi zaizkion deskribatzea.
- d. Korrupzioaren aurkako prestakuntza jaso duten gobernu-organoko kideen kopurua eta ehunekoa, eskualdeka banakatuta.
- e. Korrupzioaren aurkako prestakuntza jaso duten langileen kopurua eta ehunekoa, lan-kategoriaren eta eskualdearen arabera banakatuta.

Jarraibideak:

Aurreko informazio guztia betetzeko GRI-k adierazten du, komunikazioa eta formazioa enpresan barnean eta kanpoan ezinbestekoak direla, korrupzioari aurre egiteko bidean.

Gomendioak:

Alde batetik, GRI 405en 405-1 edukian erabilitako informazioan oinarritzea gomendatzen du: aniztasuna eta aukera-berdintasuna gobernu organoan, administrazio batzordean, zuzendaritza batzordean edo eta erakunde ez korporatiboa bezalako eremuak identifikatzeko, baita ere langile kategorია eta bertako langile kopurua. Bestetik, “negozio-bazkide” guztien kopurua estimatzea.

205-3 Gertatutako korrupzio kasuak eta hartutako neurriak

Eskakizunak. Erakundeek honako informazio- hau aurkeztu behar dute:

- a. Baieztatutako korrupzio-kasuen guztizko kopurua eta izaera.
- b. Baieztatutako kasuen artean, enplegaturen bat korrupzioagatik kaleratu edo dagokion diziplina-neurriak hartu direnen informazioa.
- c. Enpresarekin zerikusia duten arau-hausteengatik, negozio-bazkideekin kontratuak deuseztatu edo berritu ez direnean baieztatutako kasuen guztizko kopurua.
- d. Korrupzioarekin lotutako, erakundearen edo langileen aurka jarritako kasu juridiko publikoak eta horien emaitzak.

Jarraibideak:

Eduki hau hobeto ulertzeko, esan beharra dago interes taldeak erakunde batean “gorabeherak” gertatzearen “alde” daudela, horrela, ikusteko zer nolako erantzuna duen gaizki egindako ekintza batek, eta horren kudeaketa ikusteko. Ustelkeriarekin lotutako kasu juridiko publikoak kasu itxiak, edo abian diren ikerketa publikoak izan daitezke.

2. GRI 206 → Lehia desleiala

206 -1 Lehia desleialarekin, praktika monopolikoekin eta lehia askearen aurka lotutako ekintza juridikoak

Eskakizunak. Erakundeek honako informazio- hau aurkeztu behar dute:

- a. Pendiente edo bukatuak dauden ekintza juridiko kopurua, lehia desleialari dagokionez eta jardunbide monopolikoen eta lehia askearen arloan aplikatu beharreko legeriaren arau-hausteei dagokienez, baldin eta erakundeak parte hartu duela identifikatu bada.
- b. Amaitutako ekintza juridikoen emaitza nagusiak, erabakiak edo sententziak barne.

Jarraibideak:

Lehia desleiala, praktika monopolikoak eta lehia askearen aurkakoak arautzeko nazioko edo nazioarteko legerian oinarritzen dira. Lehia desleialak, praktika monopolikoek eta

lehia askearen aurkako ekintzak kontsumitzaileen hautaketan, prezioetan eta merkatuen eraginkortasunerako funtsezkoak diren beste faktore batzuetan eragin dezakete. Herrialde askotako legeriekin, monopolioak kontrolatu edo saihestu nahi dira, enpresen arteko lehiak eraginkortasun ekonomikoa eta hazkunde iraunkorra sustatzen dituela suposatzen baita. Egoera horietatik eratorritako erabaki juridikoek erakundearen jarduerak merkatuan eteteko arrisku nabarmena ekar dezakete, baita zigortzeko ekintzak ere.

3. GRI - 207 → Fiskalitatea

207 - 4 Herrialdez herrialde, txostenen aurkezpena

Eskakizunak: Erakundeek honako informazio- hau aurkeztu behar dute:

- a. Erakundearen finantza-egoera kontsolidatu auditatuak edo erregistro publikoetan aurkeztutako informazio finantzarioa
- b. 207-4a- Jurisdikzio fiskal bakoitzarentzat:
 - i. Erakundearen izenak
 - ii. Organizazioaren jarduera printzipalak.
 - iii. Langile kopurua
 - iv. Hirugarrenei egindako salmenten diru-sarrerak
 - v. Beste zerga-jurisdikzio batzuekin egindako talde barruko transakzioetatik datozen diru-sarrerak
 - vi. Zerga aurreko mozkinak edo galerak
 - vii. Eskudirua eta eskudiruaren baliokideak ez diren aktibo ukigarriak
 - viii. Ordaindutako sozietateen mozkinen gaineko zerga
 - ix. Sozietateen mozkinen gaineko zerga, irabazien edo galerengain
 - x. Irabazien edo galeren gainean metatutako sozietateen mozkinaren gaineko zergaren eta zerga aurreko mozkin edo galerei legezko zerga-tasa aplikatzen zaien kalkulaturako zergen arteko aldearen arrazoiak
- ★ “iv, v, vi, vii” puntuei dagokienez, erakundeak informazio guztia bateratu beharko du, ikusteko ea ikuskatutako finantza-egoera bateratuetan aitortutako datuak edo erregistro publikoak, 207-4-c edukian adierazitako aldiak aurkeztutako finantza-informazioarekin bat datorren jakiteko. Jakinarazitako datuak ezin badira bateratu ikuskatutako finantza-egoera kontsolidatuekin edo erregistro publikoetan aurkeztutako finantza-informazioarekin, erakundeak aldearen azalpena eman beharko du.
- ★ "ix" puntuari dagokionez, 207-4-c edukiko sozietateen mozkinaren gaineko zerga sartu behar da.
- c. 207-a edukian oinarrituz, erakundeak, momentuko informazioa eman beharko du: Erakundeak ikuskatutako finantza-egoera kontsolidatu eguneratuei buruzko informazioa edo erregistro publikoetan aurkeztutako finantza-informazioa aurkeztu beharko du. Aldi horri buruzko informaziorik ez badago, beste epealdi batekoa aurkeztu dezake, beti ere, gaurkotasun gehiena duena.

Jarraibideak:

Herrialdez herrialdeko txostenak aurkezteko, erakunde batek jarduten duen jurisdikzio bakoitzari buruzko informazio finantzarioa, ekonomikoa eta fiskala aurkeztu behar da, eta erakundeak eskakizunei buruz eman behar duen informazio guztia, honi buruzkoa izan behar du, zehatza eta garrantzitsua.

Gomendioak:

Erakundeek 207-4-a edukiaren barnean, honako informazio hau aurkeztu ahal dute jurisdikzio fiskal bakoitzeko: langileen guztizko ordainsaria; langileen izenean atxikitako eta ordaindutako zergak; bezeroek agintaritzan fiskal baten izenean bildutako zergak; industriarekin lotutako zergak eta gobernuari egindako beste zerga edo ordainketa batzuk...

GRI estandarren testuinguruan, ustelkeriarekin eroskeria, erraztasun-ordainketak, iruzurra, estortsioa, kolusioa, kapitalen zuriketa... bezalako praktikak hartzen dira korrupzioa bezala. Baita ere, opariak, erreziboak, maileguak, ordainsariak, sariak edo beste edozeinen eskutik eratorritako abantailak, legez kanpokoa dela esan daiteke. Hemen sartzen dira eskudirutan edo espezieetan lortutako onurak, hala nola ondasun libreak, opariak edo oporrak, abantaila desegokia sortzeko asmoz emandako zerbitzu pertsonal bereziak, eta abantaila hori jasotzeagatik presio morala eragin dezaketenak.

4 . GRI – 103 → Kudeaketa ikuspegia

103-1 Gai materialen azalpena eta honen estaldura

Eskakizunak:

- a. Gaia material zergatik denaren azalpena
- b. Gai materialaren estalduraren azalpena, non honako hauek deskribatu behar dituen:
 - i. Non sortzen den inpaktua.
 - ii. Erakundearen eragina inpaktu horietan.
- c. Gaiaren estaldurari buruzko edozein muga

Jarraibideak:

Gai materialak erakunde batean eragin ekonomiko, ingurumen eta soziala dituzten arazoak islatzen dituztenak eta taldearen balorazioetan eta erabakietan eragiten dutenak dira. Gai materiala azaltzeko, ondorengo baldintzak bete beharko lirateke:

- a. Identifikatutako gai material horrek izandako eragin garrantzitsuen deskribapena
- b. Identifikazio- prozesu horren deskribapena

103-2 Kudeaketa ikuspegia eta honen osagaiak

Eskakizunak:

- a. Erakundeak gaia nola kudeatzen duen azalpena
- b. Kudeaketa ikuspegiaren helburua
- c. Ondorengo azalpena:

- i. Politikak
- ii. Konpromezuak
- iii. Helburuak
- iv. Erantzukizunak
- v. Baliabideak
- vi. Proiektuak, programak, iniziatibak...

Jarraibideak:

Helburua erakundeak informazio- nahikoa ematea da jasangarritasun txostena irakurtzen duen edonork ulertzeko zer adierazten duten; eta kudeaketa ikuspegiaren helburua erakundearen inpaktu negatibok, ekiditu edo saihestea da.

103-3 Kudeaketa ikuspegiaren ebaluazioa

Eskakizunak:

- a. Erakunde informatzaileak informazio hau nola aurkeztu behar duen azaltzen duen azalpena
 - i. Kudeaketa ikuspegiaren eraginkortasuna ebaluatzeko mekanismoak
 - ii. Kudeaketa ikuspegiaren ebaluazioaren emaitzak
 - iii. Kudeaketaren ikuspegiarekin zerikusia duen edozein aldaketa

Jarraibideak:

Kudeaketa ikuspegiaren eraginkortasunari segimendua egiteko mekanismoetan, auditoretza edo kanpoko edo barneko egiaztapena, neurtze sistemak... egin daitezke.

Horrenbestez, gero eta garrantzitsuagoa da erakundeek transparentzia-maila altua izatera iristea, jarduera guztiz gardenak burutzeko gai izatea. Hori dela eta, ustelkeria bezalako praktikak saihesteko, transparentziaren kontzeptua zer den jakitea ezinbestekoa suertatzen da. Gaur egun, transparentziaren analisisa arlo gubernamental eta instituzional batean, askoz ere garatuago dago, ohikoena, orain arte ikusi ditugun herrialde bateko korrupzio- indizeekin lotzea da, analisi sakon bat burutzeko. Transparentzia kontzeptuak enpresari arlo guztietan ematen dio lasaitasuna, jasangarritasun txostenean irudi fidel bat erakusten dio, eta baita ere transparentziak enpresa ustelkeria eskandaluetatik kanpo uzten du. Horregatik, hori saihesteko azterketa egitea beharrezkotzat jotzen da gaur egun, batez ere enpresa dimentsio handikoa denean, dena kontrolpean izatea zailagoa baita (Baraibar, 2013).

3. Gaia: Korrupzioaren kontrolerako enpresek ezarrita dituzten politiken azterketa

1.1 Sarrera

Behin atal teorikoa amaituta, lanaren bigarren zatiarekin hasiko naiz, hau da, atal praktikoa. Orain arte Gizarte Erantzukizun Korporatiboa zer den eta hau jasangarritasun txosten batean nola aplikatzen den ikusi dugu, dena, ikuspuntu teoriko batetik, hau da,

izan beharko litzatekeena azalduz; errealitatea aldiz, guztiz desberdina da eta enpresa bakoitzak teorikoki egin behar den hori, moldatu eta forma ematen dio, modu batetan lana “ongi” dagoela eginda erakusteko, kanpora begira, hoberenak direnaren oihartzuna handitzeko.

Atal berri honetan, lan honen izenburuan agertzen den bezala, *Korruptzioaren kontrolerako enpresek ezarrita dituzten politiken azterketa* burutuko dut, horretarako GRI ereduan oinarrituko naiz, honen azken bertsioan hain zuzen ere: “GRI Standards”. Horretarako, sektore bakarra aztertuko dut, automozioa, baina lagina Europar Batasun guztira hedatuz, horrela, herrialde bakoitzean automozioaren inguruan jasangarritasun txostenak argitaratzen dituzten enpresak kontutan hartu, eta horietatik, ea guri interesatzen zaigun korrupziori bideratutako, 205 eta honekin batera 103 GRI adierazleak nola aplikatzen diren ikusiko dugu, ondoren, horren analisi bat burutzeko.

Atal praktikoa honen, helburua edo eginkizuna, orain arte aipatutako informazioa enpresek betetzen duten ala ez konprobatzea da, eta horren inguruan beraien jasangarritasun txostenean zer informazio ematen duten aztertzea, hau da, ea informazio hori kalitatezkoa den edo ez baieztatzea, ondoren, bukaeran, konparaketa bat egin eta ondorio batzuk ateratzeko.

1.2. Analisia

Automozio-sektorearen analisia burutzeko, azterketa hau hiru zatitan banatu dut: lehenengo Europar Batasuneko herrialde bakoitzean, zenbat enpresa eta zenbatek argitaratzen dituzten jasangarritasun txostenak aztertu dut, horretarako, GRI-aren datu basea oinarri edukiz, informazioa sailkatzen joan naiz, ikusiz zenbatek argitaratu duten GRI txostena modu jarraituan urtez urte.

Bigarren zatian, orain arte sailkatutako informazioa murrizten joango da, oraingoan 2018.urtean oinarritu naiz, eta soilik enpresa horietan non eredu “GRI Standards” izango den, hemen, enpresa bakoitzak guri interesatzen zaizkigun indikatzaileei buruz zer esaten duten aztertu dut, oraindik erabaki gabe ea informazio hori zuzena edo okerra den, soilik sailkapena egiten.

Hirugarren zatian, lagina oraindik gehiago murriztuko da, sailkapen edo ranking bat burutu bait dut, enpresa hoberenetik, okerrenera.

Lehenengo bi zatitan, informazioa herrialdeka sailkatuta geratuko litzateke, horrela, herrialde bakoitzak, automozio sektorearen inguruan zer nolako indarra duen ikusteko, eta modu batean ere, konturatzeko, ea sektore honetan “indar” handia duten herrialdeek GRI konpromezuarekin bat egiten duten ikusteko aukera edukiko dugu, ea enpresa handia eta ospea izatea bat datorren erantzukizun korporatiboarekin ikus dezakegu.

1.2.1 Automozio- sektorearen azterketa: 1. ZATIA

ESPAINIA

Espainiako automozio- sektoreak BPG-aren % 10 suposatzen du, eta Espainiako esportazio guztien % 19a. Industriak zuzeneko 300.000 lanpostu sortzen ditu eta guztira 2 milioi lanpostu sektoreari lotuta daude. Espainian ibilgailuen fabrikazioak krisiaren aurreko maila berreskuratu du: 2012-2018 aldian, ekoizpena % 42,5 handitu da, 840.386 unitate gehiago ekoitziz. 2018an, 2.819.565 ibilgailu atera ziren Espainiako lantegietatik, eta industria 3 milioi ibilgailuko fabrikazio-gaitasunera hurbildu zen. Gaur egun, Espainia Europar Batasuneko bigarren auto ekoizlerik handiena da, eta 8.a mundu mailan; merkataritza- ibilgailuen Europako 1. fabrikatzailea da, eta Espainian fabrikatutako ibilgailuen % 82, 100 herrialde baino gehiagotara esportatzen dira. 32 enpresa dira automozioaren inguruan jarduten duten enpresak Espainiar lurraldean, horietatik 17, auto fabrikaziora bideratukoak dira. (Talavera, 2019).

Kasu honetan, Espainian GRI orrialdeko datu basean, jasangarritasun txostenen lehen informazioak 2011. urtera eratortzen dira, gaur egun arte, eta 38 enpresetatik soilik 8 enpresek argitaratu dituzte txostenak GRI eredu jarraituz:

Taula 7: GRI eredu jarraituz jasangarritasun txostenak argitaratu dituzten espainiar enpresak

Airtex	Ur-ponpen eta erregai-ponpen fabrikazioko munduko liderra
Teknia Group	Automobilgintzako osagaien fabrikazioa: plastikoa, metala eta mekanizazioa
ALD Automotive	Renting Konpainia
Gestamp	Automobilentzako metalezko osagaiak diseinatu, garatu eta fabrikatzen ditu.
GM España	Automobilen fabrikazioa
Grupo Antolin	Automobilaren barrualderako osagaiak eta moduluak diseinatu eta fabrikatzen ditu
MANN+HUMMEL IBERICA S.A.U	Ibilgailu motordunentzako beste osagai, pieza eta osagarri batzuen fabrikazioa burutzen du.
VEIASA Verificaciones Industriales de Andalucía	- Andaluziar enpresa publikoa (ITV).

Iturria: Egileak egina

Hauetatik, 2011-2019 urteetan modu jarraian GRI-ari buruzko informazioa eskaini duten enpresak, bi dira soilik: Gestamp eta Grupo Antolin; 2018an hasi zirenak, Airtex eta

Teknia Group dira, eta gainontzekoak “saltoka” aritu dira jasangarritasun informazioa eskaintzen.

ALEMANIA

Motorraren sektorea oso garrantzitsua da Alemaniarentzat, enplegu asko sortzen baititu. Automobilaren sektorea ezinbesteko organoa da Alemaniako ekonomiarentzat, industriaren laurdena delako, eta hori, aldi berean, herrialdeko barne produktu gordinaren (BPG) % 30a da. Europako motor alemaniarraren fakturazioa % 20 eta % 25 artekoa da. 16 milioi auto ekoizten dituzte urtero mundu osoan, horietatik 5 milioi Alemanian, eta horietatik 3 milioi esportatzen dira. Datu hori bat dator European auto fabrikaziorako lantegi gehien dituen herrialdea izatearekin, 40 guztira, horietatik hamabost Volkswagen taldekoak dira eta hamahiru Daimler-enak. (Talavera, 2019).

Automozio sektore osoa kontutan hartuz gero, 116 enpresek osatzen dute sektore hau, non GRI-ari buruzko txostena argitaratu dutenak soilik 18 diren. Hauetako enpresa batzuk 2001. urtean hasi ziren informazioa eskaintzen, baina orokorrean 2011.urtetik aurrera hasten dira honi buruz informatzen:

Taula 8: GRI eredia jarraituz, jasangarritasun txostenak argitaratu dituzten alemaniar enpresak

AUDI AG	Autoen fabrikazioa
Porsche AG	
Elring Klinger	Motorren konponketa hornitzaileak dira
IAV GmbH	Propultsio, elektronika eta ibilgailuen garapenerako sistemarako produktuak diseinatzen ditu
MAN group	Kamioien, autobusen eta furgoneten hornitzailea.
MANN+HUMMEL	Olio-, erregai-, aire- eta bizigune-iragazkiak egiten ditu
Rosenberger	Telekomunikazioen, elektronikaren eta automobilgintzaren industriarako soluzio integralak eskaintzen ditu.
SAF-HOLLAND S.E	Munduko ibilgailu komertzialen hornitzaile liderra da
ZF Friedrichshafen AG	Teknologia globaleko enpresa da, eta turismoentzako, ibilgailu komertzialentzako eta industrialentzako sistemak hornitzen ditu.
Baur	Karrozeria- enpresa bat da
BMW Group	
Continental	

Daimler	Auto Fabrikatzailea
Volkswagen Aktiengesellschaft	
Opel	
Knorr Bremse	Trenbide- eta merkataritza-ibilgailuetarako balazta-sistemak ekoizten ditu
Schaeffler Gruppe	Elementu gurpildunen errodamenduen fabrikatzailea
Dürr	Automobilgintzarako produktu, sistema eta zerbitzuen hornitzaile nagusiak dira.

Iturria: Egileak egina

Hauetatik, 2011-2019 urteetan GRI-ari buruzko informazioa eskaini duen enpresa bakarra izan da, Continental hain zuzen ere. Hala ere, nahiz eta urtez urte txostenik ez argitaratu, ohitura handia dago GRI ereduan oinarritutako txostenak burutzeko, enpresak orokorrean ez baitira “saltoka” aritzen, eta gutxienez denek lau urte jarraietan eskaini dute informazioa.

FRANTZIA

Frantzia hamargarren ibilgailu ekoizlea da mundu mailan, eta hirugarrena Europan, 2,2 milioi euro urtean, OICA (Organización Internacional de Constructores de Automóviles) erakundearen datuen arabera. Salmenta gehien izan zituen marka Renault izan zen, 1,1 milioi ibilgailu saldu baitzituen, ACEA (European Automobile Manufacturers Association) erakundearen estatistiketan azaltzen denez. Horrela, ekoizpen osoaren gaineko pisua % 1,5koa da. Enpleguari dagokionez, Frantziako lanpostu guztien % 0,4 da. (Talavera, 2019)

Oraingo honetan, Frantziak 52 enpresa ditu automoziora bideratuak, eta horietatik 6 dira GRI-ari buruzko informazioa argitaratzen dutenak, GRI datu basearen arabera. Lehenengo datuak 2003. urtetik datoz.

Taula 9: GRI eredua jarraituz jasangarritasun txostenak argitaratu dituzten frantziar enpresak

Faurecia	Automobilgintzako hornitzaile orokorrak dira automobil- eserleketan, ibilgailuen barrualdeetan eta emisioak kontrolatzeko teknologietan.
Montupet	Ibilgailuen motorrerako piezen fundizioa bideratzen du
Valeo	Ordezko piezak egiten ditu
Michelin	Pneumatikoen fabrikazioan espezializatutako enpresa

PSA Peugeot Citroën	Autoen fabrikazioa
Reunault SAS	

Iturria: Egileak egina

Hauetatik, 2011-2019 urte jarraituetan GRI-ari buruzko zerbait informatu dutenak bi enpresa izan dira: Michelin eta PSA Peugeot. Hala ere, Alemaniaren kasuan bezala, gutxienez denak lau urte jarraituetan informazioa eskaini duten enpresak asko dira.

ITALIA

Ferrari, Lamborghini edo Maserati bezalako marken kasuan, Italiako auto ekoizpenak herrialdearen ekonomiaren % 2a markatzen du. 2017an, Italiak 1,1 milioi ibilgailu ekoitzi zituen, eta herrialde hori 19. postuan dago mundu mailan. Fiat izan zen matrikulazio gehien lortu zituen marka italiarra, 700.000 ibilgailu baino gehiagorekin, ACEA (European Automobile Manufacturers Association)-ren arabera. Automobilgintzaren sektoreak egiten duen lana guztizkoaren % 0,7a da. Europar Batasuneko laugarren merkatua da (Talavera, 2019).

Sektore osoa 27 enpresek osatzen dute, eta hauetatik GRI buruzko jasangarritasun txostenak soilik 5 enpresak argitaratu dituzte. 2005. urtean hasi ziren honi buruzko lehen txostenak ikusten GRI datu basearen arabera:

Taula 10: GRI eredu jarraituz jasangarritasun txostenak argitaratu dituzten italiar enpresak

Ferrari	Auto fabrikatzailea
FIAT CHRYSLER AUTOMOBILES (FCA)	
PSC	
Grupo Pininfarina	Auto eta tren fabrikatzailea
Piaggio Group	Auto, motozikleta, skooter eta hegazkin fabrikatzailea

Iturria: Egileak egina

Hauetatik, 2011-2019 urteetan GRI-ari buruzko zerbait informatu dutenak bi enpresa izan dira: Fiat eta Piaggio Group. Beste bien kasuan, Ferrarik lehen aldiz 2018. urtean argitaratu zuen jasangarritasun txostena eta 2019. urtean bide berdinean jarraitu du; Grupo Pininfarina eta PSC aldiz, 2018. urtean eta 2019. urtean soilik argitaratu zituzten jasangarritasun txostenak, hurrenez hurren.

ERRESUMA BATUA

Erresuma Batuak, nahiz eta 2018an ekoizpen nazionala % 9,1 jaitsi (1,51 milioi unitate), Europar Batasuneko laugarren ibilgailu-ekoizlerik handiena izaten jarraitzen du. Gama altuko ibilgailuen segmentuan, Erresuma Batua da bigarren fabrikatzaile handiena. Europatik eta kirol-ibilgailuen kluster garrantzitsu bat ere badu. Erresuma Batuan automobilgintzaren sektorea BPG-ren % 4 inguru da, eta herrialdeko esportazio-eragile nagusietako bat da. (Castro de Miguel, 2018).

Erresuma Batuan, automozio sektoreak 63 enpresek osatzen dute, horietatik, 6 izanik noizbait, jasangarritasun txostenak argitaratu dituztenak GRI gidalerroen barruan. Lehen datuak 2000. urtean jaso ziren:

Taula 11: GRI eredia jarraituz jasangarritasun txostenak argitaratu dituzten erresuma batuar enpresak

FCA	Konpainia pribatua
Jaguar Land Rover	Bere jarduera nagusia ibilgailuen diseinua, garapena, fabrikazioa eta salmenta da.
Vauxhall Motor	Auto fabrikatzailea
Aston Martin	
Auto Trader Group	Auto Saltzaileak
Society of Motor Manufactures & Traders	Erresuma Batuko industria autopropulatsuaren interesak sustatzea da helburua, herrialdean eta atzerrian

Iturria: Egileak egina

Hauetatik, 2011-2019 urteetan GRI-ari buruz zerbait informatu dutenak lau enpresa izan dira: Society of Motor Manufactures & Traders, Vuxhall Motor, FCA eta Jaguar Land Rover. Beste bien kasuan, Aston Martinen kasuan, soilik 2017. eta 2018. urteetan argitaratu zuen jasangarritasun txostena, eta Trader Group-ek 2015etik 2017ra.

POLONIA

Poloniako automobilgintzak salmenten igoera mailakatua izaten jarraitzen du, KPMG aholkularitza-enpresak sektoreari eta ekonomia nazionalan duen paperari buruz argitaratu berri den txosten batetik ondorioztatzen denez. 2016an, 416.100 bidaiari-auto merkaturatu ziren, hau da, aurreko ekitaldian baino % 17 gehiago. Industria nazionalaren hobekuntza, besteak beste, atzerriko inbertsio zuzenari egozten zaio. ("El mercado de la automoción acelera en Polonia", 2017).

Poloniaren kasuan, enpresa bakarra izan da aztertua automozioaren sektorean, GRI-aren datu basearen arabera:

Taula 12: GRI eredu jarraituz, jasangarritasun txostenak argitaratu dituzten poloniar enpresak

Grupa Inter Cars	Zerbitzu autopropultatuak bilatzen dituen enpresa bat da, bai eta tailerretara bideratutako bezeroekiko komunikaziorako eta sustapenerako tresna moderno bat ere.
------------------	---

Iturria: Egileak egina

Enpresa honek jasangarritasun txostena lehen aldiz 2018. urtean argitaratu zuen, eta 2019. urtean ere GRI ereduarekin elkarlanean jarraitu zuen, urte horri buruzko informazioa eskaintzen.

PORTUGAL

Automobilgintzaren sektore nazionalak 11.000 milioi euroko balioa du etxeko ekonomiarako, eta Barne Produktu Gordinaren % 5,9 hartzen du. Portugalen dauden lau automobil-ekoizleek (Autoeuropa, PSA, Mitsubishi eta Toyota Caetano) sektore bateko 900 enpresa hornitzaile biltzen dituzte, eta 2016an 11.000 milioi euro inguruko jarduera izan zuten. ("La industria del automóvil representa cerca del 6% del PIB en Portugal", 2018).

Portugalen, automozio industriak 25 enpresek osatzen dute, baina horietatik 5 dira soilik GRI jasangarritasun txostenak argitaratu dituztenak, GRI web orriaren arabera. Lehen datuak 2011. urtean jaso ziren:

Taula 13: GRI eredu jarraituz, jasangarritasun txostenak argitaratu dituzten portugaldar enpresak

Carris	Garraio publikora bideratutako enpresa
Delphi Automotive	Automobilgintzaren eta garraioaren industria-sektorerako osagaiak eta sistema mekaniko eta elektronikoak diseinatzera, fabrikatzera eta banatzera bideratuak daude.
Gestamp Aveiro	Automobilentzako metalezko osagaiak diseinatu, garatu eta fabrikatzen ditu.
Huf Portuguesa	Automobilentzako osagaien fabrikazioa
TMG Automotive	Auto fabrikatzaileak

Iturria: Egileak egina

Enpresa hauetatik, 2011-2019 urteetan zehar, jarraian GRI txostena argitaratu duen bakarra, Gestamp Aveiro izan da. Hala ere, gainontzekoak, gutxienez bost urte jarraietan, txostenak publikatu dituzte, nahiko uniformeak izanik enpresa hauen informazioa.

TXEKIAR ERREPUBLIKA

Txekiar Errepublikak 10,6 milioi biztanle ditu eta Europako erdialdean dago, 78.866 km²-ko azalerarekin. Herrialdeko sektore ekonomiko garrantzitsuena da. Industria-tradizio luzea du, eta automobilgintzaren munduko ekoizpen-zentro gisa finkatu da. Automobilgintzaren sektoreko ekoizpena/BPG % 7 ingurukoa da. Bere posizioa indartu egin da azken urteotan, etengabeko hazkundearekin. (“El sector automovilístico, motor de la industria checa”, 2018).

Txekiar Errepublikaren kasuan, GRI datu baseak hiru enpresa bakarrik hartu ditu kontuan, eta horietatik bakarrik argitaratzen du jasangarritasun txostena GRI-k eskatzen duen araudiaren barnean.

Taula 14: GRI eredu jarraituz jasangarritasun txostenak argitaratu dituzten txekiar enpresak

Skoda	Auto fabrikatzailea
-------	---------------------

Iturria: Egileak egina

Skodak lehen aldiz 2013.urtean argitaratu zuen jasangarritasun txostena, ondoren 2017. urtean eta azkenik 2018. eta 2019. urteetan

SUEDIA

Suedia piezen hornitzaile nagusietako bat da industria autopropulsatuan, batez ere, ibilgailuetako barne-robotak, sarrailagintza digitaleko sistemak, aireztapen-sistemak eta bidaiariarentzako segurtasun-sistemak egiten dituzte gehienbat. 2008an 10 enplegu suitzarretik bat autopropulsatutako industriari lotuta egon da, Ekonomiako Estatu Idazkaritzak emandako datuen arabera.

Suitzan, automozio sektorera bideratutako 82 enpresa daude gaur egun (GRI datu basearen arabera), eta horietatik 6 dira jasangarritasun txostenak argitaratu dituztenak GRI ereduaren barnean. Lehenengo datuak 2000.urtetik eratorritakoak dira:

Taula 15: GRI eredu jarraituz jasangarritasun txostenak argitaratu dituzten suediar enpresak

Autoliv	Automobilen segurtasun-sistemak garatzen eta fabrikatzen ditu munduko automobil-fabrikatzaile handiak
Bulten AB	Metalezko produktu eta zerbitzu ugari garatu, ekoitzi eta merkaturatzen dira
Haldex	balazta-eragingailuak egiten ditu
Scania	Kamioi astunen, autobusen eta diesel motorren fabrikatzailea
Svensk Bilprovning	


Iturria: Egileak egina

Suediaren kasuan, ohitura handia nabarmentzen da dagoela GRI txostenak argitaratzearen unean. Sei enpresa hauek jasangarritasun txostenak argitaratzen hasi zirenetik, gaur egun arte urtez urte GRI txostenak egiten eta argitaratzen jardun dute, modu jarraituan. Orokorrean, 2011. urtetik aurrera jasotzen dira datu gehien.

Orain arte, Europar Batasun mailan hauek dira jasangarritasun txostenak argitaratu dituzten enpresak, baina horrek ez du esan nahi GRI txosten guztian baliozkoak direnik; GRI datu baseak, zein bertsio mota erabili den, eta “Non GRI” eta “Citting GRI” bezalako espresioekin mailakatzen ditu enpresa asko, GRI informazioa gaizki jarrita edo eta zeharka informatzen dela azpimarratuz, hurrenez hurren.

2011-2019 urte bitarteetan, horietako urte bakoitzean, 25 enpresa hauei txostena gaizki egina edo zeharka informatuta izan direnaren kopuruak ondorengoak dira:

Grafikoa 6: GRI txostena modu okerrean argitaratutako enpresa kopuruak



Iturria: GRI datu basea. Egileak egina

Grafikoan ikusten den bezala, 21 enpresa dira jasangarritasun txostenean anomaliaren bat jasan dutenak, eta GRI-k atzera bota dituenak. 2011-2019 urteetan, beraz, asko dira GRI txostenak “Non GRI” bezala katalogatuak izan direnak, eta harrigarriena da, enpresa berdinak, behin eta berriz deuseztatuak izan direla. Interesgarria izango litzateke aztertzea ea zergatik enpresak argitaratzen dituzten GRI txosten okerrak, harrigarria bait delako ikustea zenbat aldiz errepikatu diren akats berberak, baina hau ez da lan honen helburua.

1.2.2 Automozio-sektorearen azterketa: 2. ZATIA

Atal praktiko honen bigarren zatia, lehen adierazi bezala, aztertutako enpresa horien lagina 2018. urtera eta GRI ereduaren azkeneko bertsioan oinarritutako enpresetara mugatuko da.

Hasiera batean informazioa sailkatzeko orduan, 56 enpresa izan dira GRI-n oinarritutako informazioa argitaratu dituzten enpresa kopurua, orain analisia zertxobait murriztu da, eta lagina 26 enpresetan geratu da.

Oraingo honetan, ikusi berri ditugun enpresak, 2018. urtean zer nolako egoera izan duten analizatuko dut, beti ere GRI bertsioaren azken neurriak aplikatuak izan badira, hau da, “GRI Standards” indikatzaileen aplikazioa burutua izan den ala ez ikusiko dugu, ea jasangarritasun txosten horiek GRI 205 eta 103 indikatzaileei buruz informatzen duten aztertuz. Hasiera batean, helburua 2019.urtea aztertzea zen, baina enpresa askok oraindik ez zeuzkaten GRI txostenak argitaratuta.

Taula 16: espainiar enpresak GRI indikatzaileetan emandako informazioa

Indikatzailea	Enpresa	Informazioa	Gaiak
205-1	Teknia Group	EZ	X
	ALD Automotive	EZ	X
	Gestamp	BAI	-Arrisku kudeaketen azalpena -Identifikatutako arrisku esanguratsuak -Materialtasun analisia eta hauek aplikatzeko indikatzaileak
	MANN+HUMMEL IBERICA S.A.U	BAI	- Jokabide kodea azaltzen du
	AIRTEX	BAI	- Jokabide kodea azaltzen du - Korrupzioa egoteko enpresa barruan, zein mailatan egongo litzatekeen kokatua azaltzen du
205-2	Teknia Group	EZ	X
	ALD Automotive	BAI	-Ustelkeriaren aurkako politikak - Formazioa
	Gestamp	BAI	-Osotasunarekin eta prestakuntzarekin lotutako araudia

	MANN+HUMMEL IBERICA S.A.U	BAI	- Jokabide kodea azaltzen du
	AIRTEX	BAI	-Formazioa, modu ezberdinetan mailakatua
205-3	Teknia Group	EZ	X
	ALD Automotive	BAI	- Korrupzio kasurik ez
	Gestamp	BAI	- Jasotako korrupzio kasuak -Zenbatutako kasuak -Honen kontra ezarritako arauak
	MANN+HUMMEL IBERICA S.A.U	BAI	-Ez dagoela korrupzio kasurik azaltzen du
	AIRTEX	BAI	- Ez da kasurik egon

Indikatzailea	Enpresa	Informazioa	Gaiak
103-1	Teknia Group	EZ	X
	ALD Automotive	BAI	-ALDk bultzatutako ekimenak -Gai materialen azalpena (eskematikoa)
	Gestamp	BAI	-Materialtasun analisia eta hauek aplikatzeko indikatzaileak
	MANN+HUMMEL IBERICA S.A.U	EZ	- Balantzea itsasten du
	AIRTEX	BAI	- Jokabide kodea
103-2	Teknia Group	EZ	X
	ALD Automotive	EZ	X
	Gestamp	BAI	-Materialtasun analisia burutzeko plan estrategikoa

	MANN+HUMM EL IBREICA S.A.U	EZ	- Balantzea itsasten du
	AIRTEX	BAI	- Jokabide kodea
103-3	Teknia Group	EZ	X
	ALD Automotive	BAI	- Kontrolaren ikuskapena
	Gestamp	BAI	- Kontrolaren ikuskapena
	MANN+HUMM EL IBERICA S.A.U	EZ	- Balantzea itsasten du
	AIRTEX	BAI	- Jokabide kodea

Iturria: Egileak egina

Taula 17: alemaniar enpresak GRI indikatzaileetan emandako informazioa

Indikatzailea	Enpresa	Informazioa	Gaiak
205-1	IAV GmbH	BAI	-Ez dago arriskurik korrupzio kasuak agertzeko
	MANN+HUMM EL	EZ	X
	SAF HOLLAND SE	EZ	X
	BMW Group	BAI	-Konfidentzialtasunagatik ez dituzte datu hauek ematen, baina analisia burutu dutela zehazten dute
	Continental	BAI	-Enpresaren kontrako jokabideak azaltzen ditu -Enpresa langileak zer nolako formazioa jasan duten azaltzen du - Enpresa auditatua izan dela baieztatzen du
	Daimler	BAI	-Ezin dutela informazio xehatua eman baieztatzen dute; hala ere, salmenten departamentuan arriskuak

			argiak direla onartzen dute.
	Schaeffler Gruppe	BAI	-Enpresaren helburu eta balore korporatiboaz hitz egiten du
	DMG MORI AKTIENGESEL LSCHAFT	BAI	-Jokabide kodea azaltzen du eta honen helburuak
205-2	IAV GmbH	BAI	-Enpresak jokabide etikoan duen garrantzia azaltzen du
	MANN+HUMMEL	BAI	-Formazio mota ezberdin eta arriskuak kudeatzeko erabiltzen dituzten tresnak azaltzen ditu
	SAF HOLLAND SE	BAI	-Korrupzioa saihesteko politikak zenbatzen ditu
	BMW Group	BAI	-Jokabide kodea laburki azaltzen du -Korrupzioaren kontra erabilitako politikak zenbatzen ditu
	Continental	BAI	-Enpresaren kontrako jokabideak azaltzen ditu -Enpresa langileak zer nolako formazioa jasan duten azaltzen du -Enpresa auditatua izan dela baieztatzen du
	Daimler	BAI	- Jokabide kodea azaltzen dute
	Schaeffler Gruppe	BAI	-Enpresaren helburu eta balore korporatiboaz hitz egiten du
	DMG MORI AKTIENGESEL LSCHAFT	EZ	X
205-3	IAV GmbH	BAI	- Ez dago arriskurik korrupzio kasurik gertatzeko
	MANN+HUMMEL	EZ	X

	SAF HOLLAND SE	BAI	-Korrupzio kasurik ez dela egon baieztatzen dute
	BMW Group	BAI	- Ez dela prozedura judizialik egon, eta ez dutela informazio zehatzik egin ahal izan diren arau-hausteei buruz
	Continental	BAI	-Enpresaren kontrako jokabideak azaltzen ditu -Enpresa langileak zer nolako formazioa jasan duten azaltzen du - Enpresa auditatua izan dela baieztatzen du
	Daimler	EZ	X
	Schaeffler Gruppe	BAI	-Enpresaren helburu eta balore korporatiboaz hitz egiten du
	DMG MORI AKTIENGESELLSCHAFT	EZ	X

Indikatzailea	Enpresa	Informazioa	Gaiak
103-1	IAV GmbH	EZ	X
	MANN+HUMMEL	BAI	-Jokabide kodea, kultura eta etikaz hitz egiten du
	SAF HOLLAND SE	EZ	X
	BMW Group	EZ	X
	Continental	BAI	-Enpresak bere jokabide kodea azaltzen, zein printzipio diren garrantzitsuak adieraziz
	Daimler	BAI	- Jokabide kodea azaltzen dute
	Schaeffler Gruppe	BAI	-Informazio konfidentziala dela adierazten dute, baina

			arazo bakoitza modu independentean analizatzen dutela baieztatzen dute.
	DMG MORI AKTIENGESELLSCHAFT	BAI	-Materialtasun analisia burutzearen onurak azaltzen ditu
103-2	IAV GmbH	BAI	-Ingurumenaren babesarekin konprometituta daudela azaltzen du
	MANN+HUMMEL	BAI	-Jokabide kodea, kultura eta etikaz hitz egiten du
	SAF HOLLAND SE	EZ	X
	BMW Group	BAI	-Konfidentzialtasunagatik ezin dituztela datu hauek eman zehazten dute
	Continental	BAI	-Enpresak bere jokabide kodea azaltzen, zein printzipio diren garrantzitsuak adieraziz
	Daimler	BAI	- Jokabide kodea azaltzen dute
	Schaeffler Gruppe	EZ	X
	DMG MORI AKTIENGESELLSCHAFT	BAI	-Materialtasun analisia burutzearen onurak azaltzen ditu
103-3	IAV GmbH	BAI	-Ingurumen arloari buruzko informazioa eskaintzen du
	MANN+HUMMEL	BAI	-Jokabide kodea, kultura eta etikaz hitz egiten du
	SAF HOLLAND SE	EZ	X
	BMW Group	BAI	-Konfidentzialtasunagatik ezin dituztela datu hauek eman zehazten dute
	Continental	BAI	-Enpresak bere jokabide kodea azaltzen, zein printzipio diren

			garrantzitsuak adieraziz
	Daimler	BAI	-Auditoretza zerbitzuak egin dituztela komunikatzen dute
	Schaeffler Gruppe	EZ	X
	DMG MORI AKTIENGESEL LSCHAFT	BAI	-Materialtasun analisia burutzearen onurak azaltzen ditu

Iturria: Egileak egina

Taula 18: frantziar enpresak GRI indikatzaileetan emandako informazioa

Indikatzailea	Enpresa	Informazioa	Gaiak
205-1	Michelin	BAI	-Konfidentzialtasunagatik enpresak ez ditu datu hauek ematen, baina arrisku aukera posible guztiak aztertu dituela baieztatzen dute
	PSA Group	EZ	X
205-2	Michelin	BAI	-Korrupzioaren kontrako politikak zein diren azaltzen du, eta horien aplikazioa.
	PSA Group	BAI	-Korrupzioari aurre egiteko politikak zehatz azaltzen ditu - Langileak jasotako formazio mota, eta kopurua azaltzen du
205-3	Michelin	BAI	-Zenbait datu ematen ditu enpresan gertatutako korrupzio kasuei buruz
	PSA Group	BAI	-2018. urtean ez dela korrupzio-kasurik aurkitu baieztatu dute; bestalde; taldeak zenbait multa jaso ditu munduan zehar dauzkaten talde berdineko enpresetan.

Indikatzailea	Enpresa	Informazioa	Gaiak
---------------	---------	-------------	-------

103-1	Michelin	EZ	X
	PSA Group	BAI	- Jokabide kodeaz hitz egiten du
103-2	Michelin	EZ	X
	PSA Group	BAI	- Jokabide kodeaz hitz egiten du
103-3	Michelin	EZ	X
	PSA Group	BAI	- Jokabide kodeaz hitz egiten du

Iturria: Egileak egina

Taula 19: italiar enpresak GRI indikatzaileetan emandako informazioa

Indikatzailea	Enpresa	Informazioa	Gaiak
205-1	Grupo Pininfarina	BAI	-Korruptziorako gune ohikoenak zenbatzen dituzte
	Ferrari	BAI	-Integritatea enpresa erreferentzia gisa dela baieztatzen dute - Jokabide kodeaz hitz egiten dute
	FIAT CHRYSLER AUTOMOBILES (FCA	BAI	-Arrisku gehien dituzten guneak azaltzen dituzte, zer egiten duten eta zer egingo luketen arazo baten aurrean azalduz -Giza eskubideaz hitz egiten du
	PSC	EZ	X
205-2	Grupo Pininfarina	BAI	-Korruptzioa saihesteko politikak eta nola ematen diren aurrera azaltzen dute
	Ferrari	EZ	X
	FIAT CHRYSLER AUTOMOBILES (FCA	BAI	-Jasangarritasun eredua eta honek enpresan korruptzio munduan duen eragina azaltzen dute

	PSC	EZ	X
205-3	Grupo Pininfarina	BAI	-Taldeak ez dituela inoiz korrupzio- kasurik eduki baieztatzen dute
	Ferrari	BAI	-Jokabide kodaren arau hausteak zein diren eta zer mota dauden adierazten dute. -Ez dela egon korrupzio- kasurik baieztatzen dute
	FIAT CHRYSLER AUTOMOBILES (FCA	BAI	-Taldeak lege guztiak betetzen dituela azaltzen dute, arau hausterik ez gertatzeko
	PSC	EZ	X

Indikatzailea	Enpresa	Informazioa	Gaiak
103-1	Grupo Pininfarina	EZ	X
	Ferrari	BAI	-Materialtasun matrizea zein den azaltzen dute, eta honen azalpena egiten dute
	FIAT CHRYSLER AUTOMOBILES (FCA	BAI	-Materialtasun eta hau aztertzeke moduak edo bideak azaltzen dituzte
	PSC	EZ	X
103-2	Grupo Pininfarina	BAI	-Jokabide kodea azaltzen dute
	Ferrari	EZ	X
	FIAT CHRYSLER AUTOMOBILES (FCA	EZ	X
	PSC	EZ	X
103-3	Grupo Pininfarina	EZ	X

	Ferrari	BAI	-Integritatea enpresa erreferentzia gisa dela baieztatzen dute -Jokabide kodeaz hitz egiten dute
	FIAT CHRYSLER AUTOMOBILES (FCA	BAI	- Jasangarritasun eredua eta honek enpresan korrupzio munduan duen eragina azaltzen dute
	PSC	EZ	X

Iturria: Egileak egina

Taula 20: erresuma batuar enpresak GRI indikatzaileetan emandako informazioa

Indikatzailea	Enpresa	Informazioa	Gaiak
205-1	FCA	EZ	X
205-2	FCA	BAI	- Jasangarritasun eredua eta honek enpresan korrupzio munduan duen eragina azaltzen dute
205-3	FCA	BAI	-Taldeak lege guztiak betetzen dituela azaltzen dute, arau hausterik ez gertatzeko

Indikatzailea	Enpresa	Informazioa	Gaiak
103-1	FCA	BAI	-Materialtasuna eta hau aztertzeke moduak edo bideak azaltzen dituzte
103-2	FCA	EZ	X
103-3	FCA	BAI	-Jasangarritasun eredua eta honek enpresan korrupzio munduan duen eragina azaltzen dute

Iturria: Egileak egina

Taula 21: poloniar enpresak GRI indikatzaileetan emandako informazioa

Indikatzailea	Enpresa	Informazioa	Gaiak
---------------	---------	-------------	-------

205-1	Grupo Intercars	EZ	X
205-2	Grupo Intercars	EZ	X
205-3	Grupo Intercars	BAI	-Korruptzio mota ezberdinak eta hauek gertatu diren kasuak ematen ditu (ez du kasurik eduki)

Indikatzailea	Enpresa	Informazioa	Gaiak
103-1	Grupo Intercars	BAI	-Gestioaren nondik norakoak azaltzen dituzte
103-2	Grupo Intercars	EZ	X
103-3	Grupo Intercars	EZ	X

Iturria: Egileak egina

Taula 22: portugaldar enpresak GRI indikatzaileetan emandako informazioa

Indikatzailea	Enpresa	Informazioa	Gaiak
205-1	TMG Automotive	EZ	X
205-2	TMG Automotive	EZ	X
205-3	TMG Automotive	EZ	X

Indikatzailea	Enpresa	Informazioa	Gaiak
103-1	TMG Automotive	EZ	X
103-2	TMG Automotive	EZ	X
103-3	TMG Automotive	EZ	X

Iturria: Egileak egina

Taula 23: txekiar errepublikar enpresak GRI indikatzaileetan emandako informazioa

Indikatzailea	Enpresa	Informazioa	Gaiak
---------------	---------	-------------	-------

205-1	SKODA	EZ	X
205-2	SKODA	BAI	-Taldeak eta langileak bete beharreko arauetaz hitz egiten du - Edozein korrupzio edo arau- hausteren kontra daudela adierazten dute: formazioa eskaintzen.
205-3	SKODA	EZ	X

Indikatzailea	Enpresa	Informazioa	Gaiak
103-1	SKODA	BAI	-Taldeak eta langileak bete beharreko arauetaz hitz egiten du - Edozein korrupzio edo arau- hausteren kontra daudela adierazten dute: formazioa eskaintzen
103-2	SKODA	BAI	-Taldeak eta langileak bete beharreko arauetaz hitz egiten du - Edozein korrupzio edo arau- hausteren kontra daudela adierazten dute: formazioa eskaintzen
103-3	SKODA	BAI	- Taldeak eta langileak bete beharreko arauetaz hitz egiten du - Edozein korrupzio edo arau- hausteren kontra daudela adierazten dute: formazioa eskaintzen

Iturria: Egileak egina

Taula 24: suediar enpresak GRI indikatzaileetan emandako informazioa

Indikatzailea	Enpresa	Informazioa	Gaiak
205-1	Bulten AB	BAI	-Jokabide kodea

			azaltzen dute
	SCANIA	EZ	X
	VOLVO	EZ	X
205-2	Bulten AB	EZ	X
	SCANIA	EZ	X
	VOLVO	EZ	X
205-3	Bulten AB	BAI	-Korruptzio-kasurik ez direla egon baieztatu dute
	SCANIA	EZ	X
	VOLVO	BAI	-Gertaturiko arau-hauste edo korruptzio-kasuak zenbatzen dituzte

Indikatzailea	Enpresa	Informazioa	Gaiak
103-1	Bulten AB	BAI	-Jasangarritasun helburuak adierazten dituzte, datu eta grafikoekin -Egiten dutena gizarte erantzukizunaren parte izateko adierazten dute. -Materialtasun matrizea eskatzen dute, bakoitza azalduz - Enpresa auditatua izan dela baieztatzen dute
	SCANIA	EZ	X
	VOLVO	BAI	-Enpresak gestioa emateko moduz hitz egiten dute

103-2	Bulten AB	BAI	-Jasangarritasun helburuak adierazten dituzte, datu eta grafikoekin - Egiten dutena gizarte erantzukizunaren parte izateko adierazten dute. -Materialtasun matrizea eskatzen dute, bakoitza azalduz - Enpresa auditatua izan dela baieztatzen dute
	SCANIA	EZ	X
	VOLVO	EZ	X
103-3	Bulten AB	BAI	-Jasangarritasun helburuak adierazten dituzte, datu eta grafikoekin -Egiten dutena gizarte erantzukizunaren parte izateko adierazten dute. -Materialtasun matrizea eskatzen dute, bakoitza azalduz - Enpresa auditatua izan dela baieztatzen dute
	SCANIA	EZ	X
	VOLVO	EZ	X

Iturria: Egileak egina

1.2.3. Automozio sektorearen azterketa: 3. ZATIA

Lehenengo zatian sektorearen eta enpresa eta herrialde bakoitzaren aurkezpena burutu ditut, itxura bat egiteko nolakoa den egoera, zer motatako enpresak dauden, eta horiek zer suposatzen duten kokatuta dauden herrialdearekiko; bigarren zatian, analisisa estutu, eta hasiera batean aurkezpen huts bat bezala aurkeztuak izan diren enpresa horien informazioa, baldintza batzuk ezarri ondoren (2018 urtera, eta GRI indikatzaile zehatz

batzuetara), zein motatakoa den ikusteko aukera izan dugu, oraindik balorazio- jakin bat egin gabe, horrela, lagina ere txikitu da; azkenik, zati honen helburua, informazio guzti hori hartu, benetan “GRI Standards”-ereduak esaten duenarekin ea bat datorren ikusi, eta erabaki edo helburu bat hartzea izango da oinarria, gero, konparagarriak diren horiekin “ranking” moduko bat egiteko.

Horretarako, enpresa bakoitza mailakatu, eta eskaini duen informazioaren arabera puntu jakin bat edukiko du, maila txikienetik, handienera. Horrela izango lirateke:

- 0 puntu → Enpresak GRI 205 eta 103 indikatzaileei buruz ezer esaten ez duenean.
- 1 puntu → Nahiz eta orokorrean ez eman GRI-k, 205 eta 103 indikatzaileei buruz eskatzen duen informazioa, zerbait hitz egiten dutenean, nahiz eta bat ez egin berez azaldu behar duen gaiarekin.
- 2 puntu → GRI-k, 205 eta 103 indikatzaileei buruz adierazitakoa orokorrean betetzen denean, erabaki edo konklusio bat ateratzeko gai garenean.

1.2.3.1. Informazio- maila nulua erakutsi duten enpresak, 0 puntu

Taula 25: Informazio- maila nulua erakutsi duten enpresak

Enpresa
Teknia Group
PSC
TMG Automotive
SCANIA

Iturria: Egileak egina

Lau enpresa hauek ez dute inolako informaziorik ematen 205 eta 103 indikatzaileei buruz, beraien GRI txostenean ez dago korrupzio- politikei buruzko informaziorik. Harrigarria dirudi nola den posible horrelako enpresa handiek korrupzioari aurre egiteko tresnen berri ez ematea, hau da, informazioa ekiditea. Izan ere, mundu guztian zehar jarduten duten taldeak dira, milioika langilez osatutako lantegiak edukiz.

1.2.3.2 Informazio- maila, zeharka eskaini duten enpresak, 1 puntu

Kasu honetan 3 koloretan mailakatu ditut 1 punturekin sailkatu ditudan enpresak, izan ere, nahiz eta orokorrean eskaintzen duten informazioa guztiz ona ez izan, desberdintasunak bereizten dira:

- Kolore gorria:

Taula 26: informazio maila desegokia erakutsi duten enpresak

Enpresak
MANN+HUMMEL IBERICA S.A.U
Daimler
Schaeffer gruppe
Grupo Inter cars
Volvo
SAF HOLLAND S.E
Ferrari

Kolore gorritz hautatuak izan diren enpresa hauek, informazioa eskaintzen dute gutxienez 205 eta 103 indikatzaileen azpi adierazleetako batean, baina informazio- hori guztiz desegokia da, ez baitu ezer interesgarririk azaltzen korrupzioaren inguruan; zerbait jartzeagatik ezarri dutela dirudi.

Iturria: Egileak egina

MANN+HUMMEL IBERICA S.A.Uen kasuan, 205-1/2 azpi indikatzaileen kasuan, jokabide kodeaz hitz egiten du bere jasangarritasun txostenean, enpresak dituen helburuak, misioak... azaltzen. Bestalde, lehenengo bi azpi adierazleei buruz ez du garrantzizko ezer esaten, eta 205-3an baieztatzen dute ez dela korrupzio- kasurik egon, baina baieztapen hori inongo datu zehaztetik dator, aurretik burutu beharreko daturik ez bait daude eskuragarri behintzat. Horregatik, arraroa suertatzen da baieztapen hori egitea, beste bi azpi adierazleetan informaziorik ez badu ematen. Gainera 103 indikatzailean (eta honen azpi adierazleetan), balantzearen nondik norakoak azaldu, eta honi buruzko datuak ematen ditu, benetan burutu behar denarekin zerikusirik ez izaten.

Daimler eta **Schaeffer Gruppe** enpresen kasuan, eskaintzen duten informazioa nahiko antzekoa da. Daimlerrek 205-3 azpi adierazlean izan ezik, beste guztietan zerbait eskaintzen du, onartzen dute korrupzio arriskuak egon direla enpresan (205-1) baina ez dira haratago joaten azalpenak emateko momentuan. Orokorrean bi enpresek eskaintzen duten informazioarekin ezinezkoa da ezer argi ateratzea, bi enpresek soilik jokabide kodeaz eta helburu korporatiboez hitz egiten baitute.

Grupo Intercars eta **Volvo** enpresen kasuan, 205-3 eta 103-1 azpi indikatzaileetan eskaintzen du soilik informazioa; zein korrupzio- mota bereizten diren eta enpresaren gestioa nolakoa den azaltzen dute. Informazio oso desegokia, ez du ezer esaten, guretzat informazio hori edukitzea edo ez berdina izango litzateke.

SAF HOLLAND SE enpresaren kasua oso antzekoa da, korrupzio-kasurik ez dela egon, eta korrupzioa saihesteko praktikak zenbatzen ditu, soilik. **Ferrari**-ren kasuan, informazioa eskaintzen du azpi indikatzaile guztietan 205-2 eta 103-2 izan ezik, baina orokorki jokabide kodeaz hitz egiten du, garrantzizko informaziorik ez ematen.

- Kolore laranja:

Taula 27: Informazio maila errepikakorra erakutsi duten enpresak

Enpresa
IAV Gmbh
MANN+HUMMEL
DMG MORI AKTIENGESELLSCHAFT
Skoda
Airtex
Pininfarina*
Continental*
PSA group*
BULTEN AB*
Michelin*

Kolore laranjarekin ezarri ditut enpresa hauek, izan ere, eskaintzen duten informazioa oso errepikakorra baita. Ia azpi adierazle guztietan eskaintzen dute informazioa, baina informazio hori behin eta berriz errepikatzen da. Informazioa ez dago guztiz gaizki, baina oraindik ere datu asko faltako lirerateke.

Iturria: Egileak egina

IAV Gmbh eta **Skoda** enpresen kasua berdina izango litzateke. Bi enpresak gai ezberdinen informazioa eskaintzen dute, baina berdina azpi adierazle guztietan. Gainera, berez eskaini behar luketen informaziori buruz ez dute ezer adierazten.

MANN+HUMMEL-en kasuan, 205-2 azpi adierazlean soilik ematen du zentzuzko informazioa. 103-a osatzen duten azpi adierazle guztietan, etikaz eta jokabide kodeari buruzko informazioa ematen du.

DMG MORI AKTIENGESELLSCHAFT-en kasuan berdina gertatzen da, 205-1 azpi adierazlean jokabide kodeari buruz ematen du informazioa, eta 103 azpi adierazle guztietan ez da informazioa sailkatzen, materialtasun analisiaren onurei buruz jarduten dute; hasiera batean, ez legoke gaizki informazio hau ematea, baina eskaintzen dutena irakurtzean, ezin da ulertu nola iritsi diren onura horiek baieztatuzera. **Airtex**-en kasuan, 205-2 azpi adierazlean ematen du informazio sendoa, zeinbat grafiko itsatsiz, baina 103 indikatzaile guztian zehar jokabide kodeaz hitz egiten du soilik.

Azken bost enpresa-talderen kasuan, ikus daiteke izartxoak jarri didala; gertatzen dena da bi indikatzaileetatik (205 eta 103), kasu guztietan, adierazle horietako batean soilik ematen dutela zentzuzko informazioa, eta bestea, berriz, gaizki osatua, errepikakorra edo

informaziorik gabea suertatzen da. Hori dela eta, 1 puntu kategoriaren barruan sailkatu ditut. Hala ere, ikus daiteke beste enpresak baino informazio koherenteagoa eskaintzen dutela, eta eskema antzeko bat jarraituz; horregatik izartxo. Hala ere, jasangarritasun txosten hauek ez ditu nahiko datu eskaintzen ondorengo “fase”an txertatzeko.

- Kolore grixia:

Taula 28: Informazio konfidentziala erakutsi duen enpresa

Enpresa
BMW Group

Iturria: Egileak egin

BMW enpresaren kasua berezia da: 1 puntu-ren barruan sartu dut, soilik, konfidentzialtasunagatik daturik ezin duela eman abisatu egiten duelako. Hortaz, ezin da beste enprekin alderatu, ez baititu datuak edo informazioa (gutxi baldin bada ere) ematen korrupzio-politiken inguruan ondorio bat ateratzeko, eta informazio hori sailkatzeko.

1.2.3.3 Informazio- maila osatuagoa eskaini duten enpresak, 2 puntu

Taula 29: Informazio maila osatua erakutsi duten enpresak

Enpresa
FCA
FIAT CHRISLES AUTOMOBILES
ALD Automotive
Gestamp

Iturria: Egileak egin

2 puntuekin lau enpresa hauek izendatu ditut. Azpi adierazle bakoitzean informazio sendoa eta egokia ematen baitute, eta enpresaren nondik norakoak ezagutzeko beharrezkoak diren datuak ematen ditu.

FIAT CHRISLES AUTOMOBILES eta **FIAT**en kasuan, azpi indikatzaile guztietan ematen du informazioa 103-2an izan ezik. Informazio ugari eskaintzen du, eta bakoitza azpi adierazle bakoitzean ongi banatuta dago. 205-lean, enpresak dituen ahuleziak azaltzen ditu, korrupzio-kasu ezberdinak gertatzeko zein gunere diren arrisksuenak eta

arau-hausterik ez gertatzeko zer egiten duten adierazten dute. 103 indikatzaileari dagokionez, materialtasun analisia eta erabakiak hartu baino lehen zer aztertu eta zein modutan azaltzen duten erakusten dut. Informazio oso osatua eskaintzen dute

ALD Automotive eta FCA enpresaren kasuan, azpi indikatzaile guztietan ematen du informazioa, 205-1ean izan ezik; gainontzeko azpi indikatzaile guztietan eskaintzen duten informazioa ere oso osatua dela iruditu zait. Ustelkeriaren aurkako politikak zein diren eta hauek nola erabiltzen dituzten azaltzen dute; gainera, langileei ere zer nolako formazioa eta zein motetako den azalduz. Materialtasun analisia burutzen dute, eta garrantziaren arabera izendatzen dituzte aspektu materialak. Orokorrean, GRI-k esaten duenarekin bat dator, soilik datu kuantitatiboak faltako lirateke.

Orokorrean, azken lau enpresa hauek GRI-k eskatzen duenarekin nahiko antzekotasun puntu dituzte, baina guztiz informazio osoa, ona, eta eduki aldetik ugaria Gestamp enpresak eskaintzen du. Hori dela eta, Gestamp enpresak bere jasangarritasun txostenean korrupzioari buruz zer informazio mota eskaintzen duen azalduko dut ondorengo lerroetan, ikus dezagun zer izango litzatekeen korrupzio- politikei buruz informatzea; gero, azpi adierazle bakoitzean eskainitakoaren arabera azalpen bat egiteko.

1.2.3.4 Gestamp enpresaren azterketa

205-1: Korrupzioarekin erlazionaturiko azterketa

Gestamp-ek munduan zehar dituen enpresa guztien analisia burutu eta gero, orokorrean arrisku potentzial bat gertatzeko aukeren azterketa burutua dute. Izan ere, arrisku ebaluaketak egitea positiboki eragin dio taldeari, korrupzio- kasuak gertatzeko edo eta horri aurre egiteko politikak diseinatzen laguntzen du eta. Gestamp-ek eguneroko bizimoduan aurre egin beharreko egoera konplexuei dagozkien ziurgabetasunei aurre egiteko, taldeak arriskuen kudeaketarako sistema integral bat dauka, SIGR, ziurgabetasun horien balizko emaitzak behar bezala identifikatu, baloratu, kudeatu eta kontrolatzeko. SIGR tresna hau, ISO 31000 eta COSO indikatzaileetan oinarrituz osatzen da. Ondorengoak aurreikusi dira:

Taula 30: Arriskuen kudeaketarako Gestamp taldearen ahuleziak

1.- ZATIA		
Arriskuen azterketa: BAI	Horietako bakoitzaren barneko azpi arriskuen azalpena: BAI	Erantzunak/politikak arazo posible hauek saihesteko: BAI
Integritatea eta erantzukizuna	<ul style="list-style-type: none"> Legea eta arauak haustearren arrisku posibleak 	-Jokabide kodearen eguneraketa - Arrisku penalak aurreikusteko sistemaren etengabeko hobetzea -Arau aldaketen kontrol jarraitua

Kaudimen arriskuak	<ul style="list-style-type: none"> • Negozioa bezero jakin batean edo batzuetan kontzentratzea 	Eskaeren eta salmenten jarraipen zehatza. Bezero- eta produktuzorroen dibertsifikazioa. Eremu geografikoen irekitze prozesua
	<ul style="list-style-type: none"> • Inbertsio proiektuen errentabilitate galtze aukera 	GPCS (Gestamp Product Creation System) indikatzailearen erabilpena, aukerak aztertze
	<ul style="list-style-type: none"> • Arrisku finantzarioak 	Kanbio-tasatik zein interes-tasat eratorritako finantza-tresnen erabilera onartzen du. Finantza kostuak, ziklo ekonomikora egokitzearen arteko oreka bilatzen du
	<ul style="list-style-type: none"> • Ezegonkortasun politikoa 	Analisi geopolitikoa burutzen da
Eragiketen bikaintasun arazoak	<ul style="list-style-type: none"> • Bezeroen hornikuntza-katea etetea (hornitzaileekin arazoak, Barne arazoak...) 	Hornitzaileak monitorizatzeko eta haien arriskuak ebaluatzeko sistema global korporatiboa
	<ul style="list-style-type: none"> • Aldaketa teknologikoak (informazioaren segurtasuna...) 	Industria 4.0 inizatiba
Profesional onen kontratazio-arriskuak	<ul style="list-style-type: none"> • Etorkizuneko beharrak hornitzeko arriskua 	Talentu- programak
Ingurumen eragina txikitze arriskuk	<ul style="list-style-type: none"> • Ingurumen aldaketak 	ISO 14001 eta EMAS bezalako indikatzaileen azterketa

Iturria: Gestamp jasangarritasun txostena. Egileak egina

Behin arrisku esanguratsuenak aztertuta, eta hauen ondorio bezala, taldeak lau korrupzio politika sendo ipini ditu munduan zehar dituen enpresa guztietan txertatuak izan daitezten:

1.- Eroskeria eta korrupzioaren kontrako legea: Administrazio- kontseiluak 2018. urtean korrupzio eta iruzurraren kontrako politikak zehaztu zituen. Politika honek, ustelkeriari, iruzurrari eta eroskeriari buruzko barne- araudia garatzen du, jokabide kodean ezarria, eta kontseilariak, zuzendariak, eta langileak jarraitu beharreko jarduera parametro orokorrak proiektatu eta ezartzea da helburu, korrupzioaren kontra gogor eginez, horrelako praktiken kontrako mezu argi bat bidaltzen, erakundearen barruan jokabide hauek saihesteko borondatea argi eta garbi transmititzen.

2.- Opariak: Etika Batzordeak 2013an onartutako Opariei eta Arretei buruzko Araudiaren helburua da langileen eta hirugarrenen artean opariak edo esker onak trukatzeko aukerak ekiditea. Araudian definitzen dira bete beharreko baldintzak. Gainera, opariak eskudirutan onartu edo eskaintzeko debekua ezartzen du.

3.- Portaeren barne erregelamendua balio merkatuetan: Balore Merkatuetako Jokabideari buruzko barne araudiak Administrazio Kontseiluko kideek, sozietateko zuzendariak, enplegatuek edo sozietateko informazio pribilegiatua eskuratzeko aukera duten kanpoko aholkulariek, bai eta informazio pribilegiatua tratatu, erabili eta zabaltzeko irizpideak zehazten ditu. Hori guztia, gardentasuna bultzatzeko eta merkatuaren inguruan inbertitzaileen interesak babesteko.

4.- Interes gatazkak: Izan daitezkeen interes-gatazkak saihesteko, kontseiluaren Erregelamenduaren 22. artikulua ezartzen du, kontseilariak behartuta daudela Administrazio Kontseiluari jakinaraztera interes-gatazka, zuzeneko edo zeharkakoa, sor dezakeen edozein gorabehera. Nolanahi ere, Administrazio Kontseiluko kideek ezingo dute eztabaidetan eta bozketetan parte hartu, baldin eta horiek zuzeneko edo zeharkako gatazka interesgarriak badituzte.

Taula 31: GRI 205-1 informazioaren azalpena

<p>2.- ZATIA</p> <p>Azalpena:</p> <p>Azpi indikatzaile honen inguruan ematen duten informazioaren harira, lehen ere adierazi bezala, izatez, “eskakizunak” atalak adierazten duen informazioa eskaini behar du.</p> <p>Alde batetik, ikusi daiteke Gestamp enpresak arrisku kudeaketa azterketa burutzen duela, GRI “eskakizunak” ataleko “b” puntua guztiz ondo hedatzen du: informazioa eskaini, zein motako arrisku esanguratsu aurki daitezkeen, eta arrisku horietako bakoitzarentzat politika eta soluzio bat ematen du, infrakzio posibleak ez gertatzeko zein tresna erabiltzen duten zehatz- mehatz azalduz. Beraz, korrupzioaren eta arriskuaren ebaluazioaren bidez identifikatutako arrisku esanguratsuak zein diren ongi aztertzen ditu.</p> <p>Bestetik, “a” atalaren kasuan, txostenean ez da agertzen banan-banan zenbateko probabilitatea dagoen munduko enpresetan arrisku hauek gertatzeko. Hala ere, azpimarratu beharra dago, arrisku kudeaketa politika hauek Gestamp-ek dituen enpresa guztietan integratuta daudela, arrisku bakoitza kontrolpean edukitzeko auditoria zuzendaritza bat bereizten da, enpresa barneko arazo posibleak kontrolatzeko; eta goimailan, auditoria komisioa eta administrazio kontseilua nabarmentzen dira. Hori dela eta, nahiz eta informazioa banakatua ez eman, eskaintzen duen informazioa ez zait guztiz okerra iruditzen, baina bai iruditzen zait espezifikagoak izan beharko lirakeela.</p>
--

Jarraibideei dagokionez, orokorrean koherentzia bat jarraitzen dutela iruditzen zait, berriz ere nabarmentzen, informazio banakatua kasu honetan ez dutela eskuragarri ipintzen. Bukatzeko, arrisku posible guztiak aztertu eta gero, lau korrupzio- politika sendo barneratu dituzte Gestamp enpresa taldera.

205-2: *Korrupzioaren aurkako politikari eta prozedurei buruzko komunikazioa eta prestakuntza*

1.- ZATIA:

Formazioa eskaintzeko kanalak: Gestamp 2011. urtean hasi zen langileen artean formazio kurtsoak eskaintzen gai ezberdinen inguruan, baina baita ere korrupzioaren inguruan. Gaur egun, enpresara lan egitera sartzen den mota guztietako langileek, kurtso hauek beteko dituztela zin egin behar dute. Kurtso hauek egiteko moduak ondorengoak dira:

- Formazio- presentziala: Ordengailu bat edukitzea ezinezkoa suertatzen zaien langile horientzat.
- Online formazioa: Beste guztientzat.

2018. urtean enpresaren egoera ondorengoa zen, mundu- mailan:

Taula 32: Langileen banaketa, herrialdearen eta generoaren arabera

	Ipar amerika		Hego amerika		Europa mendebaldea		Europa ekialdea		Asia	
Emakumeak	1.572	%21.3	672	%12.1	2.646	%15.4	1.532	%19.7	834	%14.7
Gi-zonak	5.818	%78.7	4.884	%87.9	14.531	%84.6	6.230	%80.3	4.834	%85.3
Langileak < 35 urte	4.034	%54.6	3.003	%54	4.992	%29.1	4.365	%56.2	3.828	%67.5
Kontratu mugagabea	6.871	%93.0	5.389	%97	14.755	%85.9	6.732	%86.2	5.241	%92.5
Formazioa gazteen artean – programak	38	%0.5	153	%2.8	335	%2	29	%0.4	176	%3.1
Desgaitasun a	13	%0.2	159	%2.9	518	%3	109	%1.4	18	%0.3
Langileak lanean >10 urte	394	%5.3	1.101	%19.8	9.129	%53.1	1.023	%13.2	674	%11.9
LANGILE TOTALAK: 43.553										

Iturria: Gestamp jasangarritasun txostena

- Zuzendaritza postuak: %17 emakumeak eta %18.5 gizonak
- 28 orduko formazioa pertsona bakoitzeko urtean
 - Bestelako datuak:

Administrazio batzordean:

- 12 pertsonaz osatua (5 kontseilari independenteak, 3 “dominikalak”, 2 exekutiboak, 2 kanpokoak)

- 1 emakume eta 11 gizon

Auditoria komisioa:

- 5 pertsonaz osatua (2 kontseilari independenteak, 1 “dominikala”, 2 ez kontseilariak)
- 2 emakume eta 3 gizon

Zuzendaritza komitea:

- 11 pertsonaz osatua
- Denak gizonak

2018. urtean zehar 78 zentro berritan ekin zioten berdintasuna sustatzeko praktikak bultzatzeari.

Taula 33: GRI 205-2 informazioaren azalpena

<p>2.- ZATIA</p> <p>Azalpena:</p> <p>Kasu honetan, azpi adierazle honetan, korrupzio politiken inguruan, zer nolako formazio- mailari buruzko informazioa eskaini behar du taldeak. GRI gidalerroaren “eskakizunak” atalean fijatuz gero, enpresak ez ditu zehatz mehatz betetzen egin beharrekoak, baina orokorren aztertuz gero, zein bide jarraitzen duten formazio mota hori eskaintzeko, edo eta munduan zehar dituzten enpresetan zenbat formazio programa eskaintzen dituzten adierazten dute. Orokorki, informazioa guztiz banakatua ez dute eskaintzen, oso orokorra baizik.</p> <p>Bestalde, GRI gidalerroak “jarraibideak” eta “gomendioak” atalak kontutan hartzen baditugu, GRI 405-1 azpi adierazlea kontutan hartzen du, aniztasuna eta aukeraberdintasun arloa azaltzen, zenbat langilea, zein genero, eta zein motakoak diren azaltzen.</p> <p>Hala ere, egia da korrupzioaren inguruko formazioaz aparte, beste kanpaina batzuk bideratzen dituztela, pertsonen lan aukera eta lan formazioa eskainiz (unibertsitate ikasketak, FP...), edo eta “talentu” berriak aurkitzeko programak bideratzen dituzte. Gainera, ildo honetan, enpresa barruko arlo ezberdinak ezagutarazteko programak, formazioa orduak... egiten dituzte, enpresaren funtzio ximpletik, goragoko postuak nola funtzionatzen duten azalduz.</p> <p>Bestalde, egia da behar bada espezifikagoak izan beharko lirakeela formazio mota honen inguruan informazioa eskaintzean, batik bat, informazioa mota hau konparagarriagoa izan zedin.</p>
--

205-3: *Gertatutako korrupzio kasuak eta hartutako neurriak*

1.- ZATIA:

Kodearen eta gainbegiraketa organoen kontrola. Informazioa modu egokian eta egiaztatze-maila sendoa izan dezan, Gestamp-ek bi organo bereizten ditu:

1.- Etika komitea: jokabide kodea ongi betetzeaz arduratzen dira. Horrela, zein diren honen funtzioak, denuntziak jartzeko kanalak, eta hauek bideratzeko prozesua kontutan hartzen dute. Zuzendari orokor eta kanpo aholkulari batez osatua dago.

2.- Compliance office-a: etika komitearen gain dagoen organoa da, helburu zuzena, jasotako denuntziak jaso, sailkatu, jarraipen bat egin egiztatzeko ea egia edo gezurra den jasotako abisua, eta beti, nahiz eta gezurra izan, jasotako abisu guztiak etika komiteari informatu behar dizkio.

Abisua bideratzeko kanal ezberdinak: abisu, galdera, duda edo ez betetzeak aztertzeko, zenbait bide bereizten dira; alde batetik, ohiko bidea, giza baliabide departamentura jo eta bertakoei helarazi gertatutakoa; edo eta “Compliance Office”-a era jo eta bertako pertsonari adierazi gertakaria.

- Bi bide azpimarratzen ditu Gestamp-ek:

1.- Barne kanala: korreo elektronikoz egin daiteke, abisuak buzoi generiko batera iristen dira, hortik zuzenean Compliance Office-ra bideratuz.

2.- Kanpo kanala: kanpo enpresa baten bidez (SpeakUp Line) gestionatutako denuntzia kanal bat da, non komunikazioa telefonoz, web formulario edo eta korreoz egin daitekeen, beti anonimoki.

Taula 34: Gestamp enpresak 2018. urtean jasotako komunikazio edo abisuak

Komunikazio-mota		Komunikazio-kanala		Enpresak hartutako erantzuna(kasu guztiak ikertu dira)	
Abisu totalak	122	Giza baliabideengatik bideratutako abisuak	23	Kasu itxiak	81
Ez betetze posibleak	120	Compliance Oficce-en eskutik bideratutako abisuak	31	Kasu irekiak	31
Dudak eta sugerentziak	2	SpeakUp Line-en eskutik bideratutako abisuak	66	Kasu artxibatuak	10
				Kaleraketak	15

Iturria: Gestamp jasangarritasun txostena. Egileak egina

Jasotako abisuak komunikazio, kanal eta erantzunaren arabera sailkatu eta gero, Gestamp-ek abisu hauek enpresaren zein guneetan gertatu diren adierazten du, horietako bakoitza zehatz azaltzen zein motakoa izan den:

Taula 35: Komunikazioak, gune eta motaren sailkapena

Lan arloan gertatutako ezbeharrak 79	Segurtasuna eta osasun arloan
	Errespetuzko lan eta bidezko tratuan arazoak
	Jazarpen laborala
	Pentsamendu eta asoziazioen kide izateko askatasuna
Hornikuntza katean gertatutako ezbeharrak: 25	Interes gatazkak
	Mugatze eta bateraezintasunak
	Oparien onarpena
	Eroskeria eta korrupzioa
	Aktibitate politikoa
Akzionistekin eta bazkide komertzialekin gertatutako ezbeharrak: 13	Informazioaren egiaztapena
	Informazioaren erabilera
	Pribatutasuna eta konfidentziasuna
	Informazio pribilegiatuaren kontrola
	Aktiboen babesia
Egunerokotasunean gertatutako ezbeharrak: 3	Ingurumena
	Gizartearekin konpromezua

Iturria: Gestamp jasagarritasun txostena. Egileak egina

Taula 36: GRI 205-3 informazioaren azalpena

2.- ZATIA
<p>Azalpena:</p> <p>Azpi adierazle honen kasuan, taldeak orokorrean eskatutako informazioa eskaintzen du. Zein organok gainbegiratzen dituen abisuen informazioa eskaintzen du, hala nola, zein kanal mota dauden, eta behin atal teorikoa azalduta, atal praktikora pasatzen dira, ondo azalduz zenbat abisu edo denuntzia izan dituzten, zein motakoa izan diren eta zein ondorio edo erantzun hartu dituen taldeak horien aurrean. Gainera, enpresaren zein guneetan gertatu diren ezbeharrak azaltzen dute, zenbat kasu zenbatzen, eta gune horietako bakoitzean, zein arlo edo politika urratuak izan diren azalduz.</p> <p>Hortaz, informazioa osatua, argia eta zehatza da, korrupzioaren inguruan gertatutako kasuak adierazten, zein motakoak diren azaltzen, eta horietako bakoitzari zer konponbide eman zaion azaltzen. Horrela, GRI gidalerroarekin bat egiten dute orokorrean; beste azpi adierazleen kasuan bezala, ez dute zehazten adibidez kaleratuak izan diren langile horiek zein arlotakoak ziren (goi mailakoa, fabrika langileetako bat...), agian informazio hori ez dute banakatua eman, baina nahiko eta informazio ugari</p>

eskaintzen dute 2018ko jasangarritasun txostenean ideia bat egiteko. Garrantzitsuena, informazioa konparagarria suertatzen da.

103-1: Gai materialen azalpena eta honen estaldura

1.- ZATIA:

2018. urtean zehar, Gestamp-ek kanpo enpresa baten bidez egindako materialtasun diagnostiko bat burutu zuen. Materialtasun honen zergatiaren helburua gehienbat, taldeak ingurumen arloan, ekonomikoan eta sozialean iraunkortasun eremuan izandako eragina ebaluatzean datza, zehazki, gero, taldeak estrategia bat burutzeko helburuarekin. Diagnostiko horri esker, Jasangarritasun eta Gizarte Erantzukizun Korporatibo arloan egon daitezkeen arriskuak, gap-ak eta hobetzeko aukerak identifikatu dituzte, 158 gai aurkituz, barne- eta kanpo-analisan. 5 kategoriatan eta 28 lehentasunezko gai edo materialetan multzokatuak izan dira:

Taula 37: Identifikatutako lehentasunezko gaiak

Gai ekonomikoak	Gai etikoak eta gobernu korporatiboa	Produktu eta zerbitzuei buruzko gaiak	Gizarte era langileei buruzko gaiak	Ingurumena ri buruzko gaiak
1-Finantza sendotasuna 2-Transparentzia fiskala 3-Hornidura katearen kudeaketa arduratsua 4-Lankidetzazko estrategikoak	5-Etika eta integritatea negozioetan 6- Informazioaren transparentzia eta gestioa 7-Praktika onen aplikazioa gobernu korporatiboan 8-Aukera ezberdinen gestio integrala 9-Legearen betetzea 10- Informazioaren pribatutasuna eta konfidentzialtasuna	11- Informazioaren segurtasuna eta kalitatea 12-Bezeroaren gogobetetzea 13- Produktuen eta zerbitzuen hornidura ziurtapena 14- Produktu berrien garapenari aplikatutako berrikuntza 15-Kalitatea eta eragiketa bikaintasuna	16- Osasuna eta segurtasuna lan postuan 17- Berdintasuna eta diskriminazioarik eza 18- Lan postuaren kalitatea 19-Prestakuntza eta garapen profesionala 20- Talentu espezializatuaren erakartzea 21- Giza baliabideen errespetua 22- Tokiko komunitateekiko parte-hartzea 23- Interes-taldeen harremana eta konpromezua	24- Aldaketa klimatikoa 25- Ingurumen gestioaren sistema 26- Materialen erabilpena efizientea eta arduraduna 27- Ekonomia zirkularra 28- Baliabide hidrikoak


Iturria: Gestamp jasangarritasun txostena

Ondoren behin 28 aspektu material hauek analizatuta, Gestamp-ek garrantziaren araberrako sailkapen bat burutu du:

Taula 38: Gai materialen sailkapena garrantziaren arabera

Aspektu materialak	Estaldura	Aspektu materialak	Estaldura
11- Produktuen kalitatea eta segurtasuna	X	7-Praktika onak aplikatzea gobernu korporatiboetan	X
1-Finantza sendotasuna	**	20- Talentu espezializatuaren erakarpena	X
15- Operazioen kalitatea eta bikaintasuna	X	3-Hornidura-katearen kudeaketa arduratsua	*X
13-Produktu eta zerbitzuen hornidura ziurtatzea	**	18-Lan postuaren kalitatea	X
12-Bezeroaren betebeharra	**	19-Prestakuntza eta garapen profesionala	X
		25-Ingurumena kudeatzeko sistema	X
5-Etika eta integritatea negozioetan	*X	4-Lankidetzaren estrategikoa	**
14-Produktu berrien garapenari aplikatutako berrikuntza	*X	10-Informazioaren pribatutasuna eta konfidentzialtasuna	X
		23-Interes-taldeen harremana eta konpromezua	*X
16- Osasuna eta segurtasuna lan postuan	X	26-Gaien erabilera eraginkorra eta arduratsua	X
		27-Ekonomia zirkularra	*X
		22-Tokiko komunitateetako inplikazioa	*
21-Giza baliabideen errespetua	*X	17-Berdintasuna eta diskriminaziorik eza	X
6-Informazioaren transparentzia eta gestioa	X	28-Baliabide hibridoak	*X
9-Legea betetzea	X	Estaldura: Barnekoa X - Kanpokoa *X	
8-Aukera eta ahulezien gestio integratua	*X		
24- Aldaketa klimatikoa	**		
2-Kontribuzioa eta transparentzia fiskala	*X		

Irudia 2: Materialtasun matrizea interes taldeen eta enpresa-negozioaren arabera



Iturria: Gestamp jasangarritasun txostena

Taula 39: GRI 103-1 informazioaren azalpena

<p>2.- ZATIA</p> <p>Azalpena:</p> <p>Ikusten den bezala, Gestamp-ek jasangarritasun txostenaren materialtasun analisia hiru zatitan banatu du. Lehenengo, enpresarentzat garrantzitsuenak diren 28 aspektu izendatuak izan dira, horietako bakoitza kategoria ezberdinetan banatuz, dagokion gunean. Ondoren, 28 aspektu horiek garrantziaren arabera ordenatuak izan dira, bakoitzari dagokion estaldura ipiniz; azkenik, ikusten den matrize baten bidez, 28 aspektu horiek negozio- garrantziaren arabera eta interes taldeen interesen arabera ordenatuak izan dira.</p> <p>Hortaz, GRI jasangarritasun txostenak bere gidalerroetan adierazten duenarekin nahiko bat dator, informazioa egokia dela esango nuke; izan ere, materialtasun analisiaren prozesuaren deskribapena azaleratzen dute, jasangarritasun gai bakoitzeko aspektuak banan-banan klasifikatuz. Gai horiek, bost kategoria ezberdinetan banatu dituzte, horrek aukera ematen digu jakiteko, 28 aspektuak enpresaren zein gunetan jorratzen diren, arazo posibleak ekiditeko. Agian, behar bada, enpresa eta beraien interes taldeetan enfokatu beharrean soilik, Gestamp-ek enpresatik kanpoko zer nolako eragin duenari buruz gehiago hitz egin behar luke, oso gaitetik hitz egiten baitu. Hala ere, orokorrean, informazioa konparagarria dela iruditzen zait, datu asko ematen dituzte, eta materialtasun analisi honekin, zer nolako plan estrategikoa burutzen duten pentsa dezakegu.</p>

103-2: Kudeaketa ikuspegia eta honen osagaiak

1.- ZATIA

Gestamp-entzat, taldearen printzipio enpresarial garrantzitsuena jasangarritasuna da, epe luzerako helburua izanik, komunikazioa eta errespetua bultzatuz enpresaren eragile guztien artean. Taldeak dio, helburu ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak bat egitea dela beraien lehentasuna, hiruak berdintasunez kudeatzen, estrategia eta eredu jasangarria bideratzeko.

Jasangarritasuna, atal teorikoan hitz egindako “triple bottom line” bezalako kontzeptutik abiatzen dela adierazten dute; bertan, organizazioa (Gestamp), bezero katea eta gizartea elkarlanean arituz. Entitateak jasangarritasun kontzeptua eta erantzukizun korporatiboa sustatzeko betebeharra du enpresaren gune guztietan.

Kudeaketa ikuspegiaren helburuak, 103-1 atalean burututako materialtasun analisiaren harira, ondorengo sei ardatz estrategiko edo politika hauek zenbatetsiak izan dira, ondoren politika horien konpromezuak zein diren adieraziz, hori lortzeko baliabideak zenbatuz, eta bukatzeko hori guztiarekin lortutako helburuak zein izan diren azalduz:

Taula 40: Entitateak ezarritako mekanismo ezberdinak

Ardatz estrategikoak (Politikak)	Konpromezuak	Baliabideak	Lortutako helburuak
Integritatea eta erantzukizunez aktuatu	Aukera eta indar ezberdinak kudeatzea da helburua, errentagarritasun maila egokia lortzeko.	<ul style="list-style-type: none"> • Etika eta kultura korporatiboa • Gobernu korporatiboa • Arriskuen kontrola eta gestioa 	122 komunikazio jasoak jokabide koderako kanalen bidez
			Jokabide kodea aplikatzeari buruzko kanpo-ikuskaritzaren %65
			Jokabide kodeko 55 gomendioen %96ko betetzea
Bikaintasun operazionala	Enpresa lantegi guztien artean lehiakortasuna areagotzea da helburua, bikaintasuna lortzeko, efizientzia, kalitatea, segurtasuna, teknologia eta	<ul style="list-style-type: none"> • “One gestamp” efizientzia eta kalitatea sustatzeko • Hornitzaile gestioa zaindu 	Energia kontsumoaren 40GWh-ko murriztea 2017arekiko
			Energia-eraginkortasuneko proiektuak dituzten 28 instalazio

	berrikuntzak sustatzeko		%8ko eta %6ko hobekuntza ekoizpen instalazioen lan baldintzetan eta prebentzioaren kudeaketan
			0 heriotza istripu
Profesional onenak izatea	Langileen potentziala indartu, taldearen helburuak lortzeko	<ul style="list-style-type: none"> • Talentu gestioa • Ezagupen • Formazio jarraitua 	43.553 langile (2017an banio %6,1 gehiago)
			78 lantegik neurri eta planak jorratzen dituzte berdintasuna areagotzeko
			Langileen %65,5 hitzarmen kolektiboan
			28h/urteko formazioa langileko
Ingurumen eta aldaketa klimatika minimizatzea	Produktu eta operazio- prozesuak sortzen duen inpaktua gutxitu	<ul style="list-style-type: none"> • Ingurumen kudeaketa • Baliabide naturalak efizientziaz erabili • Produktu jasangarriagoen erabilpena sustatu 	ISO 14.001 edo EMAS II ziurtagiria duten ekoizpen- instalazioen %92
			Hondakinen %98 ez dira arriskutsuak; horietatik, %96 txatarra da, %100 birziklagarria
Garapen ekonomikoa eta ongizate soziala	Taldeak lan egiten duen herrialde guztietan komunikazio- maila berdina jarraitu eta lortu	<ul style="list-style-type: none"> • Estrategia berdina jarraitu • Hirugarrenekin sinergiak/aliantzak burutu 	206 gizarte ekintzak eginak
			1.670.600€ gizarte kontribuzioan
			6.702 langile boluntario lanetan

			731 ikastun eta bekadun
Transparentzia interes taldeekin	Komunikazioa sustatzea interes talde guztiekin ezinbestekoa da, enpresaren reputazio ona agerian gera dadin	<ul style="list-style-type: none"> • Interes taldeen espektatiben eta beharren kudeaketa • Interes taldeen arteko komunikazio-kudeaketa • Entitatearen posizionamendua 	10.979 inpaktu komunikabide eta sare sozialetan

Iturria: Gestamp jasangarritasun txostena. Egileak egina

Taula 41: GRI 103-2 informazioaren azalpena

<p>2.- ZATIA</p> <p>Azalpena: 103-2 azpi adierazle hau, GRI gidalerroen arabera, hiru “zatitan” bezala dago zatituta; alde batetik, gaiaren kudeaketa azaltzeko eskatzen du, ondoren, honen helburua eta azkenik azalpen batzuk eskatzen ditu.</p> <p>Hortaz, ikus daiteke Gestamp jasangarritasun txostenak gaiaren aurkezpen orokor bat egiten duela, bertan, “triple bottom line” bezalako kontzeptuekin elkarlanean aritzen direla azaleratzen, ekonomikoa, soziala eta ingurumen atalak batera joatearen ibilbidea ezinbestekoa dela adierazten, beste hainbat faktoreen artean. Ondoren, kudeaketa ikuspegiaren helburuak jorratzen ditu; kasu honetan laburragoa izan dadin, jasangarritasun txostenean aurkitutako informazioa bildu, eta taula bat egin dut, bertan informazioa argiago eta zuzenago aurkitzeko; bertan, zein politikak ezarri diren, konpromezu ezberdinak politika bakoitzarekiko, zein baliabidez hornitu diren konpromezu horiek lortu ahal izateko, eta hori aplikatu eta gero lortutako helburuak/erantzunak zein diren azaldu ditut. Beraz, GRI-k adierazten duen “ondorengo azalpenak” zatia, taula horren barnean ipini dudala ikus daiteke.</p> <p>Orokorrean, nahiko informazio ematen du analisi egoki bat burutzeko, gai ezberdinak jorratzen ditu eta GRI-k eskatzen duenarekin bat dator. Beraz, informazioa konparagarria dela esan daiteke. Behar bada, entitateak bere erantzukizunak zein izan diren azaldu beharko lituzkete, alde ez hain positiboetarako buruz ere jakiteko.</p>

103-3: Kudeaketa ikuspegiaren ebaluazioa

1.- ZATIA:

Urteko kanpo- auditoriak

2018. urtean zehar, enpresa independente batek bideratu ditu entitatearen auditoretza zerbitzuak, ea langileek zenbaterainoko ezagutza zuten jokabide kodeari buruz ziurtatzeko. Urte horretan bertan, Portugal eta Erresuma Batuko zentroetan eman ziren aurrera ikuskaritza hauek, eta aurreko urtetan berdina egin zuten Alemania, Argentina, Brasil, Txina... bezalako lurraldeetan.

Adostutako hobekuntza planen jarraipena

Kanpo ikuskaritzetatik abiatuta, zenbait hobekuntza- alderdi identifikatuak izan dira. Alderdi horiek konpontzeko eta jokabide kodearen aplikazioa hobetzeko neurriak eta ekintza- planak gauzatuak izan direla baieztatzen dute jasangarritasun txostenean. Gestamp enpresa, normalean, sei hilero biltzen da Etika Batzordearekin.

2018. urtean zehar gorabeherarik izan ez denez, araudiak agintzen duen bezala, Etika Batzordea urtean bitan bildu dela baieztatzen dute. Bestalde, “Compliance Office”-en kargua daraman langileak, txosten bat egiteko betebeharra jasotako notizia edo berri guztiekin.

Eraitza: Gestamp-ek baieztatzen du talde guztiaren %65-a ikuskatua izan dela, jokabide kodearen ezagupena egokia den edo ez egiaztatzeko.

Jokabide kodearen aplikazioa egokia izan dadin, Gestamp-ek kanpaina bat abiarazi zuen 2018. urtean, “¿Cómo actuamos?” kanpaina; honen helburua jokabide kodea ezagutzearen garrantzia azpimarratzea izan zen, entitatearentzat ezinbestekoa baita ospea, balioa eta integritatea bezalako kontzeptuak indartzeko, horrela, bai lan esparruan, interes talde ezberdinekin eta ingurumenarekin harreman onak izateko. Azken urteetan munduko hainbat tokitako langileek egindako galderetan oinarritua izan da kanpaina hau, besteak beste, printzipio korporatiboetako buruzko galderak iritsiak izan dira, edo eta zer den integritatea bezalakoak.

Kanpainaren zabalkunde orokorrerako, barne- komunikaziorako hainbat tresna erabili dituzte, hala nola, langileen pasaguneetan kartel informatiboak itsatsi, bideo interaktibo ezberdinak egin edo eta entitatearen intranet sarean “One gestamp” ekimenaren bitartez ekintzak ezberdinak egin.

Taula 42: GRI 103-3 informazioaren azalpena

2.- ZATIA

Azalpena:

Gestamp jasangarritasun txostenak 103-3 azpi adierazle honi buruz ematen duen informazioa laburragoa da beste azpi adierazleekin konparatuz gero. GRI gidalerroak eskatzen duena kontutan hartuz gero, pentsa daiteke ez datorrela bat, hau da, gidalerroak, kudeaketa ikuspegiaren ebaluazio metodoa, emaitzak eta ea aldatetaren bat egon den adierazteko eskatzen du, orokorrean, zati honetan ikuskaritzetako buruzko informazioa emateko eskatzen du.

Azken finean, korrupzioaren inguruko ikuskaritzen kasuan, jokabide kodearen ingurukoak azaldu behar dira, eta hori bai betetzen dute; urteko ikuskaritza, jokabide kodearen inguruan burutua izan dela adierazi dute, nola egiten duten azalduz; ondoren, zenbait hobekuntza egin dituztela adierazten dute jasangarritasun txostenean, eta zer nolako “emaitza” izan duten azalduz. Gainera, arau haustea ez gertatzeko abian jarritako kanpaina motaren nondik norakoak azaltzen dituzte.

Beraz, GRI-k eskatzen dituen hiru puntuak nire ustez azaltzen ditu; agian, egia da entitateak bere modura ipintzen duela informazioa, baina izatez, bete dituzte eskatutakoak. Zerbait gehitzeagatik, uste dut ondo egongo litzatekeela zein hobekuntza egin dituzten azalduko balituzkete, izan ere, hobekuntza horiek azalduz gero, neurri berri horiek zergatik izan diren ezarriak ondoriozta dezakegu. Hala ere, informazioa nahiz ta laburra izan egokia dela iruditzen zait, konparagarria, alegia.

Horrenbestez, honekin nahiko argi geratu da zer izango litzatekeen korrupzio-politikei buruz komunikatzea, GRI-k eskatzen duena kontutan hartuz. Hala ere, berezitasun bat nabarmendu nahiko nuke, izan ere, Gestamp-eko jasangarritasun txostenean, GRI guztiak aurkitzen diren aurkibidera joanez gero, (205 eta 103 indikatzaileei buruzko informazioa zein orrialdeetan jartzen duen horretan), horri zenbaki-kopurua berdinak agertzen dira bi indikatzaileentzat (eta noski bakoitzaren azpi adierazleentzat). Beraz, informazioa ondo dago, baina ez dago sailkatua azpi indikatzaile bakoitzak eskatzen duen arabera. Horregatik, informazioa irakurri, ondorioak atera eta ondoren lan honetan eskuragarri jarri behar izan dut.

Honekin, atal praktikoari amaiera emango nioke, eta lan guztian zehar aurkitutako ondorioen atalarekin hasiko nintzateke ondorengo lerroetan.

4.Gaia. Ondorioak

Azkenik, lan honen bukaerara iritsi gara, eta atal honetan lan guztian zehar hitz egindakoaren harira zenbait ondorio aurreikusiko ditut. Helburua, enpresek korrupzioaren kontrolerako ezarritako dituzten politiken azterketa egitea izan da, ea azkeneko hau GRI gidalerroak eskatzen dunarekin bat datorren eta gizarte erantzukizuna eta garapen jasangarria bezalako kontzeptuak zer diren eta zer nolako garrantzia izan duten historian zehar azalduz. Hasteko, atal teorikoan zehar agertu diren bi ideia printzipalekin hasiko naiz, gizarte erantzukizun korporatiboak sorrarazitako gogoeta batekin, alegia.

Gizarte erantzukizun korporatiboaren kontzeptua nahiko berria da, kontutan hartuz gero 1987. urtean geratu zela “ofizializatua”, Brudtland-eko txostenaren bitartez, beraz, orain dela 30-40 urte inguru entzuten hasi zen zerbait izan zen. GEK-ak hainbat definizio dituen kontzeptua dela argi geratu zaigu, baina zer datorkigu burura GEK entzutean? Behar bada oraindik ere argi ez dagoen kontzeptua da, GEK-aren inguruan hitz egitean, ingurumena inguratzen duen “munduan” bakarrik oinarritzen garela ematen du, gehienbat, enpresa askok ingurumenaren inguruko datu gehiago aipatzen baitituzte, GEK-a osatzen duen beste adarrak bigarren postu batetan utziz. Hau aldatzen saiatu beharko ginateke, edo, hobeto esanda, enpresek gai izan beharko lirateke enpresa- jarduera murgiltzen duen hiru gai hauei buruzko informazioa emateko, hau da, ekonomikoa, soziala eta ingurumen gaiei buruz informatzeko, hiru ikuspegiak maila berdinean ipiniz. Gainera, edozein motetako analisi edo ikerketa bat egitean, informazio ugari aurkituko genukeela ziurtatutako ginateke; GRAL honetan agian, atal praktikoan falta izan dena.

Horregatik, gauzak aldatzeko garrantzitsua da korporatiboa denaren esanahia ondo ulertzea, enpresa batek zer den korporatiboa ondo integratzea, argi geratzea aldaketa bat sustatzeko, aldaketak goitik hasi behar duela, zuzendaritzatik, zuzendaritza organo guztiek ingurumena, ekonomikoa eta soziala dena batera integratzen, eta enpresaren estrategia hiru kontzeptu hauekin bat eginez, enpresa inguratzen duen interes-talde guztietan jarrera soziala erakutsiz, horrela, begi-bistan gera dadin enpresaren konpromezu fidela eta garbia erantzukizunaren arloan. Ezin baita aldaketa bat eskatu, enpresa ez baldin badago ongi enfokatua, eta behin hori lortuta, orduan gauzak aldatzen hasiko lirateke, ezin baita eskatu enpresaren oinarriak aldatzea, adibidea eta izate ona eman behar dutenek eredia ez badute jarraitzen.

Ez dago dudarik GEK-a ondo ulertzearen garrantzia eta ekonomikoa, soziala eta ingurumena enpresa estrategian integratzearen ezinbestekotasuna. Hori dela eta, behin argi geratuz hori, enpresa batek txertatu behar duen bigarren fasea jasangarritasun txostenak egitearena da, horregatik garrantzitsua da GEK-a ondo ulertzea, azken finean txostenean enpresa bakoitzak ingurumen arloari, ekonomiko eta sozialari buruzko datuei buruz informatu behar baitu.

Bide horretatik, Global Reporting Initiative eta jasangarritasun txostenak aurki ditzakegu, hauei buruzko kritikak edo hausnarketak ere aurkitzen. Lan hau egiten hasi baino lehenago, behin edo bitan entzunda nituen GRI-ari buruzko zenbait datu, eta lehenengo aldia unibertsitatean izan zen. Oinarri hortatik hasiz, karrerako hirugarren maila arte ezjakintasun osoa nuen honi buruz, momentu hartan ere ondo ulertu gabe zer zen GRI txosten bat, bere helburuak eta irismenaren nondik norakoak ulertu gabe.

GRI txosten baten muina izango litzatekeena barneratu dut GRAL honen atal teorikoan: informazio ez finantzarioa. Informazio mota honen oinarriko helburua enpresa inguratzen duen eremu guztietan transparentzia bermatzea da. Gero eta garrantzi gehiago ematen zaio informazio-ez finantzario honi, izan ere, orain arteko datu finantzarioek soilik ez baitituzte erabiltzaile askok eskatzen dituzten bete-beharrak asetzen. Horrela, informazio- ez finantzarioarekin jasangarritasuna hobetzea lortzen da, inbertitzaileen, kontsumitzaileen, eta, azken batean, gizartearen konfiantza areagotzeaz gain.

Zenbat aldiz entzun dugu telebistan jasangarria izatearen garrantzia? Edo eta GRI txostena argitaratu dituzten enpresa kopuruei buruzko informazioa? Itunak eta hitzarmenak egitea ondo dago, edozein aurrerapauso gai honen inguruan beti izango da ongi etorria, baina gauza bat hartutako erabakiak dira, eta beste bat erabaki horiek ondo ezarriak eta aplikatuak izan direla ziurtatzea da.

Azken urteetan, enpresek ardua handiagoa hartu dute portaera eta jarrera arduratsuagoak sortzeko helburuan, batez ere, gobernuen eta, oro har, gizartearen presio handiagoagatik. Hala ere, oraindik enpresa askok neurri jasangarriagoak aplikatzearen beldur dira, neurri horien aplikazioak enpresari kalte ekonomikoa eragin diezaiokeenaren eztabaida baitago. Nire ustez, GEK-a murgiltzen duen informazio ez finantzario hori argitaratzeak ez lioke

kalte egingo enpresari, azken finean enpresa-jarduera baten atzean sorrarazten dena gizarteari begi bistan uzteko aukera sorrarazten da, zenbakiez haratago joan daitekeela argi uzten. Enpresa estrategia bat sortzeko modua ere izan daiteke; esate baterako, ospe korporatibo ona edukitzeko aukera egon daiteke, lehiatzeko abantailak handituz eta, beraz, enpresaren emaitza/ mozkinak hobetuz eta maximizatuz.

Lanean ikusten den bezala, jasangarritasun txostenen argitalpenak bi etapa izan ditu: lehenengoa 1999-2009 tartean eta bigarrena 2009-2016 tartean. Lehenengoan etapan, 9 jasangarritasun txosten argitaratzen, 1492 argitaratzera pasa ziren, Espainia txosten gehien argitaratzen zituen herrialdea izanik, 2009. urtean 145 txosten argitaratzera iristen. Denborak aurrera egitean, ikus daiteke jasangarritasun txostenak argitaratzearen eboluzioa positiboa izan dela, baina ez lehenengo etapan bezain adina. Hala ere, 2011. urtean ateratako legeak irmoki eragin zuen txostenen argitalpenen eboluzio positiboan. Agian, Espainiak rankinean izan duen jaitsiera, txostenak egitea oraindik ere hautazkoa izatean du oinarria.

Bide horretatik jarraituz, lan honen atal praktikora iritsi gara. Behin jasangarritasun txostenak eta GEK-aren nondik norakoei buruzko gogoetak eginda, lanean zehar ikusi den bezala, Global Reporting Initiative- ereduko arlo ekonomikoaren azpi adierazleetako batean oinarritu naiz, eta hori aplikatzeko moduan. Bertan, GRI 205 eta 103 adierazleak sartzen dira.

Atal praktikokoan ikusi den bezala, Europar Batasun barneko, herrialde guztietako automozioari bideratutako enpresak aztertu ditut GRI datu baseko laguntzarekin, eta analisia bideratzeko orduan zenbait berezitasun aurkitu ditut. Hasteko, Europar Batasuna osatzen duten herrialde guztien artean (27), 9 dira soilik automozioaren inguruan jasangarritasun txostenak argitaratzen dituzten enpresak, nahiko gutxi, kontutan hartzen badugu Europar Batasuneko herritarren 12,1 milioi pertsona automozioaren sektorean lan egiten badute. Hortik, GRI Standards ereduan, korrupzioari buruzko informazioa ematen duten enpresak 20 dira, eta bakoitza aztertu eta gero zenbait kritika jaso ditut.

Lehenik eta behin, arraroa egiten zait ikustea Alemania bezalako herrialde indartsu batek zer nolako maila txikia duen korrupzioaren inguruan eskainitako informazioarekin. Ez dut uste baliabide faltagatik denik, baizik eta interes faltagatik; hau da, ezin da ulertu nola BMW bezalako “erraldoi” batek ez duen korrupzioaren inguruko informaziorik ematen konfidentzialtasunagatik, edo eta Volkswagen bezalako enpresa handi batek ez duen jasangarritasun txostenik argitaratzen.

Honekin bat eginez, GRI iraunkortasun-memoriak argitaratzea bezain garrantzitsua da, enpresek zer informazio-mota eta nolakoa den informazio hori jakitea. Egindako analisian, behin edo behin, enpresak ez dute GRI gidalerroak eskatzen duenarekin bat egin, horregatik, analisia burutzeko orduan puntuaketa baxua jaso dute. Bestalde, bitxia iruditu zait konturatzea jasangarritasun-memoria osoak irakurtzean, enpresek informazio gutxien ematen duten multzoa dela 205 eta honi dagokion 103 adierazleei buruzko

informazioa. Hari beretik jarraituz, frustagarria suertatu zait ikustea zenbat enpresek eskaintzen duten zentzurik gabeko informazioa. Askotan, iruditu zait zerbait ipintzeagatik eta horrela beraien jasangarritasun txostenean korrupzioari bideratutako atalean informazioa eskaintzen dutela agertzeko egiten dutela. 205 eta 103 adierazleetako azpi adierazleak aztertzean, enpresak askok bi azpi adierazleetan soilik eskaintzen duten informazioa, beste batzuk aldiz, azpi adierazle gehienetan, baina informazio-errepikakorra eta besteetan, irakurtzean eskainitakoa, zentzurik gabekoa dela iruditu zait.

GRI jasangarritasun txosten guztiak irakurtzean, gauza bat argi geratu zait, edozein enpresak jokabide kode zehatz bat prestatuta eta aplikagarria izatea ezinbestekoa dela, oso garrantzizkoa dela enpresa osatzen duten guztiek horri buruzko informazio sakona edukitzea, baina gai honi traba bat ikusten diot; enpresa gehienak honetaz baliatzen direla informazioa emateko unean. Hau da, jokabide kodea txostenean azaltzea ondo dago, egokia dela iruditzen zait, azken finean jokabide kode horren inguruan mugitzen dira bi adierazle hauek, baina enpresak hontaz baliatzen dira informazioa eskaintzeko unean, azpi adierazleetan soilik jokabide kodeaz hitz egiten, eta ez GRI gidalerroak eskatzen duena betetzen. Gainera, gutxi balitz, enpresa bakoitzak azpi adierazle ezberdinetan hitz egiten du honi buruz, batzuk modu batean eta beste batzuk beste batetara.

Oreka lortzea zaila egin zait, ez baitute korrupzio politiken inguruan %100ean eskakizunekin bat egiten, orduan, enpresak nola eman nahi izan duen informazioa kontutan hartu behar izan dut, moldatu, eta ondoren, modu batean zein hurbiltzen zen GRI-k eskatzen duenarekin kontutan hartu. Agian, hau izan da gehien kostatu zaidana, entitate bakoitzak nahi duen modura ipintzen baitu informazioa.

Dena dela, esan beharra daukat, aztertutako herrialde guztietatik, GRI 205 eta 103 adierazleei buruz informazio- maila egokiena erakutsi duen herrialdea Espainia izan dela, Gestamp enpresaren bitartez. Honen kasuan, azpi adierazle bakoitzean ematen duen informazioa, GRI gidalerroan eskaintzen duenarekin alderatu eta gero, ikus daiteke eskaintzen dituen datuak egokiak, zabalak, zehatzak, zuzenak eta konparagarriak direla. Zati batzuetan sakontze—maila gehiago falta izan zait, adibidez GRI 205-2 azpi adierazlean, korrupzio-politiken inguruko formazioaren kasuan, eskaintzen dutena ondo dago, baina batzuetan nahiko xumea suertatu zait; denbora eta konpromezu gehiago hartu beharko lukete gai honen inguruan. Hala ere, orokorrean informazioa ona dela iruditu zait.

Bestalde, zerbait komentatzea gustatuko litzaidake, zertxobait harritu egin bait nau: GRI indikatzaileen aurkibidera joatean, 205 eta 103 indikatzaileen atalera, azpi adierazle bakoitza zein orrialdeetan dauden ikustean, enpresa gehienak azpi adierazle bakoitzerako zenbaki-orri berdinak jartzen dituztela konturatu naiz, hau da, ez dute informazioa sailkatzen azpi adierazle bakoitzarekin, hori izan da ere Gestamp-en kasua, horregatik, lehen esan bezala, informazio hori hartu eta dagokion azpi adierazlearekin sailkatzeko orduan zaila egin zait jakitea zer zen enpresak eskaintzen zuena, eta GRI-k bere gidalerroetan eskatzen zuena bereiztea..

Horrenbestez, nahiz eta Gestamp izan niretzat korrupzioaren arloan hobekien informatzen duen espainiar enpresa, prozesu guztia kontutan hartuz gero, lan handia egiteko dagoela iruditzen zait materia honen inguruan. 2020. urtean, enpresa asko eta asko dira hasteko, GRI jasangarritasun txostenik argitaratzen ez dituztenak, eta nahiz eta argitaratu, eskaintzen dutena bat etortzen ez dena (korrupzioaren kasuan). Garrantzitsua da arlo hau sakontzea, eta honen ezaugarriak ondo aztertzea, azken finean, bakoitzak bere lana ondo betez gero, eta behar bezalako informazioa eskainiz gero, enpresak eduki lituzkeen arriskuak aurreikusteko gai izango lirateke, edo eta negozio- puntuak non dauden aztertu. Beraz, aurretik esan bezala, itxura ona eta ospea lortuko zuen gizartearengan, eta enpresarekin lan egiten dituzten hirugarrenek etorkizuneko enpresa bat bezala ikus dezakete entitatea. Mirespena lortzeko modu bat ere baita, jasangarritasun arloan zentzuz jokatzeko. Ondorioz, enpresari “ongi” etortzen zaion zerbait izango litzateke, eta gizarteak eskertuko lukeena.

Konklusio gisa, gizarte erantzukizun korporatiboak eta jasangarriak izatearen garrantzia azpimarratu nahiko nuke. Informazio gehiago behar da, batez ere bigarren kontzeptuaren inguruan. Oraindik ere lanketa handia dago GRI jasangarritasun txostenaren inguruan, enpresa bakoitzak nahi duen moduan argitaratzen ditu datuak, hobekien etortzen zaion moduan, eta ez dago inor zorrotz zigortzen dituenik. GRI 205 eta 103 adierazleei buruz dagoen informazioa urria da, soilik GRI web gunean eskaintzen duen gidalerroa topatu dut, ez dut dokumenturik aurkitu adierazle horietako azpi adierazle bakoitza zer den, zer nolako irismena duen eta zer izango litzatekeen horri buruzko informazio egoki baten adibiderik. Neurri gogorragoak ipini beharko lituzkete enpresen kontra, fabrikazio edo produkzio prozesua nolakoa den aztertuz munduan zehar dituzten herrialde ezberdinetako fabriketan, ez baitira berdinak Espainiako lantegi-ereduak, edo adibidez Bangladesh-en aurki ditzakegun lantegi-ereduak.

Hitz gutxitan, baliabideak bildu behar dira, eta herrialde bakoitzeko aurrekontuaren zati bat gai honi eskaini. Ezin baita onartu gaur egun ditugun abantaila guztiekin, hain aukera gutxi edukitzea jasangarritasun materialian. Behar bada, zenbait interes alde batera utzi beharko lirateke, eta behingoz denon artean ditugun kalitate eta gogoak elkartu mundu eraginkorrago eta jasangarriagoa bat bilakatzeko. Gizarteak eskertuko luke.

Bibliografía

Acosta, R. M. V., Domínguez, M. J. M., eta Ligerero, F. J. R. (2007). Análisis de la responsabilidad social corporativa desde tres enfoques: stakeholders, capital intelectual y teoría institucional. In *Conocimiento, innovación y emprendedores: Camino al futuro* (p. 222). Universidad de la Rioja.

Alvarez Etxeberria, I. (2009). Las memorias de sostenibilidad: un instrumento para la gestión de la sostenibilidad/Sustainability reports as a tool to manage sustainability. *Revista española de financiación y contabilidad*, 677-697.

Alvarez, I., eta Garayar, A. (2013). Evolución de la emisión de memorias de sostenibilidad conforme al modelo GRI. *ASAA-Advances in Scientific and Applied Accounting*, 4(1), 63-72.

Archel Domench, P. (2003). Las memorias de sostenibilidad de la Global Reporting Initiative.

Argandoña, A. (2007).- “La RS de la empresa a la luz de la ética”, Documento de Investigación 708, IESE Business School- Universidad de Navarra.

Baraibar Diez, E. P. (2013). Contextualización de la transparencia en la integración de los elementos de la comunicación empresarial y aplicaciones empíricas de la transparencia social.

Benau, M. A. G., García, L. S., eta Grima, A. Z. (2012). La verificación de la memoria de sostenibilidad en un contexto europeo. *GCG: revista de Globalización, Competitividad y Gobernabilidad*, 6(2), 66-80.

Blasco, J. L., eta Gallego, C. S. (2009). Global Reporting Initiative, La historia de un éxito. *Responsabilidad Social de la Empresa*.

Borup, L., eta Rodríguez Mayoral, A. (2018). Memorias de sostenibilidad, evolución y tendencias: una comparativa entre España y Dinamarca.

Bustami, R., Na, D., Nasruddin, E., eta A'mmaari, S. R. (2013). Exploring ISO 26000 and Global Reporting Initiatives (GRI): a neo-institutional analysis of two CSR institutions. *International Economics Letters*, 2(2), 10-18.

Comisión Europea. (2011). Comunicación de la Comisión al Parlamento Europeo, al Consejo, al Comité Económico y Social Europeo y al Comité de las Regiones. *Estrategia renovada de la UE para 2011-2014 sobre la responsabilidad social de las empresas* (/* COM/2011/0681 final*).

Cortina Orts, A. (2006).- “La RSC y la ética empresarial”, capítulo 6 en, VARGAS ESCUDERO, L. (Coord) (2006).- Mitos y realidades de la RSC en España. Un enfoque multidisciplinar. Thomson Civitas. Navarra.

De Contabilidad, A. E., & De Empresas, A. (2004). Marco conceptual de la responsabilidad social corporativa. *AECA, Madrid*.

Gestamp. (2018). *Memoria de Sostenibilidad 2018* [pdf] (pp. 1-176).

Jaramillo, J. G. C. (2007). Evolución histórica de los conceptos de responsabilidad social empresarial y balance social. *Semestre económico*, 10(20), 87-102.

Lamborghini, F. L., & Sukoharsono, E. G. (2012). A Comparative Analysis of the GRI G3. 1 and the GRI G4 exposure draft. *Jurnal Ilmiah Mahasiswa FEB*, 1(1).

Moneva, J. M., & Lizcano, J. L. (2003). Marco conceptual de la responsabilidad social corporativa. *Asociación Española de Contabilidad y Administración de Empresas AECA*.

Moneva, J. M., & Ortas, E. (2009). Desarrollo sostenible e información corporativa. *Economía industrial*, (371), 139-154.

Moneva, J.M (2005): “La información sobre responsabilidad social de la empresa en el contexto de la reforma contable”, Responsabilidad Social Corporativa. Aspectos jurídico-económicos, Universitat Jaume I, Castellon.

MONEVA, J.M. (2006), «Mecanismos de verificación de la información sobre responsabilidad social corporativa», Papeles de Economía Española, n. 108, págs. 75-90.

Moneva, J.M. y Llena, F. (1996). Análisis de la información sobre responsabilidad social en las empresas que cotizan en bolsa. *Revista española de Contabilidad y Financiación*. XXV (87), 361-402.

Muñoz-Martín, J. (2013). Ética empresarial, Responsabilidad Social Corporativa (RSC) y Creación de Valor Compartido (CVC). *Globalización, Competitividad y Gobernabilidad de Georgetown/Universia*, 7(3).

Ogando, N. V., Souto, B. F. F., & Blanco, S. R. (2012). España en el GRI: empresas que comunican y empresas que verifican. *Revista Digital del Instituto Internacional de Costos*, (1), 147-169.

Pache Durán, M. (2017). La teoría de la ecoeficiencia: efecto sobre la performance empresarial.

Pinillos, A. A., & Fernández, J. L. (2011). De la RSC a la sostenibilidad corporativa: una evolución necesaria para la creación de valor. *Harvard-Deusto Business Review*, 207(1), 5-21.

Revilla, G. G., & Fernández, R. T. (2011). La gestión de los grupos de interés (stakeholders) en la estrategia de las organizaciones. *Economía industrial*, 381, 71-76.

Rodríguez Guerra, L. C., & Ríos-Osorio, L. A. (2016). Evaluación de sostenibilidad con metodología GRI. *Dimensión empresarial*, 14(2), 73-89.

Rodríguez, H., & Juan Vianey Gomez Jimenez, L. (2015). Las demandas de los stakeholders y la evolución de las memorias de sostenibilidad del GRI: un análisis desde la transparencia y la creación de valor.

Rodríguez, J.M. (2007). Responsabilidad Social Corporativa y análisis económico: práctica frente a teoría. *Ekonomiaz* N° 65, 2.º cuatrimestre.

Romero, G. D. (2009). Empresas y gestión ambiental en el marco de la responsabilidad social corporativa. *Economía industrial*, 371, 129-138

Semper, J. D. C. *MEMORIAS DE SOSTENIBILIDAD: LA INFORMACIÓN MEDIOAMBIENTAL EN LOS MARCOS GRI Y AECA* (Doctoral dissertation, Universidad Jaume I).

Serrano, M. M. (2012). La responsabilidad social y la norma ISO 26000. *Revista de Formación Gerencial*, 11(1), 102-119.

Sosa, B. L. (2008). Responsabilidad Social Corporativa. *Responsabilidad Social Corporativa*, 30.

❖ Internet bidezko informazioa:

Balairon, L. (2005). *Protocolo de Kioto: emisiones, negocio y sostenibilidad / Compromiso Empresarial*. Compromiso Empresarial. Eskuragarri: <https://www.compromisoempresarial.com/rsc/2005/09/protocolo-de-kioto-emisiones-negocio-y-sostenibilidad/>.

El mercado de la automoción acelera en Polonia. Icx.es. (2017). Eskuragarri: <https://www.icex.es/icex/es/navegacion-principal/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/paises/navegacion-principal/noticias/NEW2017740565.html?idPais=PL>

El sector automovilístico, motor de la industria checa. Icx.es. (2018). Eskuragarri: <file:///C:/Users/Anne%20Eg%C3%BCes/OneDrive/TFG%20ANNE/DOC2018806383.pdf>

GRI. (2016). *GRI Standards Spanish Translations Download Center*. Globalreporting.org. Eskuragarri: <https://www.globalreporting.org/standards/gri-standards-translations/gri-standards-spanish-translations-download-center/>.

GRI. (2020). *GRI Standards Download Homepage*. Globalreporting.org. Eskuragarri: <https://www.globalreporting.org/standards>.

Introducción a la responsabilidad social corporativa. Observatorio de la RSC. (2014). Eskuragarri: https://observatoriorsc.org/wp-content/uploads/2014/08/Ebook_La_RSC_modific.06.06.14_OK.pdf.

La industria del automóvil representa cerca del 8% del PIB en Portugal. Icx.es. (2018). Eskuragarri: <https://www.icex.es/icex/es/navegacion-principal/todos-nuestrosprincipales/noticias/NEW2018776931.html?idPais=PT>

La responsabilidad social empresarial está cada vez más en la conciencia de los ciudadanos. (2016). [Blog]. Eskuragarri: <https://www.worldcoo.com/blog/responsabilidad-social-empresarial-ciudadanos/>.

Moreno, J. (2014). *La retórica de la responsabilidad social empresarial – Economistas sin Fronteras*. Ecosfron.org. Eskuragarri: <https://ecosfron.org/la-retorica-de-la-responsabilidad-social-empresarial/>

Novedades sobre información no financiera y diversidad. (2018). [Ebook] Eskuragarri: [https://www.ey.com/Publication/vwLUAssets/ey-novedades-sobre-informacion-no-financiera-y-diversidad/\\$FILE/ey-novedades-sobre-informacion-no-financiera-y-diversidad.pdf](https://www.ey.com/Publication/vwLUAssets/ey-novedades-sobre-informacion-no-financiera-y-diversidad/$FILE/ey-novedades-sobre-informacion-no-financiera-y-diversidad.pdf).

Orsi, A. (2011). *La RSE Y Los Partidos Políticos - Diario Responsable*. Diario Responsable. Eskuragarri: <https://diarioresponsable.com/opinion/14575-la-rse-y-los-partidos-politicos>

Talavera, M. (2019). *Así está el sector del automóvil en Alemania, Francia, Italia y España*. Business Insider. Eskuragarri: <https://www.businessinsider.es/sector-automovil-alemania-francia-italia-espana-359807?page=>

Transparencia Internacional España. 2020. *Inicio*. Eskuragarri: <https://transparencia.org.es/>